

MEMORIA

20
18



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

DONOSTIA KULTURA: 2016KO BALANTZEA	3
EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA	9
KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA	11
DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK	13
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA	17
ANTZOKI ZAHARRA	22
SAN TELMO ANTZOKIA	25
ANTZOKI ZAHARRA	
Kultur Ekintza	32
Aiete	39
Casares-Tomasene / Larratxo	43
Egia	50
Ernest Lluch	56
Larrotxene	60
Intxaurreondo	64
Loiola	68
Lugaritz	72
Okendo	76
LIBURUTEGIAK	80
PROGRAMAZIOA	
Musika	98
Arte Eszenikoak	101
Zinea eta ikus-entzunezkoak	110
FESTAK	113
JAIALDIAK	
Heineken Jazzaldia 2018	126
Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Astea 2018	130
Giza Eskubideen Zinemaldia 2018	133
dFERIA 2018	135
dKluba 2018	140
Olatu Talka 2018	142
Poltsiko Antzerkia 2018	144
Teatro de Bolsillo 2018	146
EKINTZA SOZIALAK	148
EKOIZPEN UNITATEA	150



Donostia Kulturaren hiruhilabeteko agenda

DONOSTIA KULTURAK 5 milioi euro erabiliko ditu Arte Sorkuntza bultzatzeko

*Sortzaileei laguntzeko daraman bidean, Donostia Kulturak 5 milioi eurotik gora erabiltzen ditu arte-sorkuntza bultzatzeko, kultur etxeen sarearen eskaintza pedagogikoa sendotzeko, kultur euskarrietan (liburuak eta CDak) inbertitzeko eta Donostiako erakunde eta elkarteei diru-laguntzak emateko.

*Donostia Kulturak gorantzako bidea eraman du bere jardunean, bai programazioari eta bai eskaintzako zerbitzuei dagokienez. 2018an, **7.900 jarduera** programatu ditu; **22 kultur jarduera egunean, batez beste**, kudeatzen dituen guneetan.

*Beste **bazkide-errekor bat, 103.568** kultur txartelekin.

*DK da Gipuzkoan sarrera gehien saltzen dituen kultur eragilea: **280.181 sarrera saldu ditu** 2018an.

*DK-k **700 kultur eta gizarte-eragile baino gehiagorekin** dihardu lanean, eta berak markatzen du Donostiako kultur taupaden erritmoa.

***1.098.253 eta 817.172 lagun** pasatu dira, hurrenez hurren, Donostia Kulturaren bi sareetatik: **kultur etxeena eta Donostiako liburutegiena.**

*Nabarmentzekoak dira, halaber, **gizarte-zereginak, batez ere jaien arloan**, ingurumenarenean, ohitura osasuntsuenean, genero-berdintasunean eta inklusioan.

Hala bada, 30 urte betetzear den honetan (), **gure erakundea liderra da gaur egun kulturak Donostian bizi duen gorldian.**

Donostia Kulturaren eginkizuna da Donostiako gizarteak Kulturara duen sarbidea erraztea eta bultzatzea, eta modu berezian saiatu da horretan 2018an. Jarduteko duen bi bide nagusietatik egin du hori: batetik, **zeharkako programazioa** arte-hizkuntzen, arte-gintzaren eta festa-jardueren aldetik; bestetik, **erabiltzaileen parte hartze gero eta zuzenagoa** erakundeak bultzatzen duen kultur eta jai-zerbitzu bakoitzean, teknologia-berrikuntzari eta hurbiltasun digitalari esker.

“MADE IN 2018” BERRIAK

Asmo handiek darabilte Donostia Kultura! Erakundea inoiz baino biziago dago, plan handiak ditu etorkizunerako, eta jardun geldiezina, egunez egun berritasun ugari dakartzana. Hona hemen 2018ko adibide batzuk:

*Donostia Kulturak, Gipuzkoako lehen kultur eragilea izaki sarrera-salmentan, **Donostian sarrerak saltzeko sistema berria ezarri du 2018an**. Secutix soluzio teknologikoaz baliatuta, Donostia Kultura, Kursaal auditorioa eta Musika Hamabostaldia ticketing-erako software-plataforma batean elkartu dira, lehen pausoak emate aldera bezeroari arreta hobea eskaintzeko Donostiako gune eszeniko nagusietan.

*Hona hemen **DK Aktiba!**, zerbitzugaia berria, Donostia Kulturaren kanal guztiak biltzen dituen hiritarren parte-hartzea sustatzeko, gure guneak bokazioen mintegi bihurtzeko. Musikagelaz ari gara, musika-taldeentzako proba-saioterako aretoak alokatzeko zerbitzuaz; Larrotxene bideoz edo Casares Irratiaz ari gara, ikusentzunezkoetarako bokazioei laguntzeko gune horiez; kultur arlo guztietan eskaintako 700dik gora ikastaroez ari gara; liburutegi-zerbitzu osatuez, edo Donostiako Festak unitateak jaiak eta ekitaldiak antolatzen dituzten taldeei eskaintzen dien laguntzaz.

*Orobat, Donostia Kulturak **Liburuka** aurkeztu zuen, irakurketa sustatzeko proiektua, ikasturte honetan hasi baita programatzen Donostiako 22 ikastetxerekin eta Galtzagorri elkar-tearekin lankidetzan. Lau programa ditu: Motxila txikia, Irakurle gazteak, Itsaspeko bihotzak eta liburuzainen prestakuntza jarraitua.

Eta beste bi berritasun Donostia Kulturaren Liburutegi Sareari dagokionez: mahai-jokoak erantsi zaizkie mailegagaiei, sektore horretan nabari

diren **jolas-jokoetarako** joeren ildotik. Eta Intxaurrendoko Liburutegia ireki zenez -abuztuan-, dagoeneko hiru dira **udako liburutegiak** (Eguzkiteka, Urgull eta Intxaurrendoko), oporretan ere bai baita liburu-eskaerarik. Hartara, bultza egiten zaio irakurketa & igerilekua, hondartza zein mendia binomio onartuari.

***Programazio**-eskaintzan ere, **2018a estreinaldien urtea izan da**. Hona hemen Donostiaren kultur egutegi zabalari gehitu zaizkion hitzordu batzuk:

- Otsailean, **Korner, Kultura & Futbol Festibala** sortu zen, arlo askotako eskaintzarekin, kulturaren eta futbolaren arteko topagune gisa, bai eta eztabaidarako gune gisa ere biekin zerikusia duten auzien inguruan. Izen ezagunek hartu zuten parte Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak bultzaturiko lehen edizio horretan: Jorge Valdano, Xabi Alonso, Bernardo Atxaga, RayLoriga, Manuel Jabois, John Toshack, Andoni Egaña, Anari Alberdi, eta abar.

- **Poesialdia**, Donostiako Poesia Astea, martxoan egin zen lehen aldiz, Poesiaren Nazioarteko Egunaren kariatara. Hamar jarduera, Donostiako beste hainbat gunetan.

- Maiatzean, San Telmo Museoa beste eskaintza bat gehitu zien bisita gidatuei: **San Telmo pil-pilean**, zeinak agerian jarri baitzuen gure kulturaren eta gastronomiaren arteko lotura liluragarria, eta oso harrera ona izan baitzuen.

- Uztailean, **MusikagelaFest** iritsi zen, musika-proiektu berri bat, Donostian Musikagelazerbitzuaren inguruansortzen eta hazten diren musika-bandak bultzatzeko sortua.

- 2018ko azaroan, berriz, Donostia Kulturak beste hitzordu bat bultzatu zuen, **FICA, Nazioarteko Atletismo Film Festibala**.



KULTURA &
FUTBOL
FESTIBALA

- Lankidetzeta biziko hamar urteren ondotik, iazko urrian, Donostia Kulturak eta Malandain Ballet Biarritzek hitzordu berri bat aurkeztu zuten, **Ballet T Egunak**, zeinetan Dantza eta donostiarrak solasean lotu baitziren Victoria Eugenia Antzokian, koreografoekiko topaketen, lantegien, estreinaldien eta abarren bitartez.

***Webgune berriak.** 2018an urtea bete du Donostiako Aste Nagusirako sortutako web-orri bereziak, eta lehen urte honetan 100.000 bisita izan ditu. 2018an, halaber, San Sebastian jaiaren eta danborraden webgunea garatzen jardun dugu, eta 2019ko urtarrilean estreinatu.

*Garapen digitalekin jarraituz, San Telmok **Second Canvas San Telmo Museoa** sakelakorako aplikazioa aterra du, zeinari esker Museoko Arte


bilduma historikoa baitago ikusgai, modu benetan berri batean.

***Arte Ederretako Merezimendua-ren-tzako Urrezko Domina** eman zitzaion otsailean Miguel Martini, gure musika-programatzaile eta Heineken Jazaldiaren zuzendariari, 54 urte betetzear den Jaialdian egindako lanagatik.

ZENBAKI EDERRAK ETA GORANZKO JOERA

Berritasun batzuk baino ez dira hauek, 2018an ere zenbaki handiak izan baititugu, Donostia Kulturak ohi duen bidetik:

- **1.098.253 lagun pasatu ziren Donostiako auzoetako kultur etxeetatik**, non **763 ikastaro** eman baitzitzaizkien **10.246 izen-emaleri**.



62.007
emakumezkoak



41.561
gizonezkoak



Kultur Etxeetako erabiltzaileak %21 gutxiago izan ziren aurreko urtearen aldean, baina hori kultur etxe batzuetan izandako itxiera eta lekualdatzeei zor zaie: Ernet Lluchén, Anoetako Estadioa eraberritzeko lanen ondorioz, eta Okendon, iazko otsailan hasitako egokitze-lanak zirela-eta.

- **817.172 lagunek erabili zuten Donostiako Liburutegi Sarea**, eta **433.973 mailegu** egin ziren.

Aurreko urtearekin alderatuta, erabiltzaileak %9 gutxitu dira, eta maileguak, berriz, %5,8. Hori kultur etxeen kasuan aipaturiko arrazoi berberei zor zaie; izan ere, bi-biek dute beren liburutegia, kultur etxeko zerbitzurik erabilienetako bat.

- 134.435 bisitari izan ditu San Telmo Museoak, eta 162.000 Urgullek, hau da, **300.000 inguru dira Museoak urtean zehar kudeatu dituen bisitariak**.

- Jaiez ari garelarik, ordea, kopuruak are handiagoak dira:

- **Kalkuluen arabera, 1.278.000 lagun mugitu ziren Aste Nagusian**, 30 agertokitan izandako **400 jardueretan**.

- Kalkulatu da Su Festen Nazioarteko Lehiaketan **650.000** lagun izan zirela. Hermanos Caballer enpresak irabazi zuen Urrezko Maskorra.

- 49 ikastetxe eta konpainia (8.046 parte-hartzaile) eta helduen 143 dantza-borrada (17.882 parte-hartzaile) ibili ziren hirian durundotsean San Sebastian egunean. Alegia, **25.928 donostiarrek** (biztanleen %15ek) hartu zuten parte zuzenean, **beren jaia sortuz**.

- Emakumeen 17 traineruk eta gizonezkoen 25ek hartu zuten parte **Kontxako Banderan**, eta kalkulatu da **25.000 lagunek** ikusi zutela zuzenean.

- Santo Tomaseko azokan, berriz, **80.000 lagun** izan ziren, kalkuluen arabera, eta 205 postu.

- Sarreren salmenta eta ikuskizunetan bildutako jendetza: **280.181 sarrera saldu ziren** gune eszenikoetan eta San Telmo Museoan. Horrenbestez, Donostia Kultura Gipuzkoako kultur


eragilerik handiena da sarrera-salmentetan. Gainera:

- 567.188 lagun izan ziren DKren programazio orokorrean.

- 266.115 lagun, berriz, DKren jaialdi nagusietan.

- **Bazkideak**. Gipuzkoako kultur klubik handiena Donostia Kulturaren txartelaren inguruan antolatutakoa da. **103.568 lagunek dute Donostiako kulturarako "giltza" hori**. Deskontu, zozketa eta abarretan eskaintzen dituen abantailak gainera, zenbait zerbitzutarako sarbidea ematen du: liburutegietako mailegua, ikastaroak edo kultur informazio pertsonalizatua jasotzeko aukera.

Klub horren joera goranzkoa da betiere, **2018an 3.000 bazkide berri** bildu baitzaizkio. Urtez urte goia jo dugula pentsatuta ere (izan ere, biztanleen erdia baino gehiago dira bazkide), joerak adierazten digu komunikazio bide horrek lehentasuna duela herritarrentzat.



Hona hemen adierazle batzuk:

- Bazkideen %77 donostiarrak dira (beraz, beste %23 Donostiatik kanpokoak).

- Adin-tarte jendetsuenak 30 eta 44 urte artekoak eta 45 eta 64 urte artekoak dira.

- Kultura edo jaiak kontsumitzen-erabiltzen dituztenen %60 emakumeak dira; horrek frogatzen du emakumeek gehiago parte hartzen dutela sail horietan.

- Bazkideen jatorrizko auzoei dagokienez, Amara doa zerrendaburu, eta ondoren Gros-Ulía, Antigua-Ibaeta, Intxaurren, Erdialdea-Parte Zaharra eta Altza.

- Donostiako wifi sarearen erabilerari dagokionez, %25 Donostia Kulturako bazkideak dira, DK txartelaren bitartez konektatzen baitira.

- Eta azpimarratu nahi izan dugun zenbaki nagusia orain arte zehaztasunez neurtu ez dugun balio bati dagokio: Donostia Kulturak arte-sorkuntzari eskainitako babes eta sustapenari. Izan ere, **5 milioi eurotik gora erabili ditu erakunde honek Sorkuntzarako.**

Sortzaileei emandako babes zuzena 3 milioi eurokoa izan da; atal horrek jaso du Donostia Kulturaren parterik handiena. Pedagogia-eskaintzari, berriz, zeina kultur etxeetan ematen diren ikastaroek osatzen baitute batez ere eta Donostia Kulturaren parte funtsezko bat baita, 700.000€ eman zaizkio; eta kultur euskarrietan egindako inbertsioa -hots, Liburutegien Sareko liburu eta CDetan- 400.000€-koa izan da.

Azkenik, nabarmendu dezagun **dirugantzetan** erabilitako dirutza, ia

600.000€-koa izan baita **Donostia Kulturak** Donostiako elkarte, erakunde eta kultur eta jai-**ekinbideei laguntzeko** diru-kopurua.

IZEN BEREZIAK

Zenbakiak hain dira handiak non ia ezkutatu egiten baitituzte kultur edukia. Laburtu dezagun urtea DKren programazioari dagokionez, bertatik pasatu diren izen batzuk bilduta:

Alberto San Juan, Aldes, Álvaro Arbina, Álvaro Soler, Amaia Elizaran, Amaia Montero, Ana Fernández, Ana Vallés, Anari, Anaut, Ander Izagirre, Andoni Egaña, Andoni Ferreño, Andrés Lima, Andrzej Olejniczak, Andy Chango, Ane Irazabal, Angel Olsen, Anna Calvi, Anna R. Costa, Apocalyptic, Aritza Bergara. Asier Zabaleta, Axuti, Basoa, Beatriz Rico, Bejo eta Sad Nigiri, Ben Howard, Benito Lertxundi, Bernardo Atxaga, Beyond Creation, Bibi Andersen, Billie Holiday, Brad Mehldau, Carla Hidalgo, Carlos Marañón, Carlos Martín, Carlos Zanon, Cécile McLorin Salvant, Cesar Enriquez Cabaret, Charles Mingus, Charlie Parker, Chey Jurado, Chick Corea, Chris Kase, Chris Potter, Cie toulalimnaios, Cielo Raso, Compagnie Illicite-Bayonne, Compañía La que tú me haces, Concha Velasco, Conrad Herwig, Curtis Stigers, Cycle, Danele Sarriugarte, Dani Abreu, Dani Nel. Lo y los saxofonistas salvajes, Daniel Abreu, Daniel Doña, Dantzaz Konpainia, Dave Holland, Dave Weckl, David Serrano, David Trueba, Dawn PennDennisAlcapone, Delorean, Denis Santacana, Denom, DePedro, Doctor Deseo, Duke Ellington, Dvicio, Elena Medel, Elena Oregi, Émile Parisien, Emilia Pardo Bazán, Eneko Sagardoy, Estibaliz Martínez Díaz de Cerio, Etsaiak Eroak, Fabio Marra, Factoría Unahoramenos, Faemino y Cansado, Fernando Broncano, Fernando Cayo, Francesc Fernández/Julia Cortés, Frank y Javier Sun, Freddy Ginebra, Gabonak In Hell,

Muro, Gary Clark Jr, Gorka Otxoa, Governors, Goyo Jiménez, Gregory Porter, Guadalupe plata, Guillermo Roz, Hard GZ, Harkaitz Cano, Hika Teatroa, Iban Zaldúa, Igor Calonge, Imanol Epelde, Imanol Larrinaga, Iñaki Salvador, Inés Sánchez, Irati Iturritza, Iseo & Dodosound, Isidoro Valcárcel, Itziar Atienza, Izaro, Jaiotz Osa, Jarabe de Palo, JD McPherson, Jesús Cisneros, Joan Colomo, John B. Toshack, John Patitucci, Jon Plazaola, Jorge Valdano, José María Pou, José Mateos, Joseba Apaolaza, Joseba Tapia, Josele Santiago, JSharon Fridman, Juan José Millás, Juan Luis Arsuaga, Juan Ramón Makuso, Juan Velázquez, Judith Argomaniz, Karlos Gimenez, Karlos Zurutuza, Kenny Barron, Kiti Manver, Kudai, Kukai Dantza, La Conquesta del pol sud, Lagartijas tiradas al sol, Lasala, Laurentzi, Le Petit Théâtre de Pain, Leire Bilbao, Limiñanas, Lola Herrera, Los hormigones, Luz Casal, Maialen Berasategi, Maite Mutuberría, Malandain Ballet Biarritz, Malena Alterio, Manuel Jabois Manuel Liñán, Manuel Vilas, JMarc Ribot, María Luisa Merlo, María Ribot Manzano, La Ribot, Mario Gas, Mario Vaquerizo, Marky Ramone, Marta Calvo, Martin Parr, Mary Stallings, Mathilde Monnier, Maui, Melani Olivares, Mendeku Itsua, Michel Portal, Miguel d' Ors, Mikel Ayestarán, Mikel Erentxun, Mikel Santiago, Miren Gaztañaga, Morgan, Myriam Pérez, Nacho Carretero, Naïssam Jalal, Nerea Arrien, Noelia Adánez, Noelia Lorenzo, Noemi Ruíz, Oihana Varela, Olatz Salvador; Pablo Derqui, Pablo García Casado, Pablo Rotemberg, Pascals, Patri Goialde, Paz Alarcón, Paz Padilla, Pepa Plana, Pepón Nieto, Peru Iparragirre, Pez Limbo, Physis vs. Pelas, Pilar Gómez, Premodernos, Pristine, Rabih Abou-Khalil, Ramon Saizarbitoria, Raúl Vacas, Ray Loriga, Remedios

+ 100.000
pertsona

Zafra, Roberto Santiago, Roberto Valencia, Rocío Márquez, Rosana, Rubén Blades, Ruper Ordorika, Rural Zombies, Sara Cozar, Sharon Fridman, Silvia Pérez Cruz, Sofía Rei, Sonakay (kañonazoa), Su Ta Gar, Taiat Dansa, Tanttaka, Tartean, Teatro Clásico de Sevilla, Tenpera, The Funamviolistas, The Mani-las, Théâtre des Chimères, Tony Brighth, Too ManyZooz, Travellin' Brothers, Txalo, Txaryke, Tygers of Pan Tang, Uxue Alberdi Vaivén, Vandana Shiva, Vendetta, Verdini, Vincent Peirani, Willis Drummond, Xabi Alonso, Xabier Mendiguren, Xake Produzioak, Yann Tiersen, Zakir Hussain, Zea Mays, Ados, Ainara Ortega, Aitor Arregi, Aitziber Garmendia, Aiumeen, Alan. Ni, Alaska.

JAIALDIEN HIRIA

Baina, horrez gainera, gauza jakina da Donostia jaialdien hiria dela; urtez urte berresten dute hori Donostia Kulturak bultzatzen dituen hitzorduek; honako hauek, alegia (2018an izan den parte-hartzearen datuekin):

Heineken Jazzaldia (172.203)

dFERIA (8.400)

Giza Eskubideen Zinemaldia (9.811)

Fantasiako eta Beldurrezko

Zinemaren Astea (10.332)

Olatu Talka (30.000)

Dkluba (18.876)

Literaktum (10.867)

Korner (2.500)

Denak batuta, **260.000 lagunek baino gehiagok hartu dute parte Donostia Kulturaren jaialdietan**. Kopuru horiek izotz-mendiaren erpina dira, ordea. Izan ere, oso kontuan hartzekoak dira urteko beste hitzorduek: EuskalMetalFest, ZombieJaialdia, Poltsiko Antzerkia, Bertso Astea, Heavy jaia, Musikagela Weekend, Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Mikologia Jardunaldiak, Nazioarteko Folklore Jaialdia, Literatura eta Kafea, Ipuin

Maratoia, Poesialdia, Nosferatu, Bang Bang Zinema, Zinema Hondartzan...

Beste 25 hitzordu urtean zehar, donostiarrek beren egutegietan apuntatuta dituztenak, kasuan kasuko agendak noiz aurkeztuko zain, urtez urte.

ERAKUSKETAK

San Telmo Museoan, hamar erakustaldi izan dira erakusketa iraunkorraz gainera, zeina etengabe eguneratzen baita. Erakusketa horien artean, *Artea eta Mitoa. Pradoko Jainkoak* eta *Gorputza asmatzen. Biluziak, anatomia, pasioak* nabarmendu ziren. **134.435 bisitari izan ditu San Telmo museoak. 792 pieza erosi zituen 2018an.** Museoak kudeatzen du, halaber, **Urgulleko erakusketa-gunea, Donostiari begira**, non **162.000 bisitari** izan baitziren.

Donostia Kulturaren **kultur etxeek**, berriz, **107.022 bisitari** izan zituzten Okendo, Aiete, Ernest Lluch eta Egia kultur etxeetako erakusketa-aretoetan.

Hartara, 2018an **401.030 bisitari** hartu zituzten DK-k kudeatzen dituen **erakusketa-aretoek**.

IKUS-ENTZULE BIRTUALAK

Donostia Kulturaren web-atariak -beste hogeita marka biltzen ditu bere baitan- **bi milioi bisitatik gora izan ditu:** 2.446.504. Hartzaile eta ikus-entzuleekiko harreman birtualak *offline* harremanen oso antzekoak dira, hots, bisitarik gehienek DK agendara edo sarrerak erostera jotzen dute, edo kultur nahiz jai-ekitaldietara joatea dute helburu. Bigarren erakar-garri handia herritarren parte-hartzerako zerbitzuak dira, hala nola liburutegietako mailegua, DK ikastaroak edo hiriko jaiak.

Gainera, **Donostia Kulturak sare sozialetan dituen jarraitzaileak** %12 emendatu dira 2018an: **131.728**; Twitter-en, 70.604 jarraitzaile; Facebook-en, 45.162; eta Instagram-en, 14.736.

Bestalde, **25.000 bazkide daude izena emanda Donostia Kulturaren webgunean**, eta Erakundeak modu pertsonalizatuan artatzen ditu, gustuen araberako agenda eskainiz, emanaldi pribatuetan parte hartzeko eskaintza oso bereziak, masterclass-ak, sariak eta prezio bereziak.



GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

Ikuspegi sozialetik, Donostia Kulturak gero eta ekintza gehiago egiten ditu urtez urte, hiru barrutitan batez ere: Irisgarritasuna (DK guneeetarako eta programaziorako irispide uni-bertsala bermatzeko), berdintasuna (kulturan eta jaietan elkarrizketaguneak sortzeko denentzat eta berdintasunean), eta Ingurumena. Hona hemen 2018ko adibide batzuk:

*Gero eta handiagoa da **Donostia Kulturak Euskal Herriko sortzaileei ematen dien laguntza, arte-egoitzaldien bitartez**. Hala, artistak eta konpainiak izan ditugu egoitzaldian Victoria Eugenia Antzokian (Ballet Biarritz); Egian (Osa&Mujika, Cielo Raso, Lasala, Dantzategi/Dantzaz, Hika Teatra eta Myriam Perez Cazabon); Lugaritzen (CieHecho en Casa) Intxaurrondon (Willis Drummond), Casaresen eta Larratxon.

Beste Hitzak / OtherWordsek hizkuntza gutxituetako 10 idazleren egoitzaldia kudeatu du; dagoeneko 30 sortzailek jaso dute programa horren onura.

*Gero eta gehiago bultzatzen dugu herritarrak berak inplikatzeko Donostia Kulturaren: hiriko gizarte-eragile gehienekin jarduten dugu lanean, bai kulturan eta bai jaien arloan. Guztira, **700 kultur eta jai-eragile baino gehiagorekin** jardun izan du erakundeak bere eskaintza diseinatzen; publikoak zein pribatuak denak ere.

*Donostia Kulturak herritarrei **parte har dezaten irekitako zerbitzuak edo bideak** ere gero eta gehiago dira. Hona hemen horretarako dauden programa batzuk: Eskolatik antzokira, Liburuka, Musikagela, Aieteko Ilustratzaile Programa, Casares Irratia & Hamaika Entzuteko!, Liburu Baby

Kluba, Literatur Txokoa, Larrotxene Bideo...Kultur etxeen sareak, berriz, honako udal zerbitzu hauek ditu: Plus 55, Haur Txokos, Gazteleku eta KZGunea.

*"InvisibleBeauty" Afagi eta Ai Do Project-en proiektu bat izan zen, Donostia Kulturak 2018an babestu zuena, **kultur eremuko beste gizarte-zerbitzu batzuekiko lankidetzaren ildotik**. Hori da Verdiniren kasua ere, zeinaren sorkuntza-lanei abaroa ematen baitiegu urtero gure programazioan.

*Donostia Kulturak ere heldu zion **Euskaraldiaren** erronkari, 20 kultur eta jai-jarduera baino gehiago programatu baitzituen horretarako, eta plantillaren parte handi bat bere borondatez inplikatu zen horretan.

***Berdintasunaren** arloan, 2018an Donostia Festak unitateak eman du pauso handiena, **berdindu egin baititu Kontxako estropadetako traineru irabazleentzako diru-sariak**, hots, gizon-zkoenak eta emakumeenak.

Halaxe ixten dugu urte on bat, hurrengoan beste erronka zirraragarri batzuei ekiteko gogoz. 2019an, dFERIAk 25. edizioa egingo du; Olatu Talkak, berriz, 10.a; eta 2020a urte biribila izango da, Donostia Kulturak 30 urte beteko baititu. Urteon guztion ondortik, gure Erakundea batere ez konbentzionala izatera iritsi da Udalaren kultur eskaintza bideratzerakoan, eta Donostiako kulturaren eta jaien ekosistemaren motorra izan da. Beste hiri batzuk inbidiaz begiratzen diote gure Erakundeari, eta interesa agertu dute hiri bateko kultur sektorea koordinatzeko eta bizikidetzan aritzeko eredu honen aldera.

Informazio gehiago:

***DKren kultur arlo edota departamentu bakoitzaren memoria webgunean**

***Jardueren eta jaialdien irudiak flickr-en**


***DKren jarduera eta zerbitzuen bideoak YouTubeko bere kanalean**



(*) 1990ko abenduaren 14an sortu zen Donostiako Udalaren Kultura Patronatua, aurrez zeuden San Telmo Museoko, Motako Gazteluko eta Urgulleko Patronatua, Liburutegiaren eta Kultur Etxeen Patronatua eta Antzoki eta Jaialdien Patronatua batuta. 2007an, beste pauso bat eman zen, Musika Bulegoa (musika-programazioa, Jazzaldia eta Produkzio-kudeaketa bitzen zituen) eta CATko Jaien Departamentua gehitu baitzitzaizkion.

(**) Aldika galbahea pasatzen bada ere, baliteke zenbaki horretan akatsen bat egotea, direla galdutako edo erabili gabeko txartelak, direla noizbehinkako bisitariak, heriotzak, eta abar.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA



ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendari-gerentea: **Jaime Otamendi**

Zuzendariaren Laguntzarako teknikaria: **Imanol Galdos**

Administrazioa eta Baliabideak:
Rebeka Gallastegi

Zinema:
Josemi Beltrán

Musika:
Miguel Martín

Ekonomia eta Finantzak:
David Feijoo

Komunikazioa eta Irudia:
Jaione Askasibar

Produkzioa:
José Ignacio Abanda

Liburutegiak:
Arantza Urkia

Festak:
María Jesús Torres

Antzerkia eta Dantza:
Norka Chiapusso

Kultur Etxeak:
Jon Aizpurua

San Telmo Museoa:
Susana Soto

2018KO AURREKONTUA



Gastuak guztira:
28.261.816 €



Diru sarrerak guztira:
5.772.742 €



Udalaren diru ekarpena:
22.489.074 €

DONOSTIA KULTURAREN ZEHAR-PLANAK

Euskararen Erabileraren Plan Berezia: 2018an, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren plangintzako 5. aldiaren ebaluazioa egin da, eta plangintzako 6. aldiari dagokion plana prestatu da.

Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako I. Plana. 2018an, plan horren ebaluazioa egin da, 2019an plan berria prestatu eta ontzat emateko.

NAZIOARTERATZEA: IRAKATSI ETA IKASI

Erakundea kide den Europako sareetan izan da aurten ere: Beste Hitzak-Other Words egitasmoaren liderra izanik, urteroko bileretako kudeaketa burutu du Donostia Kulturak. Egitasmoaren indartze aldera, Eskoziako Skye Irlako Sabhal Mor Ostaig Unibertsitatearekin elkarlan-bideak zabaldu dira eta bertan zein Ipar Irlandan hainbat ekitaldietan esku hartu dugu

Beste Hitzak egitasmoak urte sendoa izan du, inoiz baino idazle-egonaldi gehiago burutu da hori guztia Donostia Kulturaren ardura izan da. Donostia Kulturako ekimenari esker, Karibean dagoen Curacao uharterko idazle batek Belfasten egin du egonaldia eta horrek guztiak sarea indartzeko aukeren berri ematen du


Europako Kultur Hiriburutzako Sareak egin dituen bileretan ere esku hartu dugu. 2019an hiriburu izango diren Italiako Matera eta

Bulgariako Plovdiv hiriekin ere harremanak izan dira, 2019ri begira.

LIKE erakundean antolatutako egitasmoetan ere partaide izan da Donostia Kultura eta 2019-2021 aldirako zehaztutako ildo estrategikoan ere ekarpenak egingo ditu.

Kanpoko bisitak ere ugaritu dira eta alde horretatik nabarmendu behar dira lehenagotik hasitako eta aurten ere segida izan duten unibertsitateko ikasleenak.

Donostia Kultura **ECOC** (*European Capitals of Culture*) eta **LIKE** sareen kide da eta urteko antolatzen diren bileretan parte hartzen du.



DK donostiakultura

Donostia Kulturako Komunikazioa eta irudia sailak Erakundearen irudia kudeatzen du Donostiako Udalen markarekin bat eginik, eta **beste 16 kultur atal** biltzen dituelarik bere abaroen: Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Heineken Jazzaldia, Olatu Talka, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dKLUBA, Literaktum, dFERIA, Other Words, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, Casares & DK Irratia, Txikijazz, Larrotxene Bideo eta Korner Festibala.

Sail honetatik gidatzen dira, halaber, DK bazkideekiko harremanak eta fidelizazioa (2018an 103.568 bazkide izatera iritsi ziren, DK bazkideen atalean ikus

daitekeenez). Nabarmentzekoa da, gainera, 25.000 bazkidek jasotzen dituzten webgunetik proposamen benetan bereziak, Donostia Kulturaren kultur eskaintzan parte hartzeko.

Horretarako, **Prentsa-kabineteak** Erakundearen komunikazio-beharrei erantzun zien 2018an, honako hauen bidez:

- 152 prentsaurreko
- 78 literatur aurkezpen
- 2.702 agerraldi idatzizko komunikabideetan
- 239 dossier gaikako
- 440 programa (gonbidapenak, liburuxkak, kartelak...)
- 384 prentsa-ohar
- 346 iragarkiprentsa idatzian
- 67 e.buletin bazkideentzat
- 32 Facebook-kanpain

Donostia Kultura on line

Donostia Kulturaren web-orriek bi milioi bisita baino gehiago izan zituzten (2.446.504, zehazki) 2018an, aurreko urtean baino %10 gehiago, eta abar-markaren webguneak ere, *donostiakultura.eus*-ek, 1.433.171 bisita izan zituen. Azpimarratzekoa da, halaber, emendatu egin zirela bisitak Donostiako Aste Nagusian (%48), San Telmo Museora (%27) eta dKLUBAra (%18).

Bi webgune berrik urtea bete dute Donostia Kulturaren plataforma digitalean: *olatutalka.eus* eta *donostiakoastenagusia.eus*. Bigarrenak, ia 300.000 bisita izan ditu bigarren edizioan.



CASARES IRRATIA



2018an, hemen izan dira kontsulta gehien:

- 1.- Donostia Kultura agenda izan zen atariaren erakargarri nagusia, hiriko kultur eskaintzarik osatuena biltzen baitu, sarrera-salmentarako atal eta guzti.
- 2.- Donostiako liburutegietako mailegu-kontsultak.
- 3.- Heineken Jazzaldia.
- 4.- Donostiako Aste Nagusia.
- 5.- San Telmo Museoa.

Webgune hauetara sarbidea ematen duten euskarriei dagokienez, gero eta ugariagoa da sakelen bidezko interakzioa, eta kasu batzuetan (jaialdiak, Aste Nagusiko programazioa eta abar) aurrea hartu diete mahai gaineko ordenagailuei. Donostia Kulturaren plataforma orokorrerako sarbideak honako ehuneko hauetan irauten du (heine handi batean, liburutegietako mailegu-zerbitzura egindako kontsultengatik:

Desktop	599.967	%50
Mobile	525.687	%40
Tablet	68.836	%6

Donostia Kulturak **131.728 jarraitzaile izan ditu guztira sare sozial nagusietan** (hots, %12 emendatu da kopurua): 70.604 Twitter-eko kontuetan, eta 45.162 Facebook-ekoetan; 14.736 jarraitzaile Instagram-en, eta 1.226 LinkedIn-en.

Casares Irratiak, 24 orduz 107.4 FM-n

Casares Irratiak 24 orduz emititzen du 107.4 FM-n eta www.casaresirratia.info-n.

2018an 24 irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini dugu. Horieta-tik 9 saio Arroza sarearen bidez eskaini ditugu, eta 15 Casaresen ekoiztiak izan dira, irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, edo irratico lantaldeak, edo sail-arteke lankidetzan eginak.

HAMAIIKA ENTZUTEKO! IV. Irrati-piezen lehiaketa

Pieza labur eta originalen ekoizpena eta hedapena bultzatzea da lehiaketaren helburua.

Partehartzea oso ona izan da: 29 pieza jaso ditugu, 99 izan direla partehartzaileak, hauen artean %34-a euskaraz gainera.

Sari nagusia Maider Segurola eta Lander Eizagirre kazetariak irabazi dute "Hiriko oihartzunak" lanagatik. Horrez gain, bi aipamen berezi eman dira; bat Iñaki Beraetxeri, "Soundtrack: soinubanda eta poesia" lanagatik, eta bestea Jon Obeso, Jose Luis Padrón, Ekain Pérez, Maider Gorostegi eta Josserra Senperenari, "Metzger e Hijo" lanagatik.

Saritutako piezen berri emateko ekitaldia Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan egin dugu. Ekitaldi horretan, saritutako lanak zein diren jakin eta entzuteaz gain, zuzeneko irrati-antzerkiak gozatzeko aukera ere izan genuen: Bram Stokerren "El sueño de las manos rojas", Inko Martinek moldatua eta zuzendua. 60 bat lagun etorri ziren ekitaldira.

Donostia Kulturak gaitua du 100.000 bazkideen langa, eta bazkideok fidelizatzeko lanean ari da, nola eta gero eta arreta pertsonalizatuagoa eskainiz. DK txartela duen edonor kultur klubaren bazkide da, eta klub horren kudeaketa indartu egin da 2018an, batez ere zerbitzuen eta hiritarren parte-hartzearen bideen arloetan. Horretarako **DK Aktiba! Gida Zerbitzua** garatu da.



+ 100.000
persona

DK, Donostiako kultur kluba

Urtearen hondarrean, **103.568** lagun ziren **Donostia Kulturaren bazkideak** (donostiarrak, %77), DK txarteldunak, **2018an beste 3.000 bazkide berri** egin baititugu. Horietatik, ia %60 emakumeak dira, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19, eta ondoren Gros (%13), Antigua-Ibaeta (%11) eta Intxaurren (%11) datoz.

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei Kulturara sartzeko bidea erraz-


tea; horren adibiderik onena udal liburutegiak dira, oso erabilera handia baitute (liburu-mailegurako identifikazioa, eta abar). Horrez gainera, ikus-entzuleria jakin batzuk fidelizatu nahi dira arte-programari dagokionez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoz eta Victoria Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoaz eta Gazteszenaz: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena txarteldunei informazio hau-

tatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.


Abantaila guztiak ikusgai daude bazkideen online atalean, zeinaren xedea abantaila gehiago eskaintzea baita. **25.000 lagun daude guztira online erregistratuta.**

Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:

Bazkideak udalerrriaren arabera:




Bazkide donostiarrak: auzoka




Guztira 80.215

Bazkideak adin-tarteen arabera:




Bazkideak sexuaren arabera:




Bazkideen garapera 2009-2018:

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:





© Celia Coca

Nómadas




Victoria Eugenia Antzokia, bandera-ontzi bat Ozeano Eszenikoaren ur bizietan nabigatzen

Daniel Doña otsailean eta Manuel Liñán abenduan, gaur egungo dantza espainiarreko puntarriak, biak arduratu ziren 2018an Victoria Eugenia Antzokiko dantza-programazioa irekitzeaz eta ixteaz. Daniel Doñak **Habitat** aurkeztu zuen, flamenkoaren eta dantza garaikidearen artean dabilen lana, kortserik eta mugarik gabeko proposamena, elkarrekin bizitzeko beste modu batzuk planteatzen dituen ingurune bat sortzen duena, hizkuntzen arteko gurutzaketa, arte-adierazpideen artekoa, irizpidetzat aniztasuna, berezitasuna eta pluraltasuna harturik. Ikuskizun harrigarria, hala nola baita **Nómada** ere, **Manuel Liñán**ena, zeinak Dantzaren Sari Nazionala irabazi baitzuen 2017an, interpretazio modalitatean. **Nómada** bidaiak kolektibo bat da, batzuetan geografiaren zenbait aldetan kokatua, flamenkoari zeinek bere ukitua ematen dioten aldeetan. Gizakia, berez, era batera edo bestera, nomada

da oraindik ere. Orain ez dio eragiten hasierako zioak, jatena bilatzeak; beste behar batzuk ditu, hura bezain garrantzitsuak: behar emozionalak.

Mathilde Monnier-ek eta **La Ribot**-ek pertsonaia bat eta bera jokatzen dute **Gustavian**. *Burlesque* klasikoaren uni- bertsoan du oinarria ikuskizun honek (Keaton, Chaplin, Marx anaiak), bai-

na baita antzerkian, *performance*an eta arte plastikoetan ere. *Burlesque* dantzaz eta hitzaz baliatzen den arte mota bat da, eta ezgaitasuna gaitasun bihurtzetik sortzen da. Doako higadura, erreplikapena eta ezbeharrak dira ikuskizunak baliatzen dituen mekanismoak, bizitzako gorabeheraz, hondamendiez eta gauza onez hitz egiteko. Bi artistek oso ibilbide desberdinak



Cómico



© Eduardo Dieguez

El príncipe



Erritu. Kukai Dantza Taldea

dituzte, baina artearen eta antzezpe-
naren bilakaeraren inguruko bilaketak
batzen ditu. **María Ribot Manzano**, La
Ribot, dantza espainiar garaikideko
koreografo multidisziplinario berri-
tzaileenetako bat da. Proiektu hone-
tarako, **Mathilde Monnier**-ekin elkar-
tu zen. Monnier erreferentzia bat
da dantza garaikide frantsesean eta
nazioartekoan, eta etengabe ari da
eraberritzen. **Gustaviak** dotorezia eta
maila handia dakarkio zeinahi dantza-
programaziori.

Euskal sorkuntzaren sailean, **Ertza** na-
barmenduko dugu, zeinak **Janeten ti-
tia** estreinatu baitzuen Victoria Euge-
nia Antzokian. Munduan oso ezaguna
egin zen gertaera jakin bat izan zuen
inspirazio Ertzak normala denaz eta
ez denaz jarduteko; gizarteek beren
normaltasuna eraikitzeke duten mo-
duetz, iritzi subjektiboetan oinarrituta
betiere. **Asier Zabaletak** bereziki az-
pimarratu zuen emoziotik zuzenean
sortzen zen mugimendua, artificio
eta ordenamendu estetiko huts oroz
biluztuta. Hala **Janeten titia** nola **Erri-
tu**, Victoria Eugenia Antzokiak pro-
duzitu zituen biak. **Erritu** erreferen-
tziatzko beste ikuskizun bat izan zen
2018ko dantza-programazioan.

Bidaia, bilakaera, aurreramendua,
eraldaketa, garapena... **ERRITU** per-
sonala. Norberarena eta partekatua.
Kolektibotasunetik norberarenera,
eta norberarenetik kolektibotasune-
ra. Zentzuen bidaia bat, kantua, en-
dazaren eta bizipenen bitartez,
ERRITU bat **Kukai Dantzaren** eskutik,
zeinak 2017ko Dantzaren Sari Nazio-
nala irabazi baitzuen, bai eta **Sharon
Fridman** koreografo ospetsuaren es-
kutik ere.

Neoklasikoan, **Sirenes**, Martin Ha-
rriagueren sorkariak saria jaso zuen
Koreografo Gazte klasiko eta neokla-
sikoan Lehiaketan (Biarritzen antolatu
zen 2016an). Elezaharretako sirenen
ezaugarri aldakorak hartu, elkarrekin
jarri, eta mitoez baliatzen da koreogra-
foaren bihotzean datzanaz hitz egite-
ko. Beste urte batez, Malandain Ballet
Biarritzek programa neoklasikoa pres-
tatu zuen; oraingoan, ingurumena eta
itsasoa abiapuntutzat hartuta. 2018ko
berritasun gisa, Ballet T Egunaken
barruan, asteburu bat antolatu zen
dantzaren inguruan, Malandain Ballet
Biarritzekin elkarlanean, zertarako eta
Donostia Kulturaren urte osoan antola-
tzen den jarduera koreografikoa ikus-
gai jarri eta ezagutarazteko.

Amaitzeko, azpimarra dezagun Dan-
tzaren Profesionalen Elkarteak dantza
sustatzeko eta garatzeko egiten duen
lana, zeinaren adierazlerik nabarmen-
ena **Dantzaren Hilabetea** baita, eta,
zehatzago, **Dantzaren Gala**, Victoria
Eugenia Antzokiarekin lankidetzan.
Ez dugu ahaztu nahi Verdini, ez eta
dantza urbanoak, tradizionalak edo-



© Gorka Bravo
Janetten titia. Ertza



© David Ruano

Calígula



© David Ruano

Mobydick

ta flamenko hutsa interpretatu zuten konpainiak ere. Denen artean, urte ko-reografiko koloretsua eta ñabarduraz betea eskaini zuten.

Antzerkian, **Makiaveloren Printzeak** autore italiar horren lan ezagunenetako testuak bilbatu zituen, eta hartara ahotsa eman zion pertsonaia lilurgarri bati, frogatzeko ezen botereak, edozein direlarik ideologia eta garaia, arau berberei jarraitzen diela beti, helburua zeinahi dela ere, bitartekoak zeinahi direla. Bostehun urte geroago, **Printzeak** eztabaidagai izaten jarraitzen du. Zer da: agintarientzat idatzitako eskuliburu bat, herria nola erabili jakin dezaten, ala herriarentzako abisu bat, agintariek nola erabiltzen gaituzten ikus dezagun? **Fernando Cayok** egin zuen pertsonaia harena, egundoko interpretazioa, eta antzerki-ikasgai bikaina oparitu zien ikus-entzuleei. **Calígula** ere islatu ziren boterearen bide okerrak, idazkera bihurria, hausten diren nortasunak, itxurazko zintzotasuna eromen suntsitzailearen kontra, biak ere piztuz doazelarik ezerezaren adierazpen gisa, izateak eragiten duen kiratsaren adierazpen gisa, nahiz eta jakin norbera hilkor eta zorigabeko dela; sufrimendu ulertzezi-

na, amildegi existentziala, arbitrariotasunik ankerrena kasta ustel baten kontra, errege zigortzaile baten disolbatzaile basatia, ezinezkoaren atzetik azken hondarreraino dabilelarik, ilargia... Eta hari bizia kenduko dion borroaren bilaketa gupidagabea. **Mario Gasek** zuzendu zuen Teatro Romeak, Meridako Festival Internacional de Teatro Clásicok eta Bartzelonako Festival Grec-ek ekoiztitako ikuskizun hau. **Los universos paralelos** David Lindsay-Abaire-ren maisulana da. Historia eder eta hunkigarri honek kontatzen digu nola familia bateko kideek aurre egiten dieten galerari eta saminari. Nola borrokatu oraindik ere ederra izan litekeen bizitzarako itzulbidea aurkitzeko? **David Serranok** zuzendu zuen **Malena Alterio** buru zuen aktore talde bikaina. Drama eta komedia modu erabat naturalean konbinatzen ziren, eta elkarrizketak oso ondo lortuta zeuden. Amaitzeko, **Moby Dick**, non Pouden lana balea bera baino handiagoa izan baitzen. Andrés Limaren esanetara, Jose María Pouk egundoko lana egin zuen. Hura ahotsa! Haiek ñabardurak! Hura ahala! Hura itxura! Zeinen durundio betea duten Melvilleren hitzek! Zer handitasun! Proposamen eszenikoa itsas hondar sakonenera-

raino murgiltzen da, eta bere horretan eusten dio harik eta ur-azalera irteten den arte, indartuago eta kalterik gabe. Badakigu Pouk ezinezkoak diruditen erronkak maite dituela. Horixe egin zuen beste behin ere, eta baita lortu ere. Ba al du mugarik?

Zirkua bere tokitxoan izan zuen programazioan **Black Blues Brothers**-ekin. Bost akrobata dotore jantzita, amerikar erara, Rithm & Blues-aren



Verdini

soinua eta Afrikako indarra elkartuz eromen osoa eta teknika harrigarria batzen zituen ikuskizunean.

Dublindarrak eta **Strip-Tease** ikuskizunek euskara erantsi zioten programazioari. Ados Teatrok James Joyceren **Dublindarrak** kontakizun-bilduman -batez ere, **Hilak** ipuinean- oinarritutako egokitzapena eszenaratu zuen. Autore irlandarrak, XX. mendeko literatura unibertsaleko erreferente nagusietako bat, misterio berezia kutsatu zion maisulan horri. **Strip-Tease** lau strep-teasek osatutako ikuskizuna da; lau begirada, lau kontakizun, lau eszena-zuzendaritza. Sorkuntzalan horren xedea euskal kulturaren aurreritzi batzuk bere biluzian erakustea da. **Martxoaren 27an**, Munduko Antzerki Egunean, **Donostia Antzerki Saria** eman zen, aurreko denboraldian helduentzat antzeztutako euskarazko ikuskizunik onenari, eta 2018an irabazlea **Mami Lebrun** izan zen, **Xake Produksioak**-en ikuskizuna.

La Comedia de las Mentiras. Pepón Nietok, aktore talde handi baten buru, erakutsi zuen ikus-entzuleek oraindik ere barre egiten dutela Plautoren lanekin. **Nerón** drama historikoa da, indarrez eta pasioz betea. Roma erre bazen, baita Victoria Eugenia Antzokia ere, bi proposamen klasiko horiekin.

Beste hainbat artista pasatu ziren urtean zehar, hala nola **Alaska, Bibi Andersen, Mario Vaquerizo, Faemino y Cansado, Goyo Jiménez**, besteak beste. Donostiako udak espero zen bezala erantzun zuen Victoria Eugenia Antzokian. Ikus-entzuleek harreara ona egin zieten **Concha Velascori El Funeralen**, **Paz Padillari Desatadasen**, eta **Gorka Otxoari Juntosen**, Txalo Produksioak-en ekoizpenean. Emaitza bikaina izan zuten, halaber, **Cinco horas con Mariok** eta **Lola Herrerak**, eta **Yllanaren Pagagninik**. Uda ezin hobea: sarrera-salmenta handiak, batez besteko ederrak eta ikus-entzuleen konplizitatea eta oniritzia izan zuten ikuskizunak. Ez da gutxi.



El amor sigue en el aire

2018ak gogoan geratuko diren ikuskizunak utzi zizkigun, historia eta eduki hunkigarriak, eta forma, artista eta kontzeptu eszenikoen sorta bat, Victoria Eugenia Antzokiaren ibilbidea aberasten dutenak, gaur egungo Ozeano Eszenikoko urrik bizienetan jarraitzen baitu nabigatzen.

2018. urteak proposamen interesgarriak bildu zituen Victoria Eugenia Antzokiko **musika** programazioari dagokionez. Eskaini ziren 43 kontzertuen artean aipatzekoak dira **Jarabe de Palo, Rocío Márquez, Izaro, Rosana, Ben Howad, Alan-Ni** eta **Joseba Tapia**.



El funeral



Cinco horas con Mario



Zinemapelmak

Gainera, Victoria Eugenia Antzokia, Adarra Saria emateko leku ezinhobea da. Musikaren Europar Eguna aitzakiatzat hartuta, 2018an Anariri eman zitzaion euskal musikaren arloan jarduten diren artisten ibilibidea nabarmentzen duen saria.

Victoria Eugeniako Klub aretoan ere kontzertu interesarriak eta askotarikoak programatu ziren. **Marc Ribot** (Jazzaren Nazioarteko Eguna zela eta eskaini zuen emanaldia), **Sofia Rei** edo **Pascals**


taldea izan ziren hauetako batzuk.

53. Heineken Jazzaldian Iñaki Salvadorrek Mikel Laboari homenaldia egin bere heriotzaren hamargarren urtean... Berarekin batera, festibalak iraun zuen 5 egunetan Victoria Eugeniako agertokira igo ziren, besteak beste, Marco Mezquida, **Mary Stallings**, Rabih Abou-Khalil, Cécile McLorin Salvant, Michael Portal, Vicent Peirani eta Émile Parisien. Klub aretoan bi masterclass antolatu ziren.

Zine atalean murgilduta, Victoria Eugenia Antzokia Giza Eskubideen Zinemaldiko sail ofizialaren egoitza da, bai eta Beldurrezko Asteko ziklo antologikoena ere. Zinemaldi horretan, hain zuzen, gero eta agerbide bereziagoa du espirituaren eta giroaren aldetik (proiekzio bereziak tartean dirrela, hala nola Zinemapelmak). Atzegi kolektiboarentzat-eta, zineak leku nabarmena duen gala multidisziplinarioentzako agertoki aukerakoa da.



Anari



Izaro



Sherezade eta tipularen azalak. Vaiven Teatroa

Urteen ekarria

Urteen ekarria Antzoki Zaharrak jardun osoan eta betean jarraitzen du, Victoria Eugeniarekin koordinaturik arlo eszenikoan, eta moldakortasun handia ageri du, zeinari esker urteen ondorio den kutsuko programazioa eskaini baitezake arte eszenikoetan, presiorik gabe, beste ikus-entzule mota batzuei, beste kolektibo eta bestelako sentsibilitateei erantzungo dieten edukiak libreki proposatuz. Horregatik, gaur egun ere, bai donostiarrek eta bai bisitariek gogokoen duten agertokietako bat da hirian.


Hiru ardatz ditu oinarrian haren programazio eszenikoak: euskara, "autore"-antzerkia –2018an, emakume autoreen antzerkia, batik bat–, eta udako antzerkia. Programazioari dagokionez, euskarazko antzerki-lanen proposamena sendotzen ari da Antzoki Zaharraren jarduera nagusien artean. Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular baka-rraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilzan konpainia nagusiak, hala nola Tartean, Ados, Tanttaka,

Vaivén, Txalo, Laurentzi... Nabarmen-tzekoa **Sherezade eta tipularen azalak**: Vaivén Teatrok, Chapitô konpainia portugesearekin batera, ukitu surrealista dituen ipuina aurkeztu zuen. Berez kontatzen diren ipuinak, azken batean, bizirik irauteko. Eta neskatoa? Aspertuta al dago ipuinak entzuteaz? **Ergela** lanean, **Joseba Apaolazak** proba psikologiko ordaindu batzuetara aurkeztu den gizon batena egiten du. Diru erraza lortzeko asmotan da, baina ez daki sartate batean sartu dela. **Sara Cozarrek**, psikologoarena egiten baitu, galdekatu eta enigmak paratuko dizkio, eta hark bere onena eman beharko du azken gaiztorik ez izateko. **Erlauntza** mugarik gabeko komedia bat da, **Kepa Erraztik** idatzia Dramaturgia Berriak programaren baitan, eta Arriaga Antzokiak, Gasteizko Principal Antzokiak eta Victoria Eugenia Antzokiak produzitua. Txikitako lagun talde bat landetxe batera joan da haietako baten despedida ospatzera. Baina urteak ez dira alferrik pasatzen, eta, oso lotura sendoak badituzte ere, ezer ez da izan zena.

Ikuskizuna euskaraz estreinatu zen, eta arrakasta handia izan du ikus-entzuleen aldetik, bai euskaraz eta bai



Rodette



Emilia



Erlauntza

gaztelaniazko bertsioan, zeinak **El enjambre** baitzuen izenburua. Programazio horren erregularitasun eta iraunkortasunari esker, eta antzerkiak hizkuntza-normalizazioari ematen dion bultzadari esker, programazio berezia izan da. Horri gehitzen badiogu haurrentzat ere egiten den euskarazko eskaintza, esan dezakegu Antzoki Zaharrak egiten duen lana funtsezkoa dela euskarazko antzerkia bultzatzeko. Haurrentzako dozena bat ikuskizun baino gehiago izan dira Antzoki Zaharreko agertokian, dela jende guztiarentzako funtzioetan, dela **Eskolatik antzoki-ra** programaren bitartez, zeina Donostiako ikastetxe guztiei zuzendua baita.

Emakume autoreen antzerkiaren programazioari dagokionez, lanean jarraitu beharra dago, sentibera izanik gizon eta emakumeen arteko berdintasunera bidean aurrera egiteko bizi-tzako arlo guztietan. Arte eszenikoek oso tresna garrantzitsua ematen digute emakumeen historiak kontatzeko, emakume garrantzitsuak ikusgai jartzeko eta zuzendu beharreko ohi-tura eta azturak auzitan jartzeko. Ikuskizun asko sortu dituzte emakumeek interpretaziotik kanpora ere, autore edo eszena-zuzendari izanez alegia, edo biak batera. **Pepa Plana** paila-zoa, interprete, autore eta zuzendari da **Penélope** lanean, eta sekulakoak egingo ditu senarraren zain dagoen bitartean... sekulako jenialak. **Emilia**

izeneko lanean, emakume baten borroka ageri da, Emilia Pardo Bazánena, zeina XIX. mendearen hondarrean zen bezalakoa izaten setatu baitzen, hau da, bere nahi eta desiren arabera jokatzeko, idatziz eta bizitza publikoan parte hartuz. Emakumeei buruzko antzerkia, emakumeek idatzi, zuzendu eta interpretatua. **Pilar Gómezek** interpretazio bikaina egin zuen **Anna R. Costak** zuzenduta, zeinak sinatu baitzuen testua **Noelia Adánezekin** batera. **El lunar de Lady Chatterley** lanean, berriz, **Ana Fernándezen** lanaz gozatu genuen, bere onena eman baitzuen Constanzen larruan sartuta: emakume ausarta, bere garaiari aurrea hartu ziona, aitzindaria emakumeen eskubideak aldarrikatzean. **Ro-**



© Joan Sánchez

Penélope

berto Santiago da D. H. Lawrence-ren *Lady Chatterley's Lover* eleberria irakurri ondoren sortutako testuaren egilea. Lawrence-ren lana debekatuta egon zen hogeita hamar urte baino gehiagoz, argitaratu zenean sortutako eskandaluaren ondoren. Ezin ahaztu **Beatriz Rico** eta *Antes muerta que convicta*, edo **Paz Alarcón** *Las mujeres que hay en mí* ikuskizunarekin.

Amaitzeko, 2018an ere **Udako Antzerkiak** plaza nagusi bihurtu du Donostia beste hiri guztien artean. Programazioa orekatua izan da edukiz eta estiloz, aurkeztutako proposamenen kalitate eta erakarmenaren aldetik, etorri diren artisten mailaren aldetik, arte-taldeen aldetik oro har (aktore, zuzendari, eszenografo eta abar). Aipa ditzagun batzuk: **María Luisa Merlo, Jesús Cisneros, Jon Plazaola, Noemi Ruíz, Tony Brighth, Andoni Ferreño, Carla Hidalgo, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Itziar Aienza...** Beren artearen onena eman ziguten denek ere. Jende gehien bildu zuena *Conversaciones con mamá* izan zen. Ikuskizun horrek egoera hau planteatzen du: seme bat langabezian geratzen da, eta horrek bide bihurrietatik eramango du. *Mandíbula afilada*k, berriz, bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egiteko bi modu jartzen ditu parez pare. Bi muturretan dauden moduak dira. Eta, nola ez, elkar maitate dute. **Toni Brighten** mentalismoak ere ikus-entzule ugari erakarri zuen. Eta ikuskizun arrakastatsuen talde horretan sartu behar da, halaber, **Er-launtza**ren gaztelaniazko bertsioa, *El enjambre*, dagoeneko aipatu duguna.

Bizi luzea izan beza Antzoki Zaharrak, pozbide handiak ematen dizkigu eta.

Antzoki Zaharrak hurbilagoko talde eta elkartek eskainitako **9 musika-emankizunei** egin zien tokia. Hauen artean **Ruper Ordorika, Angel Olsen** eta **DePedro**k eskainitakoak daude.

Kokapena, edukia eta egokiera kontuan harturik, Antzoki Zaharra go-



Mandíbula Afilada

gokoenetako bat da **zine-jarduerak** egiteko asmoa duten kolektiboentzat. Duen xarmak, ikus-entzuleen arteko hurbiltasunak eta agertokitiko hurbiltasunak berak aukera-aukerakoa bihurtzen dute zine-esperientzia biziagoentzat, hala nola Beldurrezko Astea eta Bang Bang, edo formatu ertaineko zinemaldientzat, hala nola Dock of the Bay eta Itsaspeko Zinema. Aurkezpenak edo solasaldiak maiz izaten dira han programaturiko emanaldietan. Orobat, lekurik egokiena da eskolentzako zine-emanaldietarako.



Conversaciones con mamá



San Telmo Museoko fatxada

2018. urtean, bizitasuna eta kalitatea izan dira Museoaren jardueraren ezaugarriak. Urte horretan proiektu berriak jarri dira martxan, eta sendotu egin dira lehendik zetozen beste batzuk. Lehenen artean, **San Telmo Pil-pilean** bisitak nabarmentzen dira, erakusketa iraunkorrera zentzu guztiez hurbiltzeko proposamen bat, eta **Second Canvas-San Telmo Museoa** aplikazioa, zeinari esker Arte Ederretako obra hauta batzuk giza begiak ahal duena baino xehetasun-maila handiagoz ezagut baitaitezke.

Museora egindako bisiten kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da, 134.500 inguru.

Urtean zehar, aldi baterako 10 erakusketa aurkeztu dira, oso proiektu desberdinak diziplinen, gaien eta tamainaren aldetik. Horien artean, **Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak** izenekoak piztu du, ezbairik gabe, interes handiena, udako hilabeteetan 30.000 lagun inguruk ikusi baitute. Kalitateagatik nabarmentzekoa, ha-

laber, **Gorputza asmatzen. Biluziak, anatomiak, pasioak**, San Telmo Museoaren eta Eskulturaren Museo Nazionalaren artean ekoitzia. Oso modu distiratsuan itxi zuen urtea.

Jardueren artean, 2018an ere gehiago izan dira **“Plus 55 Kultur Gidak”** bisitetan parte hartu duten pertsonak, eta esan daiteke, halaber, **Zeharkako**

begirada izeneko bisita berezi askotan bete izan dela aretoa, bai eta haurrei eta familiei zuzendutako lan-tegietan ere.

San Telmok parte hartzen du hiriko kultur sarean zine eta musika jaialdiak izaten direnean ere, eta 2018an ere museoaren programazioarekin konbinatu dituzte berenak.



© Oskar Moreno

San Telmo Pil-pilean



El altar de la raza. Josep Maria Sert. Grabatua

Museoak **Joxean Artzeri** egindako omenaldia antolatu zuen, oso ekitaldi hunkigarria, eta horrekin batera **Ikimilikiliklik** erakusketa berreskuratu zen Laborategia aretoan, sortzaile haren lana gogoratzeko.

Hezkuntzaren ildoak sendotuz jarraitu du 2018an ere. Museoak indartu egin nahi izan du hezkuntza-komunitatearen zerbitzura dagoen baliabide izatea, nola eta irakasleei begirako jardunaldi bereziak eginez.

Museoaren barne-lanak aurrera jarraitzen du dokumentazioan, ikerkuntzan eta bildumak erosten. Azken atal horretan, aipamen berezia merezi du **Josep Maria Serten bozeto bat** enkantean erosi izanak. Dagoeneko ipinita dago elizan, eta hartara osatu egin du **El altar de la razaren** azken bertsioa, hau da, museo honetan ikus daitezkeen autore horren mihiseetako batena.

ONDAREA

Bilduma eta dokumentazioaren arloan, nabarmentzekoak dira, batetik, inbentarioa berrikusteko egindako lana eta bildumak hobeto berregokitu eta berrantolatu izana **Gordailua-**

ren biltegietan; eta bestetik, aplikazioen arteko datu-trukea hobetu eta automatizatu izana, eta EMSIMEk argazki digitalak bildu izana.

Gordailuan, ohiko zereginenez gainera -bertatik bertarako kontsultei erantzutea, gordailutzea, egokitzea eta sarrerak eta mugimenduak erregistratzea-, bigarren solairuko biltegi orokorraren eta Museoako bilduma iraunkorrean ikusgai jarritako piezen inbentarioa berrikusteko lanari ekin zaio. Orobat, hobeto egokitu eta berrantolatu dira ehunen eta jantzien bildumak.

Aplikazioen arteko datuak trukatzeko prozesuei dagokienez (GORDAILUA - EMSIME - Filemaker) hobetu eta automatizatu egin da datuak GORDAILUAtik Filemaker-eko bildumen katalogora aldatzea. Orobat, hobetu egin dira argazkilaritza digitaleko lanak biltzeko prozesuak, eta aplikazio horren garapena burutu da. Horri esker, Museoako langileek kontsultak eta deskargak egin ditzakete halakorik behar dutenean.

2018an, Museoak **792 pieza bereganatu** zituen; horietatik, 143 dohaintza bidez eta 619 erosketa bidez.

Gainera, 2018an aldi baterako maileguan utzi dira Museoako bildumako 68 pieza, zenbait erakundek antolaturiko aldi baterako 16 erakusketatarako.

Artxiboaren sailean, aurrera jarraitu dute garbiketa-lanek, dokumentazioa Museoako bulegoetako toki berrira aldatzeak eta bertan egokitzeak.

Eta kontsulta-zerbitzuari dagokionez, lanaren parte handi bat hartu dute irudiak argitaratzeko eskaerei dagokien kudeaketak eta Museoako bildumei eta artxiboko dokumentazioari buruzko zenbait kontsultari erantzuteak.

ARGITALPENAK

2018. urtean, lau liburu argitaratu dira museoan. Batetik, **Gerrak, bortxa eta giza eskubideak**, eta **Biodibertsitatearen aldeko emakume desberdinenak. Klima-aldaketaren erronkak: Vandana Shiva**.

Bestetik, **Gorputza asmatzen. Biluziak, anatomiak, pasioak** erakusketaren katalogoa argitaratu da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta **Tony Ray-Jones, Small Pleasures** erakusketarekin zihoan argitalpen bat, izenburu berekoa.



© Oskar Moreno

Tony Ray-Jones: *Small Pleasures*. Inaugurazioa

KONTSERBAZIOA ETA ZAHARBERRITZEA

Departamentu honetan, hiru eremutan egin dira lanak: aldi baterako erakusketetan, erakusketa iraunkorren eta Urgull mendian.

Aldi baterako erakusketetan, horietan ikusgai jartzeko jasotako artelana kontserbatzeari dagozkion zereginenez eta larrialdi-planak sortzeaz gainera, nabarmendu beharra dago *Heriotza* erakusketarako artelanak kontserbatzeko eta zaharberritzeko lana. Erakusketa hori 2019an inauguratuko da.

Erakusketa iraunkorri dagokionez, era askotako funtsak zaharberritze-

ko lan ohikoez gainera, azpimarratu beharra dago, batetik, zuzeko ehundegia zaharberritzea eta erakusketara iraunkorrerako birgaitzea, arreta berezia jarriz makineria eta ehunak muntatzeko prozesuaren dokumentazioan; bestetik, "Ereilea" mosaikoa erakusketarako eramatea, zaharberritzea eta muntatzea. Lan hori BBVAren bildumakoa da. Azkenik, XV. mendeko jineta ezpata zaharberritzeari eta zientifikoki aztertzeari ekin zaio. Gure bildumako pieza bikain bat da, eta laster jarriko da berriro ikusgai Museoan duen erakustokian.

Urgull dagokionez, burdinazko zazpi kanoi zaharberritu dira, eta neurrira egin zaizkie euskarriak; eta oinarriak

jarri dira Graffittien aretoko ingurugiroa behatzeko eta aztertzeko.

ERAKUSKETAK

Museoaren **erakusketa iraunkorren**, geletako testuetan **frantsesezko eta ingelesezko testuak** sartzeko proiektuari ekin zitzaion 2017an, eta 2018an ere aurrera jarraitu du proiektu horrek, atal berriekin. Gainera, XIX. mendearen hasierako ehundegia gehitu zaio **Tradizioak bizirik dirau** gai-ildoari, eta Manu Izaguirre eta Ivonne Izaguirre arduratu ziren muntaketaz, piezak kokatuz, eta irazki zaharren ordeztu berria jarri zuten, antzeko kolorekoa. Gainera, gehitze horrekin batera zenbait jarduera egin



Zaharberritze lanak



© Oskar Moreno

12-1. Arte Ederretako udal bekak



© Oskar Moreno

Gorputza asmatzen. Biluziak, anatomiak, pasioak

ziren, bisitariei liho-lana ezagutzea errazteko.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, urtea 2017aren amaieran zeudenekin hasi zen: **Espazioaren barrea (Guernica)**. **José Ramón Amondarain; 12+1. Arte Ederretako udal bekak (1893-1936)**; eta **Uhartearen altxorr**.

Geroago inauguratu dira beste hauek: **Argazki-liburuen fenomeno**, argazki-liburuari buruzko erakusketa handi bat, CCCBrekin lankidetzan, zeinak euskarri hori ezagutarazteko

eta museoan den Gabriela Cendoyaren bildumaren gordailua ikusgai jartzeko balio izan baitzuen; **Tony Ray-Jones, Small Pleasures**, irudiari begirako erakusketa bat, ezagunagoa izatea merezi duen sortzaile horren argazkiekin; udan, **Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak**, Obra social “la Caixa”ren eta Pradoko Museoaren eskutik, urtean bisitatuenetakoa; eta urtea amaitzeko, bi proposamen oso desberdin, **Arrikruzeko lehoia**, Giza Eboluzioaren Museoarekin eta Gordailuarekin lankidetzan; eta **Gorputza asmatzen. Biluziak, anatomiak, pasioak**, Eskulturako Museo Nazio-

nalarekin batera ekoitzia, zeinari esker San Telmok ia ehun maisulan bildu ahal izan baititu bere aretoetan.

Laborategian ere erakusketa oso desberdinak programatu dira: **Ikimilikliklik, Fikzioaren Museoa, Black is beltza** eta **Aita Labururen buruaren bisita eta anatomia**.

JARDUERAK


Museoak antolatutako jardueren saillean, bi atal bereiz daitezke. Batetik, **Museoaren erronkak** ildoan doazen jarduerak, zeinek gaur egungo gaiak



Argazki-liburuen fenomeno



Arrikruzeko Lehoia



Gorputza Asmatzen. Biluziak, anatomiak, pasioak

jorratu baitzituzten; bestetik, ikus-entzule mota desberdinei zuzenduriko hainbat eta hainbat proposamenen programazioa, non musika, dantza edo ondare arlokoak sartu baitziren.

Lehen blokean, 2018an honako gai hauen inguruan programaturiko jarduerak nabarmendu dira: jasangarritasuna, Agora K2050 zikloari jarraipena emanez; Giza Eskubideak, Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenean; Europa; eta generoaren ildoak, genero-ikuspegiko kazetaritzaren inguruko ziklo batekin eta feminismoa eta robotikari buruzko jardunaldiekin, edota generoaren auzia biodibertsitatearen edo eremu digitalaren ikuspegitik, besteak beste. Lankide iraunkorrak izan ditugu Cristina Enea Fundazioa, Baketik, Jakiunde, Globernance eta SW.

Bisitari gazteak eta familiak ere protagonista izan ditugu 2018an; haien ztat, ikasturte hasieratik Aste Santura doan programa bat dugu, zeinaren bidez sormena sustatu eta museora, ondarrera eta artera hurbiltzeko modu berriak sortu nahi baititugu. Alegia, museoa gozamenerako eta ezagutzarako gune izan dadila adin guztietako pertsonentzat.

Bigarren atalean ere bada nabarmentzeko moduko alderdirik; esate baterako, hainbeste jarduera egin izana, hala gaiei nola formatuei dagokienez: bisita bereziak *-Zeharkako begirada-*, musika-jarduerak, mahai inguruak, artista-tailerrak, haur eta familientzako programak, San Telmo Gaua...



© Oskar Moreno

Artearekin jolasean. Familia Tailerra

Musika, hiriko jaialdietakoa -bereziki **Musika Hamabostaldia** eta **Jazzaldia**-, **Musikagileak**ena eta Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekiko eta Francisco Escudero Kontserbatorioarekiko lankidetzen bidezkoa, presente izan da museoan urte osoan.


Haur eta familientzako aisialdiaren ildoan, sendotu egin da proposamenek izan duten harrera ona. Nabarmentzekoak, Mara-mara tailerrak, urtebete eta lau urteko haurrak dituzten familientzat.

Jardueren programazioari esker, 2018an oso izen ezagunak pasatu dira museotik; besteak beste: **Martin Parr**, **Vandana Shiva**, **Isidoro**

Valcárcel, **Juan Luis Arsuaga**, **Mikel Ayestarán** edo **Remedios Zafra**.

HEZKUNTZA

Aurreko urteko hezkuntza eskaintza berri eta gero, eskaintza honetan oinarrituta ikastetxeen etorrera museora handia izan da. Aurten **7.090**



Erakusketa bat prestatzeko lanak



© Oskar Moreno

STM Gaua

ikasle etorri dira museora, 284 talde-tan. Baina Hezkuntza atalak zerbitzua eskaintzen die baita ere hezkuntza aritzen ez diren taldeei. Hori kontuan izanik, orotara, 9.657 pertsona eta 470 talde izan dira. Bertan sartzen dira aipatutako eskolez gain, turismoko taldeak %17, kultur-elkarte eta erakundeak %11 eta Gizarte taldeak %8.

Irakaslegoarekin erlazio zuzenagoa izateko, hezkuntza buletina martxan jarri dugu aurten. Aldi berean, hezkuntza erakundeen arteko elkarlanarekin jarraitu dugu eta museoa bihurtu dugu une honetan hezkuntzaren inguruan hausnartzeko topagune eta ikasgune. Testuinguru honetan, jardunaldi hainbat izan dugu dolua nola kudeatu jakiteko, Ikasketa Zerbitzu-Solidarioak nola burutzen diren aztertzeko, eta Europa mailan eskolatan burutzen diren proiektu berritzaileak ezagutzeko, ETwining eta Erasmus+ programen bitartez. Hau guztia burutu ahal izan dugu Gasteizeko Berritzegune nagusiarekin, Donostiako Berritzegunearekin eta Bidegin elkar-tearekin elkarlanean.

Gizarte-bazterketa pairatzen duten erakundeekin eta gizataldeekin harremana ere estutu dugu museoa beraientzat irisgarria izan dadin eta beraien etorrera museora bermatzeko. Testuinguru honetan, jarraitu dugu lankidetzan hainbat erakunderekin (Gautena, Afagi, Iresgi, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Departamendua eta Kultura Aniztasuneko Departamendua, eta abar); eta horrela, 660 pertsonak museoa bisitatu ahal izan dute.

URGULL

Urgulleko Mota Gazteluko **Donostiari begira** erakusketak bisitari ugari izan zituen 2018an ere, baina kopuruak behera egin zuen zertxobait, 162.000 lagun inguru. Beherakadaren arrazoi nagusia, jende gutxiagorentzako lekua ezarri izana terrazan eta Aste Santua beste urte batzuetan baino lehenago tokatu izana.

URGULL

KOMUNIKAZIOA

2018an zehar, komunikazio-departamenduak Museoko arloei laguntzen jarraitu zuen, eta hala, **20 prentsaurrekotik gora eta 25 prentsa-oharretik gora** eman ziren, **publizitatea** kudeatu zuen, zenbait **zabalkunde-euskarri** egin zituen -batik bat aldi baterako erakusketen kasuan-, **komunikabideekiko harremanez** arduratu zen, **webgunea** eguneratzeaz eta **sareen edukiaz, boletinez, hileko agenda** paperezkoaz, zeina eguneratuta egoten baita euskarri digitalean.

2018an, paperezko 10 agenda argitaratu eta banatu dira; horien artean, bat udako hilabeteetarako. Paperezko beste euskarri batzuei dagokienez, 2018an liburuxka berezi bat argitaratu da, haur eta familientzako jarduera guztiak jasotzen zituena, ikasturtearen hasieratik Aste Santuraino, orduan amaitzen baitira. Gainera, jarduera batzuek beren baliabideak izan dituzte zabalkunderako.

Euskarri berrien artean, aipatzea me-rezi dute **San Telmo Pil-pileanekoek**. Bestalde, beste urte batzuetan bezala, Museoko liburuxkak eta txartelak argitaratu edo berrargitaratu dira, erakusketa iraunkorrerako haur-koa-

dernotxoak eta Urgulleko Aste Santuko eta udako esku-orriak.

Eremu digitalean, pisua hartu du familiei zuzenduriko buletinak, eta beste bat jarri da martxan, bereziki hezkuntza-munduarentzat diseinaturia. Hiru buletinok jasotzen dituzten pertsonak batuta, **3.000 lagun** inguru dira guztira kanal horietako batera **harpidetuta** daudenak, zeinekin museoak informazioa partekatzen baitu bere arlo eta jardueraz.

Museoaren webgunetik egin diren deskargak, bestalde, 2.824 dira, eta horietatik 1.727 hezkuntza-ataletik, eta beste guztiak artxibo digitaletik.

2018ko berritasunen artean, nabarmentzekoa **Second Canvas San Telmo Museoa** aplikazioa jarri dela abian. Doan deskarga daiteke, eta Arte Ederretako lan sorta batera giza begiak baino ahal handiagoz hurbiltzeko bidea ematen du.

HARREMAN INSTITUZIONALAK

Museoak harremanak izan zituen instituzio eta kultura-eragile askorekin, eta jarduerak, elkarlanak eta proiektuak egin zituen haiekin batera. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Al-

dundia -Gordailua, batik bat-, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostiako Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, Arantzadi Zientzia Elkarte, Euskadiko Filmategia, Bagera, Gubernance, Jakiunde, Baketik, Donostiako Udaleko Lankidetzeta Departamentua, Ankulegi, Donostia Turismoa, Musika-gileak, Basquetour, Euskal Kostaldeko Museoen Sarea...

2018an Museoan egin diren erakusketak-proiektuei esker, San Telmok lankidetzan jardun ahal izan zuen beste zentro batzuekin, hala nola Pradoko Museoa, Eskulturaren Museo Nazionala, CCCB, RIBA, Science Media Museum, Giza Eboluzioaren Museoa edo Azkuna Zentroa.

Garrantzi berezia du San Telmorentzat babesle pribatuen ekarpenak, enpresa ongileenak eta enpresa laguntzaileenak. Honako hauek izan ziren 2018an: Kutxa, EITB, El Diario Vasco, Cadena SER, Berria, Gara, Naiz, Argia, Hamaika Telebista eta Michelin Fundazioa.



STM

San Telmo Museoa

STM-ko BISITARIAK	134.435
ERAKUSKETAK	107.022
JARDUERAK	27.413
URGULL	162.000

GUZTIRA: 296.435



© Josu de la Calle

Willis Drummond

Eskaintza handiagoa lantegietan, kultur etxeen **espezializazio handiagoa gaika edo arloka** (arte eszenikoak Egian, musika Intxaurren, arte plastikoak Okendon, herri-jarduerak Loiolan, ikus-entzunezkoak Larrotxenen, ilustrazioa eta herri-tarren parte-hartzea Aieten, literatura Ernest Luchen, underground musika eta komunikazioa Casaresen) eta **proposamen berriak** (Korner, Musikagela Fest, Liburu Baby Kluba, besteak beste). 2018ak saihestu ezinezko hitzorduz, jarduera jendetsuz eta %100 bete diren ikastaro

eta lantegiz mukuratu dagoen agenda utzi digu.

Jarduera guztien artean, nabarmendu daiteke **Olatu Talkak IX. edizioa** bete zuela, eta berriz ere jarduera andana bat sortu zuela hirian; jaialdi horrek ahaldu egin ditu herritarrak, eta Donostian den oinarrizko kulturaren sarea islatzen dute. Eta hori ez ezik, musika bultzatzeko proiektuak (Kontzertour) eta sormena bultzatzekoak (Kontxa gaumarket) oso arrakastatsuak gertatu ziren parte hartzearen aldetik, hainbeste non ezin izan baitziren eskaera guztiak onartu. Jarduera horrek, DSS2016ren ondare eta ondorio, X. edizioa egingo du 2019an.

Bestetik, izan dugu erronka handi bat ere: Anoetako Estadioa berritzeko lanek Ernest Lluch Kultur Etxea lekuz aldatzera behartu gintuzten. Hala eta guztiz ere, programak bereari eutsi zion, zailtasunak zailtasun. Ikastaro eta lantegi gehiago izan ziren, eta Korner, Kultura & Futbol Festibala sortu zen, oso harrera ona izan zuen jaialdia, eta pasio handiak batu zituen. Gauza ziurra da 2019an segida izango duela.

382.189 erabiltzaile izan dira kultur etxeen sare osoan, eta **6.855 jarduerak** programatu dira: horra zer izan zen Donostia Kulturaren Kultur Ekintza 2018an.

OLATU TALKA

2015ean Donostia Kultura Olatu Talkaren zuzendaritzaz eta produkzioaz arduratu zenetik, hots, Kultura Hiriburutzaren ondareko programa batez, jaialdi hori saihestu ezinezko hitzordua bilakatu da, Donostiako oinarrizko kultur sareari ikusgarritasuna eta lekua ematen diona.

2018an, Olatu Talkaren 9. edizioan, **gizarte-aldarrikapenak jaialdiaren azal eta kontrazal** izan ziren, artea, dantza, zientzia, ingurumena eta, batez ere, pertsonen arteko eta elkarbizitzako harremanak gaitzat dituzten historiak kontatzen baitziren.

Inaugurazioa musikaz, dantzaz eta performancez osatu zen, Agurtzane Intxaurreaga eszena-zuzendariak sortu eta zuzendua, eta hiriko gizarte-aniztasunaren aldeko mezua bideratu zen. Amaiera-ekitaldian, berriz, genero-indarkeriaren kontrako mezua bideratu zuten bi artelaneak.

Gizarte-aldarrikapenen jaialdi honetan, **31.000 lagunek** baino gehiagok gozatu zuten programaren **%95az** (hasieran 156 jarduera ziren izatekoak), eguraldi txarrak galarazi baitzuen oso-osorik garatzea. Hala eta guztiz ere, bikain-bikaina izan zen jaialdiaren giroa. Hainbestearino non, parte hartzekotan izena ematea derrigorrezkoa zuten 21 jardueretan, erabat bete baitziren aretoak (1.200 lagun hartu zituzten).

Programaren barruan, **Basoka, Zorionak Dylan!, Merkatuaren Eguna (Antiguan) eta Añorgako Harrobiaren Plazako** hitzorduek berebiziko arrakasta izan zuten. Jarduera batzuetan ikus-entzule ugari izateak eta beste batzuetan giro aparta, hirian era askotako jarduerak izatearen garrantzia gogorarazi zigun, eta auzoei parte hartzeko bideak emateko premia.

Beste jarduera batzuk ere bereziki dinamikoak gertatu ziren, hala nola **Munduko Jolasen Topaketa** (Ongi



© Bostok Photo

Ugarri. Muralismoa



© Bostok Photo

Irekiera ekitaldia. Olatu Talka




© Bostok Photo

Izarrak plazara

Etorri Eskolara-rena, familientzat) eta **Donostia Sketch** (Elkar-ena, sei urtetik gorako marrazkilarientzat), oso parte hartze handia, beroa eta aktiboa izan baitzuten.

Dinamika horiez gainera, edizio honetan ere izan ziren jendea gehiago erakarri zutenak, hala nola **Kontxa Gaumarket** (86 postu) eta **Kontzertour** (42 emanaldi), harrera ezin hobea egin baitzieten ikus-entzuleek.



© Bostok Photo

Irekiera ekitaldia. Olatu Talka

POLTSIKO ANTZERKIA

Poltsiko Antzerkiko XXVII. Jaialdiak **agertoki polita** izaten jarraitzen du **antzerki-talde txiki eta ertainentzat**. 2018an, jaialdiak Donostiako auzoak hartu zituen otsail-martxoetan; **34 jarduera** eskaini zituen, eta **3.343 lagun** bildu ziren haietara. Jarduera gero eta jarraituagoa da urtetik urtera, eta **Poltsiko Antzerki Sorkuntza** deialdiak euskarazko antzezlan berriak eranstean dizkio programari, eta arte-mintegi interesgarria bihurtu da, bai ikus-entzuleentzat eta bai euskaldunon kultur munduarentzat.

DKLUBA

Dkluba hemengo musika independenteen marka bihurtu da dagoeneko. 2018an, **18.876 ikus-entzule** izan ziren **54 kontzertutan**, zeinak taberna, aire libreko agertoki eta Intxaurren Kultur Etxeko aretoan egin baitziren.

Programak, musika eskaintzeaz gainera, beste sinergia batzuk eragiten ditu, hala nola urrian sortutakoa, **Willis Drummond** taldeak sorkuntza-egoitzaldia egin baitzuen **Intxaurren**. Bandak DVDan grabatu eta **Durangoko Azokan** salgai jarriko zen kontzertua prestatzeko baliatu zuen egoitzaldia. Esperientzia hura ezagutu eta bizitzeko, **Lauazeta Ikastolak** topaketak izan zituen taldearekin, eta material grafikoak sortu zituen, zeinak orain, Kultur Etxearen beraren erakusketa batean jarri baitira ikusgai. Beraz, Dkluba musika baino gehiago da.

Izan ere, **Intxaurren Kultur Etxea** erreferentzia-fenomeno bihurtzen ari da bere hartan: duen musika-ekintzak eta erosotasunak jarraitzaile



© Lorena Otero

Gudua, Atauts Taldea. Poltsiko Antzerki

talde bat sorrarazi du, 2017tik hona kontzertu-aretoke sarrera guztiak agortzen dituen. 2018an, **Willis Drummond**, **Doctor Deseo** eta **Su Ta Garrek**, besteak beste, aurrez itxiarazi zuten leihatila, sarrerak agortuta.

Dklubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean

arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren Eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 13an, Loiola kalea musikaz bete zen goizean zein arratsaldean. Zazpi kontzertuk girotu zuten espazio publikoa; nabarmentzekoak **Travellin' Brothers** eta **Rural Zombiesenak**. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.



Pristine



Gartxot



© Lorena Otero

Glad is the Day



© Lorena Otero

Glad is the Day

Baina, Dklubak udako musika-agen-daren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko Kultur Hiriburutzatik dator, eta sendotzen ari da: egun batetik bira luzatu zuen iraupena, (abuztuaren 4an eta 5ean izan zen), kolaboratzaile bat gehiago lortu zuen (**Kutxa Kultur**) eta agertoki gehiagotara iritsi zen (**Le Bukowski** eta **Dabadabara**). Edizioak, eguzki ederra nagusi zela, 30 artista baino gehiago bildu zituen, azokatxoa, arte-instalazio bat eta jan-edariaren salmentamahiak. Ezbairik gabe, hitzordu hau bere lekua egiten ari da Donostiako udako egutegian.

IKASTAROAK

Kultur etxeetan ematen diren ikastaroak harrera onena eta jarraitzaile gehien duten jarduerak dira. Anitzak eta askotarikoak dira, eta 2017-2018 eta 2018-2019 kanpainetan 763 ikastaro eskaini dira guztira. Jarraituen artean, arte eszenikoetakoak, eta ondoren autoezagutzari eta osasunari buruzkoak. Horien ondotik, arte plastikoetakoak eta eskulane-takoak, beti bete ohi baitituzte plaza guztiak.

Kanpaina hauetako ikastaroetan, 10.246 lagunek hartu dute parte guztira, eta formatuen askotarikoak (ikasturte osoa, urritik maiatzera; lauhilekoak; autore-ikastaroak; haurrentzat; gazteentzat...) eta gaien eta hartzaileen adinen askotarikoak egundoko eskaintza osatzen dute, anitza eta kulturalki aberatsa, ikasten jarraitzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

LITERAKTUM

Oinazea izan zen gaia, eta **10.867 lagunen** arreta erakarri zuen Literaktumen 2018ko edizioa.

33 jarduerak osatu zuten programazioa (tartean, haurrentzako lau), eta **54 gonbidatu** izan ziren. Jaialdia azaroaren 13tik 24ra egin zen, eta zenbait mugarri izan zituen. Esate baterako, **Nacho Carretero** eta **David Truebaren**, **Ramon Sainzarbitoria** eta **Iban Zalduaren** eta **Manuel Vilas** eta **Juan José Millásen** hitzaldietan bete egin zen aretoa. Orobat, **Martuteneko kartzelan**en estreinaldiak bete egin zuen Loiolako areto nagusia, bai eta **Sonotos del amor oscuro**k Lugaritzekoa

ere. Bestetik, **Afoniak** soinu-sorkuntzak eta **Harkaitz Canoren** **Fakirra-*ren* ahotsa** eleberriaren aurkezpenak interes handia piztu zuten. Aipamen berezia egin behar zaie **Pio Barojari bisitan** literatur ibilaldiari eta **Anna Karenina** liburuaren inguruko afori-solasaldiari, non 80 lagun bildu baitziren, aretoa osorik bete arte, eta artean beste asko itxaron-txandand zirelarik.



© Josu de la Calle

Pio Baroja bisitan

Beste elkarte batzuekin batera programaturiko jarduerak ere ez zuten inor hotz utzi: EHUren **Pentsatu!** Jardunaldiak, **Danele Sarriugarte** eta **Fernando Broncano**ren arteko topaketa **Kaxilda** liburu-dendan kulturaz hitz egiteko (denda mukurua bete zen) edo filosofia eta oinazeari buruzko mikro-etzabaidak **Tabakalera**ko **Kutxa Kultur** gunean. Denek izan zuten harrera ona jendearen aldetik. Baina topaketaren bat nabarmentzekotan, edizio horretan **liburu-dendetarako hitzorduek** izan dute harrerarik onena. Egin ziren hiru topaketetan izan zen jendetza, eta agerian geratu zen liburuen etxean pentsamendura hurbiltzeak duen xarma.

Datu bitxi bat: Literaktum-en egin zen liburu-zozketan ehundik gora lagunek hartu zuten parte.

2018ko edizioa, beraz, oso edizio ona izan zen.

MUSIKAGELA

Donostia Kulturako zerbitzuen artean, **Musikagela** da babes handia duenetako bat; bere komunitatea ere egina du erabiltzaile musikarien artean.

2018an, aholkularitza-zerbitzuei, maketak grabatzeko eta zuzenekoetan jotzeko ekipoen alokairuari, proba-saioetarako lokalei eta egoitzaldien programari eusteaz gainera, nabarmen zabaldu zuen ikastaroen kopurua bere eskaintzan. Arrakasta handiena izan zutenak: **grabazioa, gitarra-doikuntzak** eta **sintetizadoreak**.

Zerbitzuak, ikastaroen eskaintza gehitzeaz gainera, lehen jaialdia eskaini zuen. **Musikagela Fest** uztailaren 14an egin zen, Memoriaren Lorategian. Programan, Musikagelako aretoetatik sortutako bost banda eta beste hiru talde izendun (Batzelonako *Dani Nello y los Saxofonistas Salvajes*, Madrilgo *Anaut* eta Donostiako *Javier Sun*). Eta goiz osoan, bost musika-lantegi, eguna birbiltzeko.

2018ko beste berritasun bat **proba-saio irekiak** izan dira. Kontzertuak balira bezala, Egian entseatzen duten taldeen jendaurreko hiru saio antolatu dira Gazteszenan. Saiootan, kontzertua zuzenean grabatzea eskaini zitzaizen, soinu hutsa zein bideoa (horixe egin zuen Txarkev-ek)

Gaur egun, Musikagela DKren zerbitzu puntakoenetako bat da.

KORNER

Valdanok aurkezpen-bideoan zioenez, kulturak bere unibertsoan emozioei lekua egin zienean, futbolari utzi zion sartzan. Eta, hain zuzen ere, aurkezpen handia da hori **Korner, Kultura & Futbol Festibala** proiektuarentzat, zeina Ernest Lluchetik bultzatu baita eta Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak antolatu baitute elkarlanean.

Lehen edizio hau otsailaren 19tik 24ra egin zen, eta kultura eta futbol munduko pertsona ezagunak bildu zituen, hala nola **Xabi Alonso, Ray Loriga, Bernardo Atxaga, Anari, Jorge Valdano, Carlos Zanón, Ander Izagierre** edo **John Benjamin Toshack**.

Solasaldiek, elkarrizketek eta beste hainbat jarduerak osatu zuten programa: **zinea, antzerkia, literatura, bakarrizketak, liburu-aurkezpenak, erakusketak, haur lantegiak eta Realaren partida bat**. Programazio antzeta eta irekia, eta 2.500 ikus-entzule erakarri zituena.

Jaialdiak, jardunbide fisikoa ez ezik, izan zuen joko online ere: **Korner Kanala**, YouTubean, jaialdian zehar grabaturiko 27 bideoen habia izan zen; horietatik hamaika, **Korner Galdetegia** izeneko gogoeta-ariketa bati zegozkion. Kulturako eta futboleko izen ospetsuek beren iritzia eman zuten jaialdiko gai nagusiez, eksklusiban, komunikabide digital horrentzat.

Hitzorduek oso harrera ona izan zuen. Hainbestekoa, non gauza ziurra baita izango duela segidarik.



Xabi Alonso,
Korner

KALE ANTZERKIA

Donostiako auzoetako plazak, kaleak eta parkeak agertoki bihurtzen dira programa honen hitzordu bakoitzean. 2018ko ekainetik irailera, Kale Antzerkiko 29 lanek (haurrentzat zein nagusientzat) **distira berezia eman zieten hiriko espazio publikoei**. Funtzioetan, 6.887 lagun izan ziren.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	6.855	382.189
Antzerkia	261	36.505
Dantza	62	10.870
Musika	160	35.890
Zinea	180	7.206
Hitzaldiak eta mahai inguruak	201	16.904
Erakusketak	276	132.508
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	2.467	49.317
Liburutegiko jarduerak	835	16.882
Plus 55	298	16.950
Olatu Talka	137	31.248
Gazteleku	930	10.288
Haurtxoko	915	15.169
Beste	113	2.452
ZERBITZUAK		
		BISITAK
GUZTIRA		551.412
Liburutegiko bisitariak		477.461
Altzako Tokiko Bilduma		314
Haurtxoko		13.026
Gazteleku		11.122
Kzgunea		32.907
Bideo Tailerra		2.630
Casares Irratia		509
Musikagela		9.597
Ikasgela		3.846

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	554	6.729	139	1.446	406	5.283
2017/18 ikastaroak	279	3.475	77	783	202	2.692
2018/19 ikastaroak	275	3.254	62	663	204	2.591

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	554	2.227	140	445	406	1.794
2017/18 ikastaroak	279	1.093	77	222	202	871
2018/19 ikastaroak	275	1.134	63	223	204	923

	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
KZguneko ikastaroak Kultur Etxeetan	209	1.290	816	474
Ikastaroak: DK+KZ	763	10.246	7.545	2.701

BISITAK GUZTIRA: 1.094.253



Paddington izeneko hartza erakusketa

2018an, Aiete Kultur Etxeko programazioak zenbait protagonista izan zituen: batetik, giza eskubideen eta bakearen inguruko erakusketak, gizarte-gaien inguruko jarduerak eta memoria historikoaren berreskurapena. Bestetik, Donostia Kulturak sortzen dituen jaialdi eta jardueren ondorioz auzoetara (eta, beraz, baita gurera ere) iristen diren jarduerak.

Batzuen eta besteen artean, kultur eskaintza nabarmen hazi da 2018an Aiete auzoan. Aietetarren, elkarten eta erakundeen arteko talde-lana handia izan da, eta horrek ekarri du kultur agendako hitzorduak ugaritzea. Lan horrek guztiak 2018 emankorra utzi digu, kultur une gogoangarri betea.

2018an Aiete auzoko eskaintza kulturala handitu da, auzotar, elkarte eta erakundeen arteko elkarlanari esker. Auzoko eragileak, Kultur etxearekin batera, auzoa geroz eta biziagoa egiten ari dira.

Donostia Kulturako jaialdiek presentzia izan dute Aieteko programa-

zioan, hala nola: **Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka eta Literaktum. Olatu Talkan**, auzoko Lantxabe elkartearen eskutik, Miramongo natura ezagutzeko eta gozatzeko parada izan genuen, ibilbide bereziak jarraituz, kaxa-kabiak, landare ezberdinak eta haritzalde zonaldeak hobeto ezagutzuz. Gainera, Basque Culinary Center ondoan ospatu genuen **Basoka** musika jaialdian, **Bob Dylan** omenaldia egin zitzaion. 25 musikarik Dylanen bertsoiak eskaini zituzten, **Gure Bazterrak** elkartearen eskutik. Horien artean egon ziren: **Joseba Irazoki, Ane Leux, Enertiz Fryak, Iker Lauroba, Mikel Azpiroz eta Rafa Berrio**.

Bestalde, **Literaktum** literatur jaialdiaren barnean, **Literaktum txikiak**, haurrak eta literatura batzen dituenak, leku nagusia Aieten izan zuen.

Donostia Kulturarentzat, publikoaren formakuntzaren barnean estrategikoa da haur programazioa zabaltea, eta horren isla da Literaktum txikia, eta urte osoan zehar Aieten egiten diren jarduerak. Eskaintza zabaldua izan zen: musika zuzenean, antzerkia, ilustrazioa, zinema, txotxongiloa, ipuin-kontaketa eta erakusketa izan genituen. Azken hau, **Michael Bond** idazlea eta **Peggy Fortnum** ilustratzailearen **Paddington izeneko hartza** liburuaren 60. urteurrena zela-eta antolatu zen. Obra hau, haur literatura ingelesaren klasikoetako bat da, eta liburuaren ilustrazioak ikusgai egon ziren Aieten, Londresko **Paddington** inguruko beste hainbat elementuekin batera.

Erakusketen atalean ere, giza eskubideen eta bakearen gaiak funtsezkoak



Eskolara bideak. David Dare, Sipa Press. Giza Eskubideen Zinemaldia. Erakusketa



Easoko mutilak 25 urtez kantari erakusketa

izan ziren. **Giza Eskubideen Zinemaldiarekin** batera eta **Mugikortasun** departamentuarekin elkarlanean **Eskolara bideak** aipatu behar da. **Unescon** aurkeztu zen erakusketa honek aniztasuna, esfortzuaren balioa, mugikortasuna, berdintasuna, heziketa etabar luze bat lantzen zituen modu eder eta bisualean. Argazkien istorioak bisita-gidatuen bitartez gerturatu zitzaizkien haur eta gazteei, film dokumentalarekin batera. Hunkituta uzten gintuen proiektu honek mezu positibo eta alaia zuen, eta egindako lan interdepartamental balarazio arrakastatsua izan zuen. **Álava Sarea. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza** (1936-1947) erakusketan berriz, **Luis Álava Sauturen** fusilamenduaren 75. urterrena dela-eta antolatu zen, hainbat ekitaldiekin batera. **Luis Álava Sautu** euskal presoen elkartasunerako eta Bigarren Mundu Gerran aliatuen aldeko espioitza-lanetan jarduten zuen sare klandestino horren buruzagi nagusia izan zen. Sare horretan lau emakume izan ziren protagonista nagusienetakoak 1936tik 1940ra; **Delia Lauroba** eta **Itziar Mugika** donostiarrak eta beraien lagunak ziren **Bittori Etxeberriak** (Elizondo) eta **Tere Verdese** (Bilbo).

Beste gai batzuetako erakusketak ere antolatu ziren. Hala nola, **Hiriko Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaldiaren** eskutik **Mazingar Z:** obra hau manga eta anime serie bat izan zen, **Gō Nagai** japoniar marrazkilari eta gidoilariak asmatua, eta garai hartako kultura herrikoia ikono bihurtu zen. Bisitari eta hedabide ugari gerturatu ziren **Miguel Ruiz** bildumagilearen Mazingarren objektu eta hamabi ilustratzaileek egindako irudietaz gozatzera, **Judas Arrietak** girotutako aretora.

Aurreko urteetan bezalaxe, beste erakusketa batzuk auzoko loturak eta memoria berreskuratzeko xedearekin antolatu ziren. Horren adibide, kultur etxe ondoan dugun **Easo** abesbatzako egoitzarekin elkarlanean produzitu zen **Easoko mutilak 25 urtez kantari**. Easok bere historiaren zati garrantzitsu bat azaldu eta dokumentatu zuen proiektu honen bitartez. Kultur etxearen ardura soziala eta kulturala, beste eragile eta elkarteekin egindako erakusketa txikietan islatu zen; adibidez, **Fibrosis Kistikoa**, **Stop Accidentes**, **Bagera**, **Dbus** eta **Elkar ilustrazio lehiaketa**.

Bestalde, **Ilustratzailearen txokoa**, artista klasiko eta berriak izan ziren: **Lorena Martínez**, **Idoia Beratarbide**,

Tomás Hernández Mendizábal, **Iraia Okina** eta **Dani Fano**.

Bukatzeko, atal honetan aipatzekoa da, Londreseko **Kew** Gardensetik ekarritako nazioarteko lorategien argazki lehiaketari esker, naturaz eta edertasunaz bete zela Kultur Etxea.

Haur antzerkiari dagokionez, eskaintza zabala izan zen eta esfortzu berezia egin zen ezohiko lanak taulara-tzeko. Hau dela-eta, dantza eta zirku dizipliniek programazioan leku berezia izan zuten. Bestalde, jaietan familiei zuzenduta egiten den kale antzerkia, lehen aldiz, auzotarrek eskatuta, **Munto** base-rriko teilatua izango litzatekeen plazan egin zen.

Kultur etxeko zerbitzuei dagokienez, Liburutegiak erabiltzaileen artean areagotu zituen irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak. 0-3 bitartekoentzat **Liburu Baby Kluba** programa ostira-lero, eta hainbat jarduera ikastetxeekin batera elkarlanean: **Motxila txikia**, haur hezkuntzako (3-5 urte) eta lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako (6-7 urte) ikasleei zuzenduta; eta **Irakurle Gazteak**, LHko (6-11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleentzat.

Aiete Haurtxokoak haurrentzako erreferente eta topagune gisa izaten jarraitu zuen. Familien parte-hartzea itzela izan zen, eta hori sortutako espazio eta programa berrietan nabaritu zen: **“Espresio gunea”**, **“Teknologia berrien erabilpenean”**, **“Gurasoak martxan”** etabar.

Honetaz gain, aurten genero berdintasuna gaian sakondu zuten. Gai hau Aiete Gaztelekuan jorratu zen ere, eta gazteen inplikazioa handia izan zen proiektu hau eta bestelako ekintzak aurrera eramaterakoan.

2018an zerbitzuen kalitatea eta eskaintza sendotzen eta hobetzen jarraitu zen eta Aiete, guztion eskutik, auzo parte-hartzaile eta dinamikoagoa izan zen.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	675	32.626
Antzerkia	11	1.408
Musika	10	916
Zinea	83	2.735
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	25	1.438
Erakusketak	19	11.517
Bilerak	132	5.613
Liburutegiko jarduerak	101	2.777
Olatu Talka	2	480
Gaztelekua	76	878
Haurtxokoa	215	4.847
Besteak	1	17

ZERBITZUAK	
	BISITAK
GUZTIRA	62.936
Liburutegiko bisitariak	58.463
Gaztelekua	1.018
Haurtxokoa	3.455

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	59	664	10	135	49	529
2017/18 ikastaroak	30	317	4	60	26	257
2018/19 ikastaroak	29	347	6	75	23	272

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	59	245	10	52	49	193
2017/18 ikastaroak	30	109	4	25	26	84
2018/19 ikastaroak	29	136	6	27	23	109

BISITAK GUZTIRA: 96.471

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 909



Amelimaga, Poltsiko Antzerkia

2018a urte dinamikoa eta ustekabez betea izan zen Casares-Tomasene Kultur Etxea-arentzat.

Ez zegoen aurrez ikusterik Kultur Etxeak Garbera merkataritza-gunearen galerietara eraman zituen 26 argazkien arrakasta. Kasu horretan, Garbera inguruak 50ko harkadan zuen itxuraren irudi bat izan zen aitzakia erakusketa single hori martxan jartzeko merkataritza-gunean.

Sendotze-urtea izan zen 2018a, eta hor mugari gertatu ziren **Altzarock** eta **Heavy Jaia** musika-jaialdiak zein **Casares Irratiaren** dinamika; esate baterako, **Hamaika entzuteko!!**, zeinaren buruan irrati-antzerki polit bat eman baitzen Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan.

2018an, Casares-Tomasene eta Larratxoko kultur etxeetan, jarraipena izan zuten auzoko elkarte eta erakundeekin lankidetzan egindako jarduerak eta aurrez ziren programazio-ildoak finkatzeak. Aldi berean, ikus-entzuleria berriak bilatu dira.

Arte eszenikoei dagokienez, helduentzako antzerki-lanak izan genituen, hala nola **Histrión Teatroyen Lorca** edo **ATX teatroaren 7ak bat**. Azken hori, gainera, Larratxo Kultur Etxean egindako egoitzaldian gertatu zen, bai eta hantxe estreinatu ere. Orobat, formatu txikiko zenbait lan eman ziren Altzako taberna batzuetan, **Poltsiko Antzerkiko Jaialdian**.

Haurrentzako antzerkiak, ohi bezala, leku nabarmena izan zuen programazioan. **Larratxon**, lan hauek eman ziren: **Borobil Teatroaren Gu**, **La Baldufaren Pinocchio**, **Zum Zum Teatroyen Zapata kaxa batean bizitzen neskatoa**. Formatu txikiko beste batzuk Tomasenen eman ziren; esa-

te baterako, **Zirika Zirkusen Ondorengoak**.

Gainera, **Kale Antzerkiaren** zikloan, zenbait lan eman ziren auzoetako jaiak zirela eta. Guztira, zazpi lan, haurrentzat zein helduentzat. Nabarmentzekoak, **Markeliñe** taldearen **Chef Nature** eta **Trapu Zahararen Sefini**.

Bestalde, zenbait jarduera izan ziren hiriko jaialdien barruan. **Olatu Talkaren** barruan, esate baterako, **Made in Altza** film laburren jaialdia egin zen; Hautxokoen sareko haurrek **Izarrak Plazaran** hartu zuten parte; eta **Donostia Kulturako** arte eszenikoen ikastaroetako ikasleek erakustaldia egin zuten. **Literaktumen** baitan, sola-



Reyes Monforte eta Alicia San Juan, Literaktum



Ovarios, Emakumeen Astea



Euskal Metal Fest

saldi interesgarria izan genuen **Reyes Monforte** eta **Alicia San Juanekin**, bai eta aipatu ditugun **Poltsiko Antzerkiko Jaialdi**ko ikuskizunak ere.

Auzoko elkarte eta erakundeekiko lankidetzak fruitua ekarri zuen, ohi bezala, zenbait programa eta ziklotan. **Elkartea Berri**, **Ostadar** eta **Uztai Belar** elkarteekin, **Altzako XXXIII. Emakume Astea** antolatu genuen. **Naturaldiaren** seigarren edizioa egin zen, halaber, **Altzako Historia Mintegia**, **Aranzadi** eta **Harri Berri-Oleta ikastetxeko guraso-elkartearekin** lankidetzan. Ikastetxe horrek hartu zuen parte **Hezkuntza Jardunaldien** seigarren edizioaren antolakuntzan. Ziklo horren gai nagusia **bulliynga** izan zen, eta, besteak beste, hitzaldi interesgarria eman zigun **José Antonio Marina** filosofo eta pedagogo ospetsuak.

Beste urte batez, **Bertso Astea** antolatu zen, hori ere auzoko zenbait eragilerekin batera. Oraingo honetan, bi emankizun izan ziren, bertsoak eta beste arte-diziplina batzuk nahasten zituztenak: **Erradikalak gara** eta **Ez da kasualitatea**. Orobat, **Titika Rekalt-en** argazki-erakusketa bat egin zen, **Sustrai Colinaren** testuez lagundua.

Kontzertuak 2018ko musika-programazioaren osagarri garrantzitsua izan ziren. **Euskal Metal Fest** eta **Zombie Jaialdia** egin ziren, eta talde hauek hartu zuten parte, besteak beste: **Muro**, **Aiumeen Basoa**, **Beyond Creation** eta **Tygers of Pan Tang**. Beste behin ere **Heavy Jaia** beteranoaz goatzeko aukera izan genuen. 16. edizioan, **Tierra Santa** banda errioxarra izan zuen kartelburu. Urteari amaiera emateko **Altzatarock**, zeinean **Etsaiak Eroak**, **Mendeku Itsua** eta **Kudai** bandek jo baitzuten; eta **Gabonak in Hell**, talde nagusia **Hardline** zela.

2018an ere iritsi zen Altzara Abesbatzen zikloa, oraingoan **Mikrokosmos**

abesbatza frantsesaren eskutik, zeinak txora-txora egin baitzituen ikusentzuleak ekitaldi original bezain kalitatezkoari esker.

Hileko Dokumentalak, 2017an martxan jarritako zikloak, jarraipena izan zuen 2018an ere, eta gai interesgarriak eta askotarikoak jorratu zituen, hala nola etxeko hezkuntza, klimaldaketa, indarkeria matxista edota eliteko kirolaren eskakizun izugarriak. Bestalde, 2018ko prestakuntza-eskaintzak jendearen harrera ona izan du beste behin ere. Nabarmentzekoa zenbait profesionalen parte hartzea: **Maidor Gorostegi** (*Jugando con la voz*), **Forki** eta **Sergio Errasti** (irratia). Gurekin izan genuen **Avelino Carras-**



José Antonio Marina, hitzaldia. Heziketa Jardunaldiak



Maidor Gorostegi

co zeramikagilea ere, zeinak **terra sigillata** direlakoen ikastaro intentsiboa eman baitzuen.

2018an, **Casares Irratiaren** programazioak **24 espazio** izan zituen; horietatik, bederatzi **Arrosa** sarearen bitartez eman ziren, eta **hamabost Casaresen** ekoitzi zituzten irrati-tailerrean parte hartu zuten pertsonak, zenbait kolektibok, irrati-ko lantaldeek eta zenbait departamenturen arteko lankidetzak.

Gainera, **Hamaika entzuteko!!** irrati-piezen lehiaketaren bostgarren edizioa antolatu zen, zeinaren helburua irrati-piezatxoak produzitzen eta zabaltzen laguntzea baita. Sari-banaketako ekitaldia **Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan** egin zen, eta ekitaldi hartan irrati-antzerkiko lan bat eman zen zuzenean. Hain zuzen ere, **El sueño de las manos rojas**, **Bram Stoker**ren kontakizun bat, **Inko Martín**ek egokitu eta zuzendua, eta **Mikel Ibañez** eta **Santi Calzadak** interpretatua.

Altzako Tokiko Bildumak bere lanean jarraitu zuen, hots, dokumentuak katalogatzen eta digitalizatzen eta kontsulta-zerbitzua eskaintzen. 16.883 dokumentu katalogatutik osatzen dute funtsa, eta, horietatik,

13.076 Internet bidez kontsulta daitezke. Dokumentuon zabalkundea asko areagotu da 2018an, hiru alderditan batez ere: **www.altza.info** webgunean %26 gehitu da erabiltzaile-kopurua, eta %44 bisita-kopurua; ugalduekin egin dira, halaber, kontsultak, bai **Casaresen** bertan eginak eta bai posta elektronikoz eginak; eta nabarmentzekoa da azaroan **Garbera** merkataritza-gunean egindako erakusketa ere.

Liburutegi-zerbitzuan, finkatu egin dira 2017. urtearen hondarrean martxoan jarritako jarduerak: **Liburu Baby Kluba** eta **Literatur txokoa**; jende gehiagok hartu du parte bietan. Orobat, haurren eta gazteen artean irakurketa bultzatzeko xedez, Donostiako udal liburutegi-sarearen **Liburuka** proiektuan hartu genuen parte, bi jarduerarekin: **Irakurle Gazteak eta Motxila Txikia**, biak ere Tomaseneko liburutegian eta Larratxokoan. Bi liburutegietan, oso harrera ona izan dute jomuga duten jendearen aldetik.

Plus 55 programak goraka jarraitu du, azken urteetan bezala, erabil-tzaileei eskaintako arretaren aldetik. Egindako jarduerak harrera ona izan zuten, eta erreferente garrantzitsua izan ziren auzoko nagusientzat.



Zerakima Erakusketa

CASARES-TOMASENE
KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	495	15.516
Antzerkia	19	2.361
Dantza	1	200
Musika	5	670
Zinea	19	404
Hitzaldiak eta mahai inguruak	14	499
Erakusketak	51	687
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	223	8.113
Liburutegiko jarduerak	111	1.201
Plus 55	32	970
Olatu Talka	4	190
Beste: Tailerrak (Artista gazteak + Zientziarekin jolasean)	16	221

ZERBITZUAK		
	ERABILTZAILEAK	WEB ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	118.032	
Casareseko bisitariak	44.440	
Tomaseneko bisitariak	69.463	
Casares Irrratia	509	7.829
Altzako Tokiko Bilduma	314	73.497
Kzguna (nabegazioa+IT txartelak)	3.306	

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	89	619	19	112	44	420
2017/18 ikastaroak	34	285	11	69	23	216
2018/19 ikastaroak	29	247	8	43	21	204
Kzgunea	26	87				

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	89	316	20	70	44	190
2017/18 ikastaroak	34	129	11	32	23	97
2018/19 ikastaroak	29	119	9	38	21	93
Kzgunea	26	68				

BISITAK GUZTIRA ALTZAN: 154.043

CASARES K.E. TOMASENE LIBURUTEGIA LARRATXO K.E. LARRATXO LIBURUTEGIA

44.440

69.463

20.015

20.125

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 935

LARRATXO
KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	344	13.766
Antzerkia	10	1.256
Dantza	7	930
Musika	9	1.485
Zinea	1	120
Hitzaldiak eta mahai inguruak	2	280
Erakusketak	4	920
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	265	5.545
Liburutegiko jarduerak	26	292
Plus 55	12	2.012
Olatu Talka	8	926
ZERBITZUAK		
	ERABILTZAILEAK	
GUZTIRA	40.140	
Larratxo K. E. Bisitariak	20.015	
Larratxo liburutegiko bisitariak	20.125	

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	8	157	2	34	6	123
2017/18 ikastaroak	3	53	1	14	2	39
2018/19 ikastaroak	5	104	1	20	4	84

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	8	14	2	3	6	11
2017/18 ikastaroak	3	3	1	2	2	1
2018/19 ikastaroak	5	11	1	1	4	10

BISITAK GUZTIRA ALTZAN: 154.043

CASARES K.E. TOMASENE LIBURUTEGIA LARRATXO K.E. LARRATXO LIBURUTEGIA

44.440

69.463

20.015

20.125

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 935



Nerea Arrien

2018an, dinamika bizia izan dute bai martxan zeuden proiektuek, bai ekinbide berriek, auzotar asko inplikatu baitituzte, bai eta kolektibo, elkarte eta erakundeak ere. Urte horretan, Egia auzoari buruzko gogoeta sakona egiteko oinarriak sortu dira.

Eta, alde horretatik, dantza eta arte eszenikoak topaketa askotarikoz berteriko programa baten ardatz izan dira: On do kok, dantzaren eta antzerkiaren bitartez, artearen arloko topaketak proposatu ditu. Orain, egoitzaldiak ez dira musikarientzat bakarrik, Egian badira dantzarentzat ere (esate baterako, LaSala eta Cielo Raso konpainientzat). Hamar bat ikuskizunek kalea aukeratu zuten oholtzaren orde, eta auzoko kaleetara eraman zuten beren artea. Kultur Etxea gidari-lanetan zelarrik, Egiako kaleak dinamika parte-hartzailez bete ziren 2018an; eta Kultur Etxeak, berak, berriz, eduki eta prestakuntza-programa agorrezinak eskaini zituen.

2018. urtean jarduera handia izan zen Kultur Etxean, bai martxan zeuden

proiektuentzat eta bai ekinbide berrientzat. Jarduera horietan, auzotar askok hartu zuten parte, kolektiboek, elkarteek eta erakundeek. Hain zuzen ere, esan liteke urte horretan sortu zirela auzotarren eta erakundeen arteko gogoeta sakona egiteko oinarriak Egia auzoari buruz.

Hainbat espaziotan eskainitako kultur eskaintza –musika-kontzertuak, dantza eta antzerkia, erakusketak, hitzaldiak eta beste jarduera batzuk– auzoaren kultur dinamika biziaren parte izan zen egunero, eta nabarmenezkoa izan zen **parte hartzea**, bai Kultur Etxearen eskaintzari dagokionez eta bai proiektuak martxan jartzerakoan.

Esate baterako, **liburutegi-zerbitzuak** irakurketara bultzatzeko programa interesgarria garatu zuen: **Ipuinaren ordua**, **Literatur solasaldiak**, **Irakurketa errazeko lantegia** –ATZEGIREKIN lankidetzan–; eta **Liburu Baby Kluba**, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako programa, besteak beste, beste hainbat lantegirekin batera.

Gune hau ez zen lantegientzat bakarrik izan; erreferentzia-leku bat izan

zen honako autore hauentzat ere, beren literatur lanak aurkezteko aukeratu baitzuten: **Iban Zaldúa**, **Noelia Lorenzo**, **Nerea Arrien**, **Alberto Irazu**, **Álvaro Arbina**, **Mikel Santiago** eta **Aritza Bergara**.

Bestetik, ikastaroen eskaintza honako hau izan zen: jumpig, dance hall, joskintza, serigrafia, altzarien zaharberritzea, pilates eta dantza garaikidea. Era askotako diziplinak izanik, eskaintza zabala osatu zuten,



Komiki tailerra, Liburutegia

eta 500 lagun baino gehiago erakarri zituzten astero Kultur Etxera, adin guztietakoak.

Plus 55 zerbitzuari dagokionez, arreta pertsonalizatua eskaintzeak eta jarduera-programa zabalak (lantegiak, hitzaldiak, irteerak) eskaera handiko zerbitzua bilakatu zuten, eta topagune garrantzitsua. Laugarren aldiz jarraian, dantza garaikideko lantegia nabarmendu zen zerbitzu horretan, **Igor Calonge** eta **Oihana Varela** koreografoek zuzendua.

Orobat, eta **dantzaren** ildotik, Egiak **On do ko** delakoan hartu zuen parte, **Lagunkoia** proiektuarekin lankidetzan: Antzerki-dantzako proiektu bat, topagune-sareak sortzen saiatzen dena nagusien eta auzoaren artean, artearen bidez, eguneroko espazio hurbilago bati bizia emateko. Alde horretatik, beste bi ekinbide oso interesgarri sortu ziren: **LKaleak** eta **Erlauntza**, proiektu gakoak, zeinen bidez Egiaren dinamika hobetzeko lan egitea espero baita datozen urteotan. **LKaleak** proiektua **Donostia Lagunkoia Hiri Planeko** proiektu bat da, zeinaren xedea kosorkuntza-prozesua garatzea baita, adineko pertsonen eta komunitateko beste lagun eta eragile batzuek lankidetzaren sareak imajina, diseina eta abian jar ditzaten ingurune lagunkoiagoa sustatzeko, nagusienganako arreta eskainiko due-



Trocola Circo

na laguntza eta zaintza beharrezko direnean. **Erlauntza** proiektuak, berriz, Egia auzoan lan egiten duten pertsonen artean konfiantza handiko harremanak sorraraztea du helburutzat.

Kultur Etxea **Arte Eszenikoetan** espezializatua izaki, dantza-, zirku- eta antzerki-taldeak etorri ziren **Gaztezenara**, eta proposamen berritzaileak ekarri zituzten: **Lapso Cirk**, oreka eta manipulazioko ikuskizun bat, eta **Ovvio**, 2018ko Umore Azokan ikuskizun berri onenarentzako saria jasoa; horiez gainera, **Trocola circo** konpai-

nia, **Emportats** lan multidisziplinarioarekin; denak ere, zirku berriaren mundua Egiara ekarri zuten adibideak.

Euskarazko antzerkia ere izan genuen: **Hika teatroa**, **Txarriboda** lanarekin; **Axut!**, **Artedrama** eta **Le Petit Théâtre de Paine** **Zazpi senideko** estreinatuta zuten; eta **Heriotza bikoitza**, Miren Gaztañagak eta Eneko Sagardoyk jokatua.

Hizkuntza eszeniko berriek ere izan zuten agerbidea: **Matarile** konpainia galegoaren **El circo de pulgas** lanak



All Ways



Lur



Maylis

eszenaratze txundigarria izan zuen, eta **Daniel Abreu**k harritu egin zituen ikus-entzuleak **La desnudez** koreografiaz, proposamen oso poetiko bat eginda.

Haur ikus-entzuleek ere proposamen erakargarri eta askotarikoak izan zituzten gozamenerako: **Txirri, Mirri eta Txiribitonek Xaguxarroski** estreinatu zuten; **DaTe** dantza-konpainiak **Akari** aurkeztu zuen; **Xake Produzio**oak **Lure**n historia kontatu zuen, eta **Demonde Quartet**ek **Epa txiki!** estreinatu zuen.

Dantzarako sentikortzeko proiektuak aurrera jarraitzen du: zenbait konpainiak egonaldi artistiko eta teknikoak egiten dituzte Egia Kultur Etxean. Esate baterako, **LaSala** eta **Cielo Rasok**, dantza garaikideko bi konpainia ibilbide sendokok. Eta artista gazteen beste proposamen batzuei bide emanez, Kultur Etxean izan dira **Jaiotz Osa**, **Amaia Elizaran** eta **Myriam Pérez** ere.

Alde horretatik, 2018an ere **Dantza-tegiaren** edizio bat egin zen, komunitatea eta dantza elkartzeko xedez. **Dantzas Konpainia**, **Les Pas Indispensables** eta **Emaus Social Factory**rekin lankidetzan, Egia auzoko kaleak eta

plazak hartu ziren ikerkuntza eszeniko eta koreografikoaren prozesu bizi batean. Kasu honetan, arte eszenikoak lurraldeaz baliatu ziren, hura sorkuntzarako osagai nahitaezkotzat hartuta.

Artistak eta ikus-entzuleen lana baturiko dituen dantza-kolektibo bat sortzea erronka handia da Donostia Kulturaren programazioarentzat. Alde horretatik, ezinbestekoa da Kultur Etxea **Dantzagunea** Gipuzkoako Foru Aldundiko dantza-zerbitzuarekin batera egiten ari den lana. Lanildo horretan, lantegiak eman ziren, *masterclass*ak, proba-saio irekiak eta konpainientzako eta pertsona dantzazaleentzako aholkuak. Ikuskizunei dagokienez, hauek nabarmendu ziren: **Oihana Varela** koreografoaren **Donde nace el movimiento, El arte de lo invisible** dokumentalaren aurkezpena eta **Maylis Arrabit** koreografoaren erakustaldia, **Habr  que ponerse cachas** dantza-proposamenarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduteaz gainera, Egia Kultur Etxeak beste bi programa ditu dantza sustatzeko, beste erakunde batzuekiko elkarlanean: bat, **Eusko Jaurlaritzarekin** lankidetzan, **Dantza Zirku tua** izenekoa, eta bestea, **Red Espa ola**

de Teatrosekin, Danza a Escena izenekoa. Programa horiei esker, dantza garaikidearen programazio kalitate handikoa eskain daiteke. Hala, 2018an, gaur eguneko dantza-munduan artista handiak direnak ekarri zituzten: **Chey Jurado, Asier Zabaleta, Jaiotz Osa, Sharon Fridman, Judith Argomaniz eta Igor Calonge**.



Dantzas Emaus

Azkenik, dantzari dagokionez, azpimarratzekoak dira Euskal Herriko bi konpainiaren egoitzaldi artistikoak eta ondorengo estreinaldiak: **Lasalak Luz** estreinatu zuen, proposamen ezin finagoa, eta **Cielo Rasok Piedra** hunkigarria.

Agertokiei dagokienez, izan ziren zirku-, dantza- eta antzerki-ikuskitzuna, oholtzaren ordez kaleko asfaltoa hautatu zutenak: **La Nordikak Rojo Estandar** aurkeztu zuen; **Chey Juradok, Agua; Ertzak, Metting Point;** eta **Amaia Elizaranek, Block.** Denak ere zenbait feria eta jaialditan saritutako muntaketak.

Hurrek, berriz, eskaintza interesgarria eta jostagarria izan zuten: **Tomaxen abenturak, Eidabe, Potxin eta Patxin** eta **Deabru beltzak** konpainiek adin guztietako ikus-entzule ugari biltzea lortu zuten Egia auzoko plazetan.

Eskolentzako eskaintza ere izan genuen, **Eskolatik antzokira** programari esker, non zenbait ikastolak **Borobil Teatro** konpainiaren **GU** eta **Aracaladanza** konpainiaren **Vuelos** lanez gozatu baitzuten.

Beste lan-arlo batera jauzi eginez, musika da Kultur Etxeko beste protagonista nagusietako bat: Musikako proba-saioetarako aretoen **Musikagela** zerbitzuan 35 taldek baino gehiagok hartu zuten parte 2018an. Hainbestekoa da urtero parte-hartzea, non 2018an nabarmen sendotu eta are zabaldu egin baitzuen bere jardura: ikastaroak, *masterclass*ak eta kontzeptu berri bat, *proba-saio irekiak*. Zerbitzu horrek bere eragina du erabiltzen duten bandetan: **Txarkey** eta **Igara Roostersek**, esate baterako, beren onena eman zuten zuzenean **Gazteszenan**. Sinergiak ere izaten dira: Hala, **Raitxek** eta **Javier Sunek Ane Pikazaren** eta **Jose Luis Mayorren** arte-erakusketen aurkezpenean jo zuten. Eta proba-saioak ez ezik, 2018an zenbait grabazio egin dira Musikagelari. Beraz, zerbitzu horren eragina na-



Block

baria da bertan entseatzeko duten bandetan, urtetik urtera gero eta emanaldi gehiago baitituzte.

Pintura, argazkilaritza, eskultura, grabatua, instalazioak, bideoa..., arlo guztiek dute beren lekua Kultur Etxeko erakusketa-aretoetan. Areto horiek jaso zuten, halaber, zenbait elkarte eta kolektiboren lana ere, eta haien zeregina hedatzen lagundu zuten. **Julen Agirre, EXP Colectivo, Stanis Cornella, Alde edo Alde eta Dandai** artisten lanak ikusi ahal izan genituen aretoetan.

Gaztelekua 12 eta 17 urte arteko gazteentzat da, eta han ere lantegiak eta hitzaldiak eskaini ziren, eta batez ere gazteentzako topalekua izan zen, gune bizia eta garrantzi handikoa Kultur Etxearentzat.

Hiriko programei dagokienez, Egia auzoak zenbait proposamenekin hartu zuten parte Olatu Talka jaialdian: **Elkarrekin Coop Txikiak Egia segurua, haurren Egia** garatu zuen. Herritarren ekinbide horrek auzoko mugikortasunaz berriro gogoeta egitea proposatu zuen 2018an ere, eta ibilbide segurua diseinatzea haurrentzat. Bestalde, **Ongi etorri eskolarak Munduko jo-**

lasen topaketa izeneko jardura egin zuen, egun hartako ekitaldirik arrakastatsuenetako bat. Orobat, Olatu Talkan, Blas de Otero plaza munduko hainbat jairen topagune berezi bihurtu zen egun batez: afrikarra, txinatarra, saharauia eta mongola, besteak beste. Jardura horretan eskola askok hartu zuten parte: Aitor Ikastola, María Reina Eskola, Zuhaitzi Eskola, Intxaurren Hegoa Ikastetxea, Intxaurren Ikastola, Amara Berri Eskola, Bide Segurua Egia, SOS Arrazakeria Elkartea, Egiako Haurtxokoa, Sambatuak, Fundación Secretariado Gitano de Gipuzkoa, Kamelamos Adiquerar, Donostiako Sahararen Aldeko Elkartea, Intxaurren Txiki, Porrontxo Jaiak, Antxeta TtanTtakun, Ongietorri Errefuxiatuak eta Arrasateko Emakume Musulmandarren Elkartea.

Ikusirik zer-nolako programa eta agenda izan dituen Egia Kultur Etxeak 2018an, balioespina oso da ona. Nabarmenezkoak egindako gogoeta-lana eta auzoko zenbait eragilerengana hurbildu izana auzo atseginagoa diseinatzeko, modu egokian erantzungo diena Egiako egoera eta behar anitzei.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	742	44.670
Antzerkia	73	12.997
Dantza	27	4.805
Musika	14	14.752
Zinea	22	558
Hitzaldiak eta mahai inguruak	3	72
Erakusketak	10	4.149
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	238	2.095
Liburutegiko jarduerak	85	1.078
Plus 55	17	1.987
Olatu Talka	2	660
Gazteleku	153	715
Antzerki eta dantza entseguak	98	802
ZERBITZUAK		
		BISITAK
GUZTIRA		40.270
Liburutegiko bisitariak		22.207
Gazteleku		3.694
Ikasgela		3.846
Musikagela		5.773
Kzgunea		4.531
Plus 55		219

Prestakuntza **EMAKUMEAK**


	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	105	911	37	334	51	552
2017/18 ikastaroak	43	465	20	190	23	275
2018/19 ikastaroak	45	421	17	144	28	277
Kzguna	17	25				

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	105	257	37	72	51	142
2017/18 ikastaroak	43	112	20	43	23	69
2018/19 ikastaroak	45	102	17	29	28	73
Kzguna	17	43				

BISITAK GUZTIRA: 155.821

IKASTAROEN ERABITZAILEAK GUZTIRA: 1168



© Real Sociedad Fundazioa

Manuel Jabois eta Xabi Alonso

Esango bagenu Ernest Lluch le-tren kultur etxea dela, ez genuke egia osoa esango. 2018an, **Korner, Kultura&Futbol** festivalaren lehen edizioa egin zen. Jaialdi hori futbol profesionalak lanbide den aldetik sortzen dituen kulturaren, tradizioaren eta gizarte-gertae-retan murgiltzen da; bai eta poesian eta talde-jokoaren irakaspenetan ere. Gogoetek, ekintzak eta futbol askok 2.500 ikus-entzule erakarri zituzten guztira **Real Sociedad Fundazioa**rekin lankidetzan egindako jaialdi honetara. Otsailean izan zen ondoren etorriko diren edizio askoren lehenena; etorriko baitira, ez dugu zalantzarik.

Kultur Etxeko beste berritasun batzuk: **Poesialdia** eta **Musikagela Fest**. Poesia eta musikako jaialdiok, ikastaro eta lantegien programa ugariarekin batera (aurreko urtekoak baino gehiago izan baitziren), ahantzarazi egin zuten Anoetako Estadioaren berri-tze-lanek Kultur Etxean sorrarazitako egonezina eta nahigabea, lekuz aldatu beharra zela-eta. Aldaketak aldaketa, lan horiek ez dute inola ere

desegin Ernest Lluchen kultur eskaintza, eta erabiltzaileen leialtasuna agerian jar-tzeko bidea eman dute, bai eta programaren kalitatea ere, erakargarria gertatu baita nabarmen.

Ernest Lluch Kultur Etxeak baldintzapean jardun behar izan du 2018an, Anoetako Estadioa eraberritzeko lanak direla-eta, hau da, bere ohiko martxaren ordeztu bestela jardun behar izan du. Horren ondorioz, itxita egon behar izan zuen urtearen parte handiaren, baina zerbitzuek eta programazioak indarrean jarraitu zuten, aldi baterako beste kokagune batzuetara aldatu ondoren. Denak itzuliko dira, mailaka, Kultur Etxearen egoitzara 2019ko urtean zehar, Haurtxokoa eta Gaztelekua izan ezik, horiek 2020an itzuliko baitira.

Zailtasun horiek ez zuten galarazi 2018a berrikuntza handien urtea izatea Ernest Lluchentzat. Denetan nabarmenena, **Korner, Kultura & Futbol Festivala** martxan jarri izana. Ernest Lluchetik bultzatutako proiektua da, eta **Donostia Kulturak** eta **Real Sociedad Fundazioak** elkarrekin antolatua. **Kornerrek** programa bat proposatu zuen, zeinean kulturaren eta futbolaren arteko loturak jorratu baitziren zenbait ja-

kintza-arlo eta formatutatik: literatura, zinea, arte eszenikoak, erakusketak, eztabaidak, topaketak, elkarrizketak...


Jaialdi horren lehen edizioa otsailaren 19tik 24ra egin zen, eta Ernest Lluch eta Donostiako beste leku esanguratsu batzuk izan zituen egoitza-tzat (tartean, Antzoki Zaharra). Parte-hartzaileen artean, nabarmenenak **Xabi Alonso, Jorge Valdano, Anari, Bernardo Atxaga, Carlos Zanón, Ray Loriga, John B. Toshack, Aitor Arregi, Carlos Marañón, Manuel Jabois** edo **Andoni Egaña** izan ziren. Egundoko zerrenda, ikus-entzule ugari erakarri zituena. Laburbilduz: lehen edizioak pentsarazten digu baikor begiratu diezaioketula jaialdi berri honen etorkizunari.



Handik hilabetera, martxoan, Ernest Lluch Donostia Kulturak bultzatutako beste proiektu baten egoitza nagusietako bat izan zen berriro: **Poesialdia. Donostiako Poesia Astea**, zeina poesiaren Donostiako hitzordu handia izateko asmoz sortu baita. **Kultur Ekintzarako** departamentuak eta **Liburutegi Zerbitzuak** antolatzen dute, eta **Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusia** eta **Ernest Lluch Kultur Etxea** dira bultzatzaile nagusiak.

Kultur Etxean bete zen programaren zati handi bat. **Juan Ramón Makusok** irakurraldi musikatua eskaini zuen, **MusiPoemak** izenburukoa. **Imanol Larrinagaren Urmagoen hitzak / Dice la acuarela** erakusketak, **Makusoren** testuekin, **Ut pictura poesis** esaera zaharraren esanahia arakatu zuen. Hitz poetikoaren eta irudiaren arteko loturak izan ziren, halaber, **Leire Bilbao** eta **Maite Mutuberriaren Xomorropoemak & Piztipoemak** haur-literaturako lantegi zoragarriaren oinarria. Eta lau poeta nabarmen (**Pablo García Casado**, **Irati Iturritza**, **Elena Medel** eta **Raúl Vacas**) solasean aritu ziren gaur egungo poesia-korronteez eta etorkizuneko bidez.

Poesialdiak indartu egingo du Ernest Lluchek bere programazioan egin-dako apustu ausarta: literaturari protagonismoa ematea. Eta horren adibide, aipa daiteke 2018an ere **Apirilean, literatura** programa, **Liburuaren Egunaren** inguruko jarduera sorta zabal bat hartzen baitu; **Danele Sarriugarte**, **Xabier Mendiguren** edo **Juan Ve-**



Criptogramas

lázquezen liburuen aurkezpenak; **Las amistades de Gertrudis** edo **Gudua** mikroantzerkiak; ahaztu gabe **Markeleñe** konpainiaren **Hareazko ipuinak** haurrentzako proposamena.

Baina **Apirilean, literatura**ren ale nagusia, ez bairik gabe, **Criptogramas** izan zen, **Thomas Canet** argazkilaria buru zuen diziplinarteko proiektu anbizio handiko bat. Izen bereko liburutik abiatuta, erakusketa eta kontzertua ere bada **Criptogramas**, zeinetan **Canetek Guillermo Roz** idazlea eta **Suso Sáiz** musikaria izan baititu lankide.

Udan izan zen Ernest Llucheko programazioaren beste berritasun garrantzitsu bat: **Musikagela Fest. Donostia Kulturaren Musikagela** programaren xedea bertako taldeak sortzea eta sendotzea da; horretarako, proba-saioetarako baldintza egokiak eskaintzen dizkie, bai eta jendaurrean jarduteko aukerak ere. Programa In-txaurrondo eta Egia kultur etxeetan garatzen da, eta **Oroimenaren Lortegia** aukeratu du, Loiolako Erriberan, kontzertu-egun bat eta beste hainbat jarduera (lantegiak, instalazio artistikoak edo azokak) martxan jartzeko. Lehen edizioan, zortzi taldek hartu

zuten parte: **Physis vs. Pelas, Premodernos, Tenpera, Txaryke, Franketa Javier Sun**, gehi **Anaut eta de Dani Nel.Lo** saxofoi-jotzaile basatia karter-lburu gisa. Musika-egun ederra udan, toki erakargarri batean. Asmoa egun horri segida ematea da.

Ernest Lluchek daraman literatura eta eztabaidaren ildoaren barruan, aipatu beharrekoa da, halaber, **Errealitatearen nobela / La novela de la realidad** solasaldi-zikloa, kazetaritza-kronikak genero gisa bizi duen une gozoa aztertzea xede duena. Lau kazetari itzaltsuk (**Ane Irazabal, Ander Izagirre, Roberto Valencia** eta **Karlos Zuru-tuza**) zenbait errealitatez jardun dute solasean: Libiako egoera, Erdialdeko Amerikako marak, berriemaile-lanbidea edo kronikaren forma berriak.

Eta ez da ahaztu behar ezen, Anoetako Estadioa eraberritzeko lanengatik ondorioak eta guzti, Ernest Lluch Kultur Etxea izan dela ikastaro gehien izan dituen, bai eta ikasle gehien ere. Orobat, Kultur Ekintzarako departamentuak bultzatzen dituen jaialdietarako agertoki nabarmena izan da 2018an ere: **Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka, Literaktum eta Abesbatzen Astea**.



Danele Sarriugarte

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	492	16.444
Antzerkia	18	1.888
Musika	12	1.130
Zinea	22	1.465
Hitzaldiak eta mahai inguruak	8	486
Erakusketak	7	2.643
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	51	984
Liburutegiko jarduerak	98	1.837
Plus 55	64	1.916
Olatu Talka	12	1.129
Gazteleku	94	1.172
Haurtxoko	106	1.794
ZERBITZUAK		
	BISITAK	
GUZTIRA	73.745	
Liburutegiko bisitariak	55.634	
Gazteleku	3.470	
Haurtxokoa	3.574	
Plus 55	394	
Kzgunea	10.673	

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	86	1.366	17	170	69	1.196
2017/18 ikastaroak	45	776	8	90	37	686
2018/19 ikastaroak	41	590	9	80	32	510
Kzguna	73	251				

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	86	502	17	32	69	470
2017/18 ikastaroak	45	270	8	17	37	253
2018/19 ikastaroak	41	232	9	15	32	217
Kzguna	73	160				

BISITAK GUZTIRA: 120.842

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 1868



XXX. BIDEO ALDIA

2018a urte arrakastatsua izan da Larrotxene Kultur Etxearentzat hango ikasleen lorpenei eskerrak. Larrotxeneko ikus-entzunezkoen ikastaroak erakusgai ederra dira lehendik ere, baina 2018an emendatu egin da parte-hartzaileen kopurua, eta ikasleek sortutako ikus-entzunezko materialek 22 aipamen eta sari jaso dituzte hala Espainiako nola nazioarteko lehiaketetan. Kultur Etxea talentuaren eta sormenaren mintegi eta habia da. Baina haren jarduna ez da horretan agortzen.

Gizarte-dinamizaziorako musika-jarduerak eta haurrentzako antzerki-programazio ondo aukeratuak topagune bihurtu dute auzotarrentzat, eta kultur pizgarri belaunaldi guztientzat.

Erabiltzaileak ekinean jartzen dituen kulturgunea da, beraz; beste ingurune batzuetara hedatzeko modukoa.

Larrotxene Bideo aski ezaguna da hirian izen bereko Kultur Etxearen

bitartez eskaintzen den zerbitzuari esker. Zerbitzuak adar ezberdinak ditu: grabazio eta editai lanetarako material lagapena, proiektu berrietarako aholkularitza zerbitzua eta bideo eta zine ikastaroen eskaintza eta horien praktiken filmazioa. Eta praktika horien emaitza erakusteko erabiltzen den plataforma, berriz, **Bideoaldia** da.

Aurtengoa **XXX. Bideoaldia** izan da eta ekainaren amaieran, urtero legez, Antzoki Zaharrean bildu ginen kurtsoan zehar egindako hamaika produkzio eta beste hainbat koprodukzio ikusteko; eta irailean berriz Trueban izan ginen **Donostiako 65. Zinemaldiaren** barneko programazioan parte hartuz.

Baina 30 urte ez tirela urtero betetzen eta aurtengo edizioa oso berezia izan da. Izan ere, Antzoki Zaharrean, ohiko ikastaroetatik ateratako lanak eskaintzeaz gain, hainbat ikaslekturteurrena ospatzeko espresuki grabaturiko laburmetraia ikusteko aukera izan genuen. Ikusi gabea inon, gure egin, guretzat eta gure ikasle eta hurbilekoentzat. Opari polita izan da denontzat. LB30 da bere izena eta gure artxibategirako altxor preziatua izango da dudarik gabe.

Horretaz gain, eta produkzioa inoiz baino handiagoa izan zela kontuan izanik, bigarren emanaldi bat eskaini zuten; oraingo honetan Intxaurren Kultur Etxean. Eta bertan eskaini ziren Antzoki Zaharrean denbora mugak baldintzaturik tokia izan ez zuten hainbat lan.

Orohar, **Larrotxene Bideoaren** lanaren isla Donostiatik hasi eta nazioartera iristen da eta bere presentzia erakusteko hemen doaz hainbat pintzelkada, garrantzitsu eta esanguratsuak:



30. Bideoaldia, ekitaldia

Musikenerekin elkarlana: Luis de Pablo konpositoreari buruzko jardunaldien grabaketa eta muntaia gauzatu ziren Larrotxene Bideo-ko ikasleekin batera.

Larrotxene Bideo-ko ikasleen parte-hartze aipagarriak grabaketetan: batez ere, **Impact Hub**-en grabaketa Ulab metodologiei buruzko bideoan edota Hondarribiako Udal Liburutegian Marie Shelley 200 Urte Zatiak Josten zikloen bideoak egiten.

Begiradak, las otras miradas jaialdian, **Unai Guerraren** parteahartzea ikastetxe ezberdinetako ikasleekin zinemagintzari buruzko solasaldian.

Olatu Talka-rako pilulak: Larrotxene bideo-ko 11 ikasleen parte-hartzea Olatu Talkarako bideo promozionaletan, transmedia eginez. Lenguaiaren erabilpena nobedadea izan da aurten eta onuragarria bi aldeentzat, ikasle zein antolatzaileentzat.

Eta azkenik, **Ikuska Pasaiaiko Badiako Nazioarteko Film Laburren Jaialdiak** Larrotxene Bideoaren ibilbidea omendu zuen. Eta omenaldiaren egunean bertan Larrotxenen urte guzti hauetan egindako film labur aipagarrienen ordubeteko proiektzioa eskaini zen. Esan behar da Trintxerpeko Alkateordetzaren areto nagusia bete egin zela eta, ondoren, Pablo Malo eta Unai Guerrarekin solasaldia egin zela.

Bestalde, **Bideo ikastaroek** gero eta harrera hobea dute eta urtetik urtera ikasleen kopurua gorantza doa eta egindako lanen emaitzak oso onak izaten ari dira, zenbait jaialdietan aukeratuak eta sarituak izaten ari direlarik. Urtean zehar 22 aipamen eta sari jaso dituzte estatu mailako eta nazioarteko hainbat jaialditan, hain zuzen ere.

Baina bada bideoaz gain Larrotxeneri izaera berezia ematen dioten hainbat jardura. Horien artean aipatzekoak dira **Lagunekin Kantari** egitasmoa



© Amaia Zabalo

Pantxo Carrere

eta urtik martxora bitartean hilero larunbatez eskaintzen den formato txiki-kiko **hur antzerkia zikloa**, zeinearen baitan abenduaren 26an eskaini zen **Enaren kontuak** emanaldia, **Princeses Barbudes** konpainiaren eskutik.

Lagunekin Kantari programaren baitan, aurten, **Patxi Saiz eta Pantxo Carrere** musikariak bisitatu zuten Larrotxene; eta antolatzaile, parte-hartzaile zein publikoak gozatu zuten jardura. Esan behar da, Larrotxene bete egin zela egunero eta egitasmo oso preziatua izan zela auzoan.

Bestelakoan, liburutegiak urteroko bisitari kopuruari eutsi zion eta mailaguen zerbitzua indartu eta hobetu egin zen. Baita haurrentzako liburuen gaineko ekitaldi bereziak antolatu ziren, auzoko hainbat eskoletako ikasleekin elkarlanean ere. Azkenik, ezin ahaztu urtean zehar eta auzoetako festekin batera antolatu zituzten **kale antzerkiak**, Intxaurren bertan eta baita Bidebietan ere.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	123	4.187
Antzerkia	10	759
Musika	4	283
Zinea	2	330
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	35	723
Liburutegiko jarduerak	72	2.092
ZERBITZUAK		
	BISITAK	
GUZTIRA	14.014	
Liburutegiko bisitariak	11.384	
Bideo Tailerra	2.630	

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	28	335	14	215	14	120
2017/18 ikastaroak	18	207	8	127	10	80
2018/19 ikastaroak	10	128	6	88	4	40

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	28	131	14	51	14	80
2017/18 ikastaroak	18	91	8	30	10	61
2018/19 ikastaroak	10	40	6	21	4	19

BISITAK GUZTIRA: 29.384

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 466



© J.A. Areta Goñi

JD McPherson

Intxaurrenondo Kultur Etxea erreferentziako musikagune bihurtu da hemen, Estatuan eta nazioartean zenbait musika-generotako hainbat bandarentzat. Eta bandarentzat ez ezik, baita ikus-entzuleentzat ere. 2018an, **Dkluba** programako hamazazpi kontzertuetatik zazpitan sarerak agortu ziren.

Musikaz gainera, marrazkirako trebetasuna eta sormena dutenek ere beren habia aurkitzen dute Kultur Etxe honetan. **Komikigintzak**, komikien lantegiak, prestakuntza eskaintzen du, eta bertan sortzen diren lanentzako ibilbide bat.

Eta zerbait bereziki azpimarratu beharko bagenu, zalantzarik gabe, Kultur Etxean sortzen ari diren sinergiak nabarmenduko genituzke, musikarien eta eskolen artean, belaunaldi desberdinetako erabiltzaileen artean, inguruko gazteen eta nekazarien artean.

2018ko ebaluazioan, bikain bat atera du Intxaurrenondok musika-programazioan, eta hainbat lorpenen zerrenda luzea kultur eragileen eta komunita-

tearen arteko lankidetzaz-sareak eta sinergiak ezartzerakoan.

Musika doinuak nagusitzen dira ia astebururo, Intxaurrenondon, urria eta maiatza bitartean. Musika entsegu lokaletan hainbat eta hainbat talde aritzen dira lanean egunero (baita asteburuetan ere) eta lan horren ondorioz bertako taldeen doinuak entzuteko parada izaten dugu maiz; bai kultur etxeko kontzertu aretoan baita auzoetako tabernetan ere. Eta hau guztia posiblea da bertako taldeak bultzatzeko asmoarekin martxan dagoen Musikagela zerbitzuari esker; zeinearen bitartez entsegu lokalen alokairuaz gain harrera ezin hobe izan duten jarduera aintz antolatu diren.

Haiekin elkarlanean, esate baterako, **VIII. Musikagela Weekend** jaialdia edota olerkariaren egunaren eta liburutegien egunaren inguruko kontzertuak antolatu dira.

Lehen egitasmoa **Emakume Astearen** barruan kokatu da eta **Raitx**, **Les Fous** eta **Anita Parker** taldeak gonbidatu dira. Olerkariaren egunean, berriz, **Plus 55** zerbitzuko Olerkari

edadetuak eta **Musikene Goi Mailako Musika eskolako** hainbat ikasle elkartu genituen liburutegian, ez ohiko elkartzea bultzatuz, ez ohiko lekuan. Sinergia bilatzea eta agenteen arteko kolaborazioak bilatzea da eure asmoetako bat eta horri erantzun nahian jardun dira kasu honetan ere.

Zerbitzu honen bitartez egindako lanari tiraka azpimarratu behar da ere proposaturiko ikastaroak oso harrera ona jaso zutela; eta **Zuzeneko sonORIZAZIOA** edota **Grabazioa zure ordenagailuarekin** bezalako ikastaroak bete egin direla.

Intxaurrenondo Kultur Etxea **Dkluba** programaren egoitza nagusia izanik aurten **kontzertu** aintz antolatu ditu. **17 izan dira** guztira eta horien artean badira euskal taldeak, zein estatukoak edota nazioartekoak: **Josele Santiago, Governors, Guadalupe plata, JD McPherson; Musikagela Weekend, Pristine, Limiñanas, Dr. Deseo, Cycle, Olatz Salvador, Donostikluba** jaialdian izandako artistak (**The Mani-las, Joan Colomo, Hard GZ, Denom, Bejo eta Sad Nigir, Willis Drummond, Su Ta Gar,**

Los hormigones eta **Morgan**) eurera joan eta bere doinuak eskaini diete.

Azpimarragarria da ia dozena erdi **SOLD OUT** izan dituztela: **Morgan, Su Ta Gar, Willis Drummond, Hard GZ eta Denom, Dr. Deseo edota JD Mcpherson**. Eta Intxaurrondo erreferentea izan dela hirian behin baino gehiagotan, musika eskaintzeko kontzertu aretoak dituen ezaugarri aproposak direla tarteko.

Eta guztien ginetik nabarmendu behar da **Willis Drummond** musika taldearen egonaldi artistikoa eta izandako elkarlana **Lauaizeta ikastetxeko ikasleekin**. Izan ere, gazteak Intxaurrondora hurbildu ziren taldearen sortze-prozesuaren berri jasotzeko eta, ondoren, gaia landu zuten bai ikus-entzunezko formato hainbatean zein erakusketa batean bildutako hainbat eskulan jasoz, kultur etxean bertan erakutsi zena.

Bestalde, liburutegiak eskainitako zerbitzua dela eta, aipagarria da aurten lehendabizikoz abuztuan ireki dela, eta irekierak oso harrera ona izan duela, beste auzoetako erabiltzaileak ere erakarrit. Eta zerbitzuen artean baten bat azpimarratzekotan euren kuttunenetakoa den **Komikigintza** aipatuko dute. Urtero, eta duten bilduma zabaltzeaz gain, udal mailako erreferentea izaten jarraitzen du, eta horren erakusle izan da antolatutako **Fantascity** erakusketa. **Luis Gascaren** bilduman oinarrituta eta **Juan Luis Diaz Valencia** kolaboratzailearen laguntzari esker burutu dutena. Aipatzekoa da gainera, beste disziplinetako artistekin kolaboratu dutela irekiera ekitaldia antolatzeko orduan; **Roscow** abeslaria buru duen **Los Hormigones** taldearen kontzertua izan dutelarik.

Ate berriak irekitzen saiatzen dira beti eta, oraingo honetan, zabaldutakoak jarraipena izango dutelakoan daude.

Ezin da ahaztu ere tertulia anitz burutzen direla liburutegian; eta komikia-

ren ingurukoak gero eta zale gehiago elkartzen dituela ikusteak, bide horretatik jarraitzeko asmoa sendotzen die.

Gazteenei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan eta egitasmo berriak azpimarratzerakoan, **Galtzagorri elkartearekin** elkarlanean landutako **Motxila Txikia** programa eta auzoko ikastetxeekin sortutako hartu-eman nabarmen daitezke. Eta baita ere Intxaurrondo Hegoa ikastatetxeko LH 6. ko ikasleekin burutzen ari diren solasaldi literarioak liburutegiko langileak beraiek gidatutakoak edota **Liburu Baby Kluba** egitasmoak lorturiko arrakasta nabarmena.

Bestalde, **Haurtxoko** eta **Gazteleku** zerbitzuei dagokienean, ekimen ugari egin dira, bai egunerokoan zein epe luzeko proiektuetan parte hartuz. Haurren eta gazteen partaidetzaren sustapenean aurrerapausoak eman nahian, hainbat proiektu landu dira: **Munduko Baratza** Bidezko Merkataritza, **batukada** eta **antzerkiaren** bidez lantzeko proiektua edota **Txara2ko** zaharren egoitzako erabiltzaileekin belaunaldien arteko proiektua, esate baterako. Horrez gain, komunitatearekin eta auzoko erakundeekin elkarlanean, Intxaurrondoko festetan, Euskararen Egunaren ospakizunean eta **11 egun baietz!** ekimenean lagundu da, bide berriak irekitzeko prestutasun guztia azalduz. Urteko balorazioa oso ona izan da eta 2019an ere aurten hasitako **Haurtxokoko Tantz Tanta** edota **Gaztelekuko** 16-18 urte bitarteko gazteentzako **Zaletu!** ekimen berriekin jarraituko dugu.

Plus 55 zerbitzuaren bitartez, halaber, 2018an beste urteetan baino jardue- ra gehiago burutu dira eta erabiltze gehiagok bisitatu dute Intxaurrondo. Bultzaturiko egitasmo zein jardueren artean dira **Antzerki Amateurra, Donostian egindako ibilbideak, Larunbatak Dantzan, Olerkariaren Txokoa** edota **Giza Liburutegia**. Eta baita ere hain arrakastatsuak diren **mobil, tableta edota zunba tailer eta**



Roberto White

ikastaroak. Aurten, gainera, azpimarratzekoak dira auzoko hainbat eragilerekiko sortu diren kolaborazioak, hau da, anbulategia eta farmaziarekin sorturikoak; aurten abiatu direnak eta jarraipena izango dutenak hurrengo urteetan.

Azkenik, aipamen berezia merezi du ere, azaroan hasi eta abendua bitartean burutu zen **Euskaraldia**; eta horrek auzoan izan duen harrera eta erakarritako jende andana, irekiera eta amaiera ekitaldiak Intxaurrondo Kultur Etxean ospatu direlarik. Eta nola ez **Emakumeen 30. astea, XXIV. Ibiltari astea, Extremadurako Kultur Astea** edota **Intxaurrondo Eguna**.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	732	25.869
Antzerkia	12	2.291
Musika	25	5.958
Zinea	4	265
Hitzaldiak eta mahai inguruak	8	738
Erakusketak	96	1.337
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	74	3.415
Liburutegiko jarduerak	86	1.796
Plus 55	48	1.610
Olatu Talka	8	270
Gazteleku	196	4.321
Haurtxoko	175	3.868

ZERBITZUAK	
	BISITAK
GUZTIRA	73.323
Liburutegiko bisitariak	67.857
Musikagela	3.083
Musika Eskola	1.950
Plus 55	433

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	33	371	7	69	26	302
2017/18 ikastaroak	16	198	3	36	13	162
2018/19 ikastaroak	17	173	4	33	13	140

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	65	255	10	22	55	233
2017/18 ikastaroak	16	51	3	9	13	42
2018/19 ikastaroak	17	80	4	19	13	61

BISITAK GUZTIRA: 134.223

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 502



Nazioarteko Folklore Jaialdia

Berritasunen eta urteurrenen artean, Loiola Kultur Etxearen 2018ko agendak gertaera aipagarriak beteriko egutegia utzi du atzean: eragile askorentzat erreferente izatea herri-artearen ikusgai jartzeko leku gisa; auzotarren gune izatea, eta auzoko elkarten jarduerentzako egoitza; hiriko proiektuetatik eratorritako era guztietako kultur ekintzak hartzea, hala nola **Literaktum, Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka**.

Loiola erreferentziako gunea da kultur esperimentaziorako eta ahalduntzerako. Han, antzezlanak, bisita gidatuak, erakusketak, lantegiak, herri-bazkariak eta abar zertzen dira. Eta dena programa ireki eta parte-hartzaileetan, gainera. Kultur Etxeak zenbait jaialdi hartu zituen, hala nola **Nazioarteko Folklorea**, **Mikologia Jardunaldiak** edo **Vintage** esperimentalak eta **Poetry in Motion**. Askotariko programazioa, auzoan kultur bultzagarri gertatzen dena.

2018ak ondo errotutako zenbait gertaeraz beteriko egutegia utzi zuen Loiola Kultur Etxean: lehendik zetozen jarduerak batzuk, Donostiako programa orokorretakoak ziren beste jarduerak berriago

batzuk, eta herritarren parte-hartzea eskatzen zuten beste batzuk. 2018ko agenda askotarikoa, parte-hartzailea eta bereziki jostagarria gertatu zen.

Beste kultur etxe batzuekin batera egindakoen artean, programa hauek nabarmendu ziren: **Poltsiko Antzerkia, Literaktum, Gabonak Zurezkat, Abesbatzen Astea, Kale Antzerkia, Haurrentzako Antzerkia** eta **Olatu Talka jaialdia**. Ikusten den bezala, **antzerkiak** pisu handia du horien artean; izan ere, formatu txikiko arte eszeniko amateurrek jarraitzaile asko eta babes handia dute auzoan.

Bestetik, Loiola Kultur Etxeak egindako programak: **Euskal Kulturaren Ildotik, San Isidro, San Martin Topaketak, Nazioarteko Folklore Jaialdia, Mikologia Jardunaldiak** – oso interesgarriak eta jarraitzaile askokoak –, **Vintage** musika-jaialdia eta **Poetry in Motion**, Urumea ibaiarekin eta Loiola-Txomin-Martutene inguruko biodiber-tsitatearekin lotutako **Hidro-Logikak** zikloa, eta **Panpin Parada** deritzon pelutxeen Belen bitxia, handi zein txikien jostagarri. Guztiek izan zuten leku berezia auzoko kultur agendan.



Ateneo Chamber Singers, Abesbatzen Astea

Izan ere, Loiola Kultur Etxea dinamizatzailerik handia da auzoaren kulturagintzan. Hain zuzen ere, dagoeneko urteak dituzten jarduerak ditu: 2018an, **Etxarriren**eko gazteriarentza-ko zentroak 10. urteurrena ospatu zuten; **Mikologia Jardunaldiek**, berriz, bakarrak Donostian, 20. edizioa egin zuten; **Nazioarteko Folklore Jaialdiak** 30. urteurrena ospatu zuten, eta Loiola Kultur Etxearen erai-kinak berak (non baitzeuden garbitegi zaharrak) 90 urte bete zituen.

Baina ez ziren izan ibilbide luzeko jarduerak eta urteurrenak bakarrik. 2018an, izan ziren **liburutegi-zerbitzuarekin** zerikusia zuten berritasunak ere: batetik, Loiola Kultur Etxekoan **Liburu Baby Kluba** jarri zen martxan, hiru urtetik beherako haurrentzako programa. Eta, gainera, **Martutene Amundaraingo liburutegia** Donostia Kulturaren liburutegi-sarean sartu da. Gune hori 2019ko urtarrilean inauguratuko da berriro.

Eta testu honen hasieran esan dugunez, 2018ko programaren beste parte **agenda parte-hartzailea** izan zen, hots, Kultur Etxearen eta **auzoko zenbait eragileren** artean antolatutako jarduerak: **Sustrai Aisialdi Taldea**, **Tan Tai Konpartsa**, **Hontza Kultur Elkarte** eta **Gure Babesa Aiton-Amonen Elkarte** dira urte horretan lankide izan genituen eragile horien izenak. Adibide gisa, horietako batekin burutu zen jarduera bat **Jan-ta-loin** izan zen; jarduera-multzo bat, hobeto esanda: erakusketa, jolasak, ipuin-kontaketa, bideo-instalazioa, askaria, mozorro-saioa, bisita gidatuak, lantegiak... Dinamika horiek guztiak kalean egin ziren, eta hartara bizia eman zioten auzoari. Ekinbide horiek eta beste batzuek, hala nola **hileroko kantujirak**, argi adierazten dute nola laguntzen duen Kultur Etxeak kultura auzoan pizten, modu parte-hartzaile eta herrikoian, auzotarrak jardutera gonbidatuz eta ingurua dinamizatuz.

Eraikinaren barrualdeari dagokionez, erakusketen aretoan bi erakustaldi aipa-



Herriak herri akzioa erakusketa

daitezke: **Javier Espigares** olio-artistarena, zeinak auzoko gizon-emakumeen margolanak jarri baitzituen ikusgai, eta **Carmen Mendieta** akuarelagile donostiarrarena, zeinak, Sara Beitzegiren laguntzaz, erakusketa bat sortu baitzuen, proiektzioa, musika eta bisita gidatuak ere bazituen. Bi horiez gainera, izan zen erakusketa nabarmen bat, dagoeneko klasiko bihurtu dena: **Pili Jauregi** Kultur Etxearen sarreran eratu zuena **Alberto Saavedra** artista zenaren panpinekin.

Izan ere, **herritarren arte plastikoak** leku berezia aurkitu ohi du Loiolan, eta 2018an Kultur Etxeak denbora eta lekua gorde zien. Hartara, **Martuteneko kartzelako arte plastiko**en lantegiko lanak ikusi ahal izan ziren; **Ijitoen Idazkaritzakoak**; **Sri Lanka-Euskadiko Passikudah Bizirik** elkartasunezko proiektua; **Agisas** elkartearen **Bideak Zabalduz** proiektua, eta beste gizarte-eragileen beste zenbait, hala nola **Bizi Bide**, **Agiac**, **Katxalin** edo **Gielmar**.

Eraikinaren erabileraz gainera, Loiolak eragile **sustatzaile eta lankide** gisa parte hartzen du **bertako herri-jaiak** egiten: **Errege Magoen desfilea**, **Inauteriak**, **San Sebastian Eguna**, **Kaldere-roak**, **San Juan Gaua**, **San Ignazio** edo **Santo Tomas**, besteak beste.

Bereziki aipatzekoak dira 2018an kulturaren eremuan bete ziren zenbait hel-

buru: **Urumea ibaiaren artxiboa** jarri zen martxan, **Hidro-Logikak** jarduera aipatuaren parte dena, eta **Ura materia gisa** liburua argitaratu zen, DSS2016en ondarearen barruan. Bi lorpen horiez gainera, **Felix Elejalde Aldamarrek** 2008an idatzitako **Behin batean Loiolan** liburuaren erreferentzia Wikipedian sartu izana aipatu behar da.

Lantegi eta ikastaroen eskaintza da kultur etxeen osagai erakargarri eta erreferentzialetako bat, eta, alde horretatik, **berritasunok** izan genituen: **Dantza librea**, **Gorputz adierazpena** eta **Joskintza aurreratua** ikastaroak aurkeztu ziren. **Klasiko**en artean, arrakastatsuenak **dantza eta mugimendu**aren ingurukoak izan ziren, izena emateko itxaron-zerrendak sortu baitziren.

Oro har, 2018ak Kultur Etxea **sendotuta** dagoela erakusten duten dinamikak bistaratu ditu. Berritasun batzuek gainera, ikusi da kalitate bikaina dutela eta finkatuta daudela hemen urteetan egin izan diren jarduera asko. Kultur Etxeak talde lana du oinarri, eta **bere lekua sendotu du auzoko kultur eragile eta piztaile gisa**. Inguruko eragileekiko zein hiriko besteekiko harremanak sakonak dira, eta erreferente hurbila da komunitatean kultur proiektuak sortu eta martxan jartzerakoan. Herritarren kultur ahaldunderako lekua da Kultur Etxea.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	191	35.743
Antzerkia	20	2.518
Dantza	7	2.560
Musika	24	2.734
Zinea	2	33
Hitzaldiak eta mahai inguruak	6	137
Erakusketak	18	22.865
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	44	2.351
Liburutegiko jarduerak	60	1.084
Olatu Talka	1	350
Beste	9	1.111
ZERBITZUAK		
		BISITAK
GUZTIRA		31.038
Liburutegiko bisitariak		31.038

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	35	448	9	117	26	331
2017/18 ikastaroak	18	234	5	64	13	170
2018/19 ikastaroak	17	214	4	53	13	161

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	35	90	9	16	26	74
2017/18 ikastaroak	18	46	5	10	13	36
2018/19 ikastaroak	17	44	4	6	13	38

BISITAK GUZTIRA: 34.000

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 538



Vidiana, Literaktum

2

2018an arte eszenikoak berriro izan dira protagonistak Lugaritzeko eskaintza kulturallean. Hala, berrogeita hamarretik gora antzezlan eta musika emanaldi eskaini izan dira bertan. Eremu emankor horri zinemaren, literaturaren eta erakusketen hainbat proposamen gehitu zaizkio, baita urtean zehar garatu izan diren ikastaroak eta tailerrak ere. Bestalde, ugariak izan dira ere jarduera sektorial espezifikoak, haurrei, gazteei eta nagusiei zuzenduak.

2018an, Lugaritz Kultur Etxeak 25 urte bete zituen. Urteurren horretan, antzerki-pro-gramazioa -askotarikoa eta anitza- izan da Kultur Etxearen alderdirik nabarmenena eta jendearen artean interes handiena piztu duena.

Alberto San Juan edo **Teatro del Noctámbulo**renak bezalako proposamen artistikoek gaur egungo egoera politiko eta sozialean ageri diren arazoak salatzearekin konprometituriko arte eszenikoen alde egin dute apustu. Joera hori beste batzuekin txandakatu da, komediatik

eta kostunbrismotik gertuago daudenekin, hala nola **Perigallo Teatro** edo **La Estampidarenekin**. Horiekin batera, pisu eta estilo desberdineko beste batzuk ere eszenaratu dira: **Zanguango**, **Viridiana** edo **La Calderonarenak**.

2018an ere, bertako antzerkirik amateurrenak bere lekua izan du programazioan, eta horri esker, **Ausartak**, **Kemen**, **Pixcolabis** edo **Tgorrieta** konpainiek, besteak beste, oso harrera ona izan dute ikus-entzuleen aldetik.


Haurrentzako antzerkiak ere maila artistiko bikaina erakutsi du, eta **Gorakada**, **Paraíso**, **Anita Maravillas** edo **La Petita Malumalugaren** lanak ere oso ondo hartu zituzten ikus-entzuleek.

Nabarmentzekoa, halaber, **Cyrano**ren egokitzapenaren estreinaldia, **Cie Hecho en Casaren** eskutik, Lugaritzen 2017an egindako egoitzaldian, zeinean Ibai Ikastolako ikasleek hartu baitzuten parte. Emaitzak distiratsiak eta ikusgarriak izan ziren.

2018an, Lugaritzek parte hartu zuen beste antzerki-ziklo batzuetan ere:

dFERIA, **Gazte Antzerki Topaketak**, **Poltsiko Antzerkia eta Kale Antzerkia**. Era askotako estiloak eta proposamen artistikoak agertu ziren horietan.

Musika-programazioan, bestalde, euskal artistak izan ziren gehienak, eta oso estilo desberdinetakoak. Proposamen abangoardistagoak, hala nola **Ibarrola** eta **Frescoren Ama** proiektua, edo



Delorean

Pau eta **Nassimen** inprobisazioak; eta bestelakoak, hala nola **Deloreanek La-boaren** lanez egindako egokitzapen guztiz pertsonala; edo **Iñaki Salvador** eta **Karlos Gimenezek**, **Petti** eta **Ainara Ortegarekin** batera, **Imanol Larzabal** enaz egin zutena. Ekinbide horiei **Bedaxagarren** taldearen iparraldeko ekarpenak gehitzen bazaizkio, edota **Thierry Biscaryk** aurkeztutako **Manez eta Kobreak** proiektua, esan daiteke ondo bermatuta geratu zela musika-estiloen aniztasuna. Kultur Etxeko beste klasiko bat ere aipatu beharrekoa da: **Donostia Bertsotan**; eta hori gutxi balitz, antzokitik kanpo eta **Tolosako Abesbatzen** zikloaren barruan, azpimarragarria **The Convivium Singersek** Ibaetan eman zuten kantaldia.

Zinearen arloan, **Giza Eskubideen Zinemaldia** rekiko lankidetzaz gainera, **zientzia-fikziozko filmografiari** eskainitako ziklo berri bat sortu izana nabarmendu zen. 2018an eman ditu lehen pausoak.

Erakusketei dagokienez, aipatzekoak **Rébecca Dautramerek Cyranoren** ediziorako egindako ilustrazio ekialde kutsukoak. Aipagarriak, halaber, **Mattinek** ikusgai jarritako litografiak, zeinak haur ipuinen lehiaketarako oinarri baliatu baitzituzten; bai eta Sri Lankan etxebizitzak eraikitzen ari den elkartasun-sareari eskainiak ere. Urteko azken erakusketa Miramarreko parkeko floriari eskaini zitzaion. Autoreak, **Marko Sierrak**, material ugari bildu zuen, eta parketik ibili didaktikoekin osatu zuen.

Ikastaro eta lantegiei dagokienez, ikusi zen jende gehiagok eman zuela izena udazkeneko deialdian. Gehitze hori nabaria izan zen **antzkerki-ikastaroetan** eta **arte plastikokoetan**. Nabarmentzekoa ikastaro berriak agertu izana, hala nola **flamenkoaren historiari eta ezau-garriari** buruzkoak, **Curro Velázquez Gazteluren** eskutik; eta **Thierry Biscaryren** euskal kantena. Ikastaroei buru emateko, ikasleek egindako



Funamviolistas, dFERIA



Cyrano, Haur Antzerkia

antzkerki- eta musika-erakustaldiak ere aipagarriak eta merezimendu handikoak izan ziren.

Liburutegi-zerbitzuak, berriz, eutsi egin zion kontsulten eta dokumentu eta erreferentzia bibliografikoen mailegu-mailari. Zerbitzu horren osagarri, bi gizatalderi zuzendutako jarduerak izan ziren: haurrei, **Ipuinaren ordua** eta **Liburu Baby Kluba** programen bitartez; eta helduei, **Literatura eta kafea** solasaldiaren bidez. Literaturaren arloan, aipatu beharrekoa da **Literaktum** programak egindako ekarpena.

Erabiltzaile adintsuagoei dagokienez, **Plus 55** programak pertsona adindunentzako erreferente izaten jarraitu zuen, programako jarduerak jarraitzaile asko izan baitzituzten. Bai bideo-forum saioek eta bai hitzaldiek, osasun-ikastaroei edo teknologia berriek eskari handia izan zuten, eta gauza bera **Igandek dantzan** izeneko jarduerak ere. Gai-

nera, **KZ gunea** zerbitzuak egindako eskaintzak sendotu egin zituen teknologia berrien inguruko ikastaro-proposamenak.

Antiguako **Haurtxokoari** eta **Gaztelekuari** dagokienez, izan da ordutegia eta jarduera-egunak emendatzeko eskaririk, baina esan daiteke ezen, zerbitzua mugatua izan bada ere, oso bizia eta betea izan dela.

Merkatua erabiltzen duten elkarten jarduerak ere emendatu egin ziren 2018an, eta instalazioen erabilera-maila bere goren historikora iritsi zen ia.

Merkatua erabiltzen duten elkarre eta kolektibo horiei dagokienez, 2018ko Olatu Talka jaialdiaren barruan, parte hartu zuten Antiguako egindako jarduerak diseinatzeko eta garatzeko. Jakintza Musika Eskolako ikasleek ere hartu zuten parte jarduera horietan. Denen artean, lortu zen agerian jartzea egun emankorra eta parte-hartzailea izan zela.

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	1.571	36.357
Antzerkia	70	8.298
Dantza	0	0
Musika	20	2.331
Zinea	7	240
Hitzaldiak eta mahai inguruak	2	30
Erakusketak	6	1.662
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	1.256	18.001
Liburutegiko jarduerak	58	1.262
Plus 55	43	1.856
Olatu Talka	11	1.340
Gazteleku	44	503
Haurtxoko	54	834

ZERBITZUAK	
	BISITAK
GUZTIRA	39.353
Liburutegiko bisitariak	33.914
Gazteleku	797
Haurtxokoa	1.004
Kzgunea	3.384
Plus 55	254

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILAK	KOPURUA	ERABILTZAILAK	KOPURUA	ERABILTZAILAK
GUZTIRA	273	1.323	20	159	47	498
2017/18 ikastaroak	31	274	10	81	21	193
2018/19 ikastaroak	36	383	10	78	26	305
Kzguna	24	68				


Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILAK	KOPURUA	ERABILTZAILAK	KOPURUA	ERABILTZAILAK
GUZTIRA	91	299	20	83	47	170
2017/18 ikastaroak	31	133	10	42	21	91
2018/19 ikastaroak	36	120	10	41	26	79
Kzguna	24	46				

BISITAK GUZTIRA: 107.700**IKASTAROEN ERABILTZAILAK GUZTIRA: 1622**



Kartelgintza Ilustratua, erakusketa



kendo Donostiako kultur etxe bisitatuenetako bat izan zen 2018an. **Chumy Chumez, Kresala konpainiak 50 urte,**

Kartelismoa, Toy Art eta **Superheroiak** erakusketek erakarmen handia izan zuten. Bestalde, **liburutegiak, KZguneak** eta **+55** zerbitzuak gehi ikastaro eta lantegien eskaintza zabalak biribildu egin dute agenda, zeinaren ezaugarriak kultur etxe honetara etorritako erabiltzaileen ugaritasuna eta leialtasuna izan baitira.

2018an, Okendo Kultur Etxea auzotarrantzako topagune eta kultur erreferente izan zen. Bisitariak, hala auzotarrak nola Donostiako beste auzotakoak, etengabe etorri ziren bertara urte osoan; eta zerbitzuek eta jarduerak etenik gabe jardun zuten eta etenik gabe baliatu ahal izan ziren.

Kultur Etxearen dinamika bereizgarriena, **arte plastikoak**, distiratsu agertu zen 2018an ere, eta aretoetako erakusketak askotarikoagatik, kalitateagatik eta kultur aniztasunagatik nabarmendu ziren.

Denen artean, **Chumy Chumez** egindako omenaldiak aipa daitezke; erakusketan, haren bineta komikoak eta kritika originalak ez ezik, beste arte-alderdi batzuk ere izan ziren gozagarri. Bestalde, **Kresala** dantza taldearen 50. urteurrena zela-eta egindako erakusketa izan genuen; Donostiaren ordezkari horrek ibilbide profesional luze eta handia izan du.

Gizarte- eta aldarrikapen-alderdiak, berriz, bi erakusketatan agertu ziren; biak ere, kalitateagatik nabarmendu ziren batez ere: bat, **Emakume salerosiak. Esklabotasunera bidaia, Em-PoderArte** emakume-kolektiboarena, zeinak 42 emakume artista bildu baitzuten, arte plastiko eta ikus-entzuzkoetako diziplinetan proposamen sorta zabala egin zutenak. Salaketa eta gogoeta ekarri zituzten esklabotzaren eta legez kontrako pertsona-salerosketaren modu berriei buruz. Salerosketaren ondorioetan ez ezik, kausetan eta hura ezerezteko moduetan jarri zuten begirada. Eta bigarrena, **NoraEZeana: artea, babesleku eta zubi, SOS Arrazakeria** taldearena. Bigarren erakusketa horretan 2016tik 2017ra Greziako Oinofyta, Ritsona eta Katsikas eremuetako errefuxiatuek

egindako artelan eta karikaturak jasotzen ziren, haien bizitzen lekukotzak lehen pertsonan.

Hiru erakusketak eman zioten amaia Kultur Etxeko areto nagusiko programazioari, erabat desberdinak hirurak ere, baina zerbait amankomunean zutenak: artista handiak eta kalitate handiko lanak izatea zein bere arloan:



Forever Toys, erakusketa



Literaktum

Xabi Fornéren **Kartelgintza ilustratua**; Judas Arrieta eta Gama kolektiboaren **Toy Art**; eta David Ajaren **Superheroiak**; urtero bezala, **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin** lankidetzan.

Zerrendatze horretan, ezin ahaztu eraikin zaharreko erakusketa-aretoa: urte osoan zehar, gure inguruko artisten erakusketei eman zien aterpe, hala nola **Borja Arratibelenari**, gai sozialekoa bera, edo **Zurriola ikastolak**, **Alboanek**, **Emakumeen Etxeak** eta **Askatasunartek** egindakoei. Denek ere jarduera osagarriak izan zituzten, balio eta kalitate handiagoa ematen zietenak; besteak beste, eskola magistralak, bisita gidatuak, hitzaldi eta mahai inguruak eta arte-interbentzioak gailendu ziren.

Bestalde, 2018an, Okendoko berrietasun azpimarragarrietako bat liburutegiko pasabidean egindako formatu txikiko erakusketen programazioa izan zen, non lan sozialak eta gaikakoak aurkeztu baitziren, hala nola **Euskadi Literatura Sarien erakusketa Literaktumen**, edo **Ereinduz arte-lehiaketako** lanen aurkezpena, adibidez.



Zirika Zirkus

Elkarteeikiko lankidetzaren etengabea ere azpimarratzekoa da; esate baterako, auzoko jaietan parte hartzea, San Juan eta Santo Tomas jaietako kontzertuen bidez.


Gainera, ez dira ahaztekoak Kultur Etxeak bertako artistekin eratu zituen kontzertuak eta Poltsiko-Antzerkiak Groseko taberna edo areto batzuetan. Arte eszenikoen eremuko lanaz gainera, 2018an lan handia egin zen Donostiako zenbait kolektibo eta erakundeekin osasunaz, naturaz edo ekologiaz zikloak eta hitzaldiak antolatuz. Okendok, auzotarrentzako erreferentia eta topagunea izaki, egin zituen donejakuetar egunak eta etxe erregionalen arteko topaketak ere, hainbeste-koa da aretoetan biltzen duen bizitza.

Ikastaroei dagokienez, nabarmentzekoa da Kultur Etxearen programazioaren bitxietako bat direla. 2018an ere emendatu egin zen lantegien erabiltzaileen kopurua, eta eskaria handia izan zen bai haur, gazte zein helduengan. Kultur Etxeko instalazioen erabiltzaileen kopurua ere emendatu egin zen, eta, ondorioz, bertako atzera-aurrera etengabea da eta nonahi sumatzen da mugimendua.

Bereziki, zerbitzu integratuak nabarmendu behar dira **Liburutegia**, **KZ-gunea**, **Gaztelekua**, **Haurtxokoa** eta **Plus 55**, ondo funtzionatzen jarraitu baitzuten, bai jendeari eskaini zitzaion arretaren aldetik eta bai egindako jardueren arrakastaren eta Kultur Etxearekiko lankidetzaren aldetik. Hartara, Zentroak areagotu egin zuen bere izaera irekia eta zerbitzu-emailea.

Amaitzeko, esandako guztiaz gainera, Kultur Etxeak parte hartu zuen beste jarduera batzuen antolakuntzan ere, hala nola **Poltsiko Antzerkia**, **Olatu Talka**, **Literaktum** eta **Abesbatzen Astea** programetan. Dinamika horiek, beste guztiekin batera, 2018an Okendo hiriko kultur etxerik bisitatuenetako bat izatea ekarri zuten.

Gorka Urbizu



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	1.490	133.171
Antzerkia	18	2.729
Dantza	8	1.245
Musika	27	5.296
Zinea	32	2.035
Hitzaldiak eta mahai inguruak	134	11.067
Erakusketak	21	88.387
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	102	1.624
Liburutegiko jarduerak	172	3.384
Plus 55	134	7.386
Olatu Talka	27	2.020
Gazteleku	355	2.077
Haurtxoko	373	4.818
Beste	83	996
Alokairuak	4	107

ZERBITZUAK	
	BISITAK
GUZTIRA	128.598
Liburutegiko bisitariak	111.125
Gazteleku	2.143
Musikagela	741
Haurtxoko	4.993
Kzgunea	8.980
Plus 55	616

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	156	1.698	13	101	74	1.212
2017/18 ikastaroak	41	666	7	52	34	614
2018/19 ikastaroak	46	647	6	49	40	598
Kzgunea	69	385				

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	156	556	13	38	74	361
2017/18 ikastaroak	41	149	7	12	34	137
2018/19 ikastaroak	46	250	6	26	40	224
Kzgunea	69	157				

BISITAK GUZTIRA: 261.769

IKASTAROEN ERABILTZAILEAK GUZTIRA: 2.254



Erakustokia, Liburutegi Nagusia

Donostiako liburutegien sarea **irakurketa sustatzeko** egin duen indarragatik nabarmendu da 2018an; batez ere hamalau urte arteko haurren artean, baina helduak ahaztu gabe. Donostian gure liburutegiek duten bereizgarria aldarrikatu nahi dugu, **“irakurketa publikoa”**.

Antonio Basanta irakurketaren ADNaz ari da *Leer contra la nada* liburuan, eta gure udal sareak bere egiten ditu haren hitzak, gogoratuz ezen irakurleen gizartea egiten saiatzea dela gure betekizun nagusia.

Katalogazio-lan teknikoa nabarmen handitu da. Asko lagundu dugu libururak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako katalogatzen, sare horretan baikaude duela bi urtetik. Beti katalogatu izan dugu, baina orain gure zeregin horrek EIPSeko sare guztiei egiten die mesede, horra aldea.

Zenbakietan islatzen da egindako lanaren tamaina; guztira, **14.675 katalogazio**.

SAREA ZENBAKITAN

Liburutegiaren erabilera-datuak positiboak dira. Liburutegien errendimendua alderdi guztiak aztertuta neurtzen da: ordutegia, eraikina, funtsak..., baina **bisiten eta maileguen datuak dira adierazlerik garrantzitsuenak**.

Guztira, **433.973 mailegu egin ditugu**. **Gora egin dugu haurrentzako liburuen maileguan, %2,5**.

Mailegutuan, gora egin dute Haur Liburutegi Nagusiak, Egiako Liburutegiak, Intxaurren eta Larrotxeneoak, Loiolakoak eta Musika eta Dantza Eskolako Liburutegiak. Liburutegi Nagusiak egiten du mailegu gehien, eta oso martxa handian jardun du 2018an ere: **108.187 mailegu**.

2,3 mailegu biztanleko (186.667 biztanle 2016an): datu horrek Europako batezbestekotik gertu koka-tzen gaitu (3-4 mailegu biztanleko).

2017arekin alderatuta, ikusten da maileguak gutxitu egin direla zenbaki absolututan, 27.026, hau da, %5,8 gutxiago. Beheraldi hori **bi gertaerari** zor zaie:

Ernest Llucheko liburutegiak, Real Sociedaden futbol-zelaiaren berritzelanak direla-eta, behin behineko zerbitzua eskaini du Arcco merkataritzaguneko areto batean. Liburutegi horren errendimenduaren beheraldia 25.916 mailegukoa da, hau da, iaz baino %43 gutxiago.

Sareko beste liburutegi garrantzitsua bat, Okendokoa, itxita egon da hilabete eta erdiz, instalazioetan zituen arazo batzuk zirela-eta. Beheraldia, zenbaki absolututan, 5.824 mailegukoa da, hau da, %8,8.

Euskarrikako maileguari begiratzuz gero, haurrentzako liburuenak gora egin du liburutegi guztietan, eta beste liburuenak Alderdi Eder, Aiete, Lugaritz, Intxaurren eta Larrotxeneoetan. Beherakada DVDen maileguan dagoen joera berri bati zor zaio. Aldaketa bati antzeman zaio zinekontsumoan, streaming-platafomak direla-eta (Netflix, Amazon Prime eta HBO Go).

Donostiarrak, etorri, etortzen dira liburutegietara, baina beherako joera nabari da denetan: **817.172 bisita izan**

ditugu; 2017koekin alderatuta, 84.793 bisita gutxiago dira (%9,4 gutxiago). Amarako liburutegiak jasan du hori gehien, 63.585 bisita gutxiago izan baititu.

Liburutegietako funtsak etengabe eguneratzen dira.

2018an, 44.955 dokumentu erosi ziren. **Berritze-kuota** %7,98koa da; %10era iristea dugu helburu.

83.316 bazkide daude izena emanda, hots, %6,38 egin du gora kopuruak. Donostiako biztanleen %44,79k txartela du.

Erabiltzaileentzako liburutegiak dira. Jarduera kopurua eta jarduerok asmatzea **%52,16** emendatu da, eta haietan **parte hartzen dutenena**, berriz, **%27,54**. Literatura irakurtzea eta alfabetatze digitala sustatzea helburu duten jarduerak dira. Irakurketa-klubeko 141 saio egin ditugu, 377 ipuin-kontakteta, eta **Liburu Baby Kluba** programak arrakasta handia izan du, sare osora hedatu baita, 226 saio eta 5.241 parte-hartzaileekin.

Herritarrentzako email bidezko arre-taren isla dira liburuak erosteko 364 desideratak eta zerbitzuari buruzko 117 galderak.

Funts bibliografikoak erosteko, 432.392 euro gastatu dira, hots, 3,2€ biztanleko, eta 5,18€ bazkideko.

Liburutegiok benetako gardentasu-nean sinesten dugu. Gure datu guztiak urtero argitaratzen dira paperean, inprimatuta, edonork ikus dezan gure bilakaera.

Eguzkitekak, Kontxako hondartzako liburutegiak arrakasta handia izan du berriro. **Hirukoiztu** egin dira **bisitak**, eta **bikoiztu maileguak**.

Moyua enpresaren laguntzak irekiera ordutegia zabaltzea eta jarduera gehio antolatzea ahalbidetu du.



Ikasgela, Liburutegi Nagusia

Berritasun bat: mahai-jokoak ere sartu dira liburutegira. 49 jolas, familia osoaren heziketa eta formaziorako, sorkuntza eta literatura-zaletasuna sustatzeko. Jarduera berri bat, liburua eta jolasak biltzen dituen asteen bi goizetan (ostiral eta larunbatetan). Ipuinaren ordua, berriz -udan, egunero-, sendotu egin da.

Bisitariak guztira: 17.013
Batez bestekoa eguneko: 175,16
Maileguak guztira, 3.817
Batez bestekoa eguneko: 36,10
Urgulleko liburutegiak aurreko urteko martxari eutsi dio: 3.400 bisita

Guk diogu liburutegiak badirela udarako ere, eta, beraz, 2018an **Intxaurrondo Kultur Etxeko Liburutegia** irekita egon da abuztuan. Binomio ederra osatzen dute igerilekuak eta irakurketak.

Amundarain liburutegia udal sarean sartu da urtearen hondarrean. Beste liburutegiak bezala kudeatuko da informatikoki. Martuteneko auzo osoari

egiten dio mesede bere sarbide propioa duen kokapen berriak, ez bakarrik Arantzazuko Ama eskolakoiei.

Okendo Kultur Etxeko liburutegiak **automaileguko makina eta RFID** sistema estreinatu ditu.



Eguzkiteketa



Aitor Ikastola, Liburuka Proiektua

PROIEKTUAK

2018ko proiektu nagusia **DK LIBURUKA** izan da, irakurketa sustatzeko proiektua, eta **oso harrera ona izan du**.

Irakurketari buruzko datuak, sektoreko inkestaren arabera, ez dira oso onak. Udal liburutegi-zerbitzutik, alarmismoak eta errezeta liluragarriak alde batera utzita, proiektu zehatzen, lana serio egitearen eta liburuzainen presakuntzaren aldeko apustua egin dugu.

Liburukak lau ekintza ditu; hiru, ikastetxeei begira daude, eta laugarrena, berriz, profesionali.

1.- Motxila txikia irakurketa sustatzeko ekintza bat da, eta hiru espazio lotzen ditu elkarrekin: **etxea, liburutegia** eta **eskola**; eta Haur Hezkuntzako ikasleei (3-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6-7) zuzenduta dago. Astero, ostegunean edo ostiralean, mutiko edo neskatok batek bizkarrean hartzen du motxila, eta, heldu batekin batera, liburutegira joaten da.

Han, haur horrek **liburu bat aukeratzeko** du **Motxila txikia** txokotik, eta

etxera eramaten du maileguz hartuta, **familiarekin batera irakurtzeko**. Astelehenean, **eskolara** eramaten du liburua, ikasgelan irakurtzeko eta lantzeko.

Parte-hartzaileak: **16 ikastetxe; 121 motxila** banatu ditugu **ikasgeletan, eta 3.025 familia** pasatu dira dagoeneko liburutegietatik.


2.- Irakurle gazteak, Donostiako ikastetxeetako gazteei zuzendutako ekintza: Lehen Hezkuntza (6-11 urte) eta DBHko lehen zikloa (12-13 urte); horiei **udal liburutegietan mailegatzeko dauden liburuak eskaini zaizkie**. **20 ikastetxek** hartzen dute par-

te lehen aldi honetan. Modu berezian diseinatutako **109 kaxa** bidali ditugu; 2.725 liburu banatu ditugu; 25 liburu, batez beste, kaxa bakoitzean.

3.- Itsaspeko bihotzak, literatura-saloia, hiru astez egon zen ikusgai, azaroaren 13tik abenduaren 3ra arte, Konstituzio Plazako Liburutegian, hots, Mandasko Dukearen Aretoan. Ekinbide hori **8 eta 14 urte** arteko ikasleentzat dago pentsatuta, eta Galtzagorri Elkarteak ekoitzi du. Aitziber Alonso, Mireia Delgado eta Miren Guillok diseinatu dute erakusketa, bi helbururekin: irakurketa sustatzea eta **genero-berdintasuna** lantzea, **euska-**



Motxila Txikia



Motxila Txikia

razko haur eta gazte literatura oinarri hartuta. Erakusketatik 10 ikastetxe, 30 ikasgela eta guztira 750 ikasle pasatu dira. **20 laguneko familia-saio bat.** Erakusketaren osagarri, bisita egiten da Haur Liburutegi Nagusira.

4.- Liburuzaintzako prestakuntza jarraitua: Donostia Kulturako liburuzainek prestakuntza jarraitua jaso dute haur eta gazte literaturan. 2018an, hiru ikastaro eman dira: **Liburuzaina ispiluaren aurrean** (Imanol Mercero eta Mireia Delgado); **Irakurzaletasuna sustatzeko lantegia** (Intza Alkain); **Explorando los materiales de lectura** (Elisa Yuste). **87 parte-hartzaile guztira; 29, batez beste**

Proiektu berriaz gainera, lanean jarraitzen dugu, halaber, haurrak irakurle bihurtzeko. Nabarmentzen direnak: **Liburu Baby Kluba**, hiru urte arteko haurrentzat, eta **Ipuinaren ordua**, 2-4 urte bitarteko haurrentzat. Larunbatetan, **Irakurketa kluba** eskaintzen diegu 6-8 urteko haurrei, **Galtzagoz-rrirekin** elkarlanean; eta ostiraletan, berriz, **Irakurketa digitaleko kluba**, 8-12 urte bitarteko haurrei. Saioetan, batez beste, 20 hurrek hartu dute parte.

Dagoeneko finkatuta geratu da urriko **Ipuin-kontalarien maratokia**; lau saio egun batean, eta 118 parte-hartzaile.

Argitalpenei dagokienez, **sareko orri-markatzailea** nabarmenduko



Ipuinaren ordua

dugu, urtero bezala. **Maite Mutuberrria ilustratzailea hautatu da 2018an.** Gainera, *Irakurlee* argitaratzen dugu, irakurketa-gida bat, familia osoarentzako gomendioak biltzen dituena.

Sare sozialen arloan, aldaketa esanguratsua gertatu da. *Liburutegien ahotsa* bloga itxita dago, baina bultzaka jarraitzen dugu **Liburu dantza** blogari, non LIBURUKA programari dagokion kategoria berri bat irekiko baita.

Eduki digitalak sortzea da **Wikiliburutegiak** programaren xedea. Batetik, "Euskarazko haur literatura" wikiproiektua; bestetik, liburuzainak

wikiproiektua. 2018an, literatura unibertsaleko 56 erregistro sortu dira, eta horiei dagokien liburua argitaratu da.

Programari amaiera emateko, ekitaldi bat egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan. Shakespeareren sonetoak errezitatu eta kantatu ziren, euskaraz, Juan Garzia Garmendiaren bertsioan, Joxan Goikoetxearen musikarekin.

Euskarazko literatura unibertsalari buruzko erakusketatxo bat sareko liburutegi guztietan: horrek eman zion buru programari. Jarduera hori **Euskararen Eguna**rekin eta **Euskaraldia** kanpainarekin zegoen lotuta.



Haur Liburutegia



Komiki tailerra, Egiako Liburutegia



Okendoko Liburutegia

JARDUERAK

Gure liburutegiak komunitatearen parte dira, eta jarduerak, berriz, gure zerbitzuaren zutabe bat. Mundua irakurleen mundu bihurtzeko utopiak bizi gaitu.

Liburutegien zerbitzuan bi abagune ditugu seinalatuak: Liburuaren Nazioarteko Eguna, apirilaren 23an, eta Liburutegiaren Eguna, urriaren 24an.

2018an, lehen aldiz gure sarean, protagonismoa hartu zuen Munduko Poesia Egunak, zeina martxoaren 21ean ospatzen baita, eta programa berri bat hasi genuen: **Poesialdia**, martxoaren 19tik 26ra. Aste horretan, **DK poesia-saria** eman genuen, eta gurekin izan genituen **Miguel d'Ors, José Mateos** eta **Porto izeneko jarduera, Harkaitz Cano eta Mursegorekin.**

Liburutegiaren Egunean jolasaren gaia aztertu genuen. **Play again! Jolasa eta liburutegia** egunean, profesional entzutetsuak izan genituen gurekin: Pepe Pedraz, Marina Espasa, Azahara G. Peralta, Andrea Vitórica eta Ana Ordás.

Literaktum literatura-jaialdian, klasi-koen sailean, arrakasta handia izan zuen Pio Barojari buruzko literatura-ibilaldiak. Josemari Carrere aktorea eta Eneko Olasagastiren taldea izan genituen gurekin. **Literatur afariak**, Covent Garden-en, 80 lagun bildu zituen *Anna Karenina* eleberriaren inguruan.

Literaturaren bide berrien sailean, berriz, bi saio antolatu genituen. Lehena, **Zergatik idazleak?** Estibalitz Martínez Díaz de Cerio eta Peru Iparragirrerekin, eta Samara Velte moderatzaile lanetan. Bigarren saioa, **Gazteak eta irakurketa**, Maialen Berasategi, Imanol Epelde eta Elena Oregirekin, eta Uxue Alberdi moderatzaile lanetan. Bi saiook euskaraz izan ziren.

Literatura-solasaldiak edo irakurketa-klubak dira betiere gure programazio finko garrantzitsuena. Euskarazko solasaldian, Iñigo Aranbarriekin, 20 lagun izaten dira saioa, batez beste. Gaztelaniazko solasaldian, Amaia Garcíaekin, 32 lagun biltzen dira; ingelesezkoan, Slawa Grabowskarekin, 15 lagun; eta frantsesezkoan, Miren Garmendiarekin, 25 bat lagun.

Zerbitzutik "irakurketa erraza" bultzatzen dugu, zeina Aita Menni Zentroan egiten baita. Liburuak uzten dizkiegu eta Liburutegi Nagusian biltzen dira.

Liburuaren Egunean, urtero bezala, Gipuzkoako Plazara irten ginen liburu-saltzaileei eta liburu-dendei gure babesa adierazteko. Egun osoan izan genituen jarduerak eta kontzertuak. 2018an, Mary Shelleyren *Frankenstein* argitaratu zeneko 200. urteurrena gogoratu genuen irakurketa librean, eta eguna ixteko, Rafa Ruedaren kontzertua izan genuen.

Vivian Gornickek eta **Eider Rodríguezek** Gipuzkoako liburu-saltzaileen elkartearen saria jaso zuten, Zilarrezko Euskadi izenekoa, eta irakurleekin solasean jardun zuten San Jeronimo kaleko ekitaldi-aretoan. Liburutegizerbitzuak babestu egiten ditu literatura-sariak; horregatik, 2018an ere elkarlanean jardun dugu **Kutxa Donostia Hiria Sariekin**, zeinak Antzoki Zaharrear eman baitziren, abenduan. Hona hemen sarituak: antzerkian, Fernando Trías de Bes-en *El trámite* eta Oier Gillanen *Aire ikusezina*; konta-

kizun laburrean, Matías Candeiraren *Moebius* eta Alexander Martínez Iturriaren *Iraumen*.

Poesia eta pentsamendua zikloa giltzarri izan da orain arte gure programazioan. Hamaikagarren poesia-errezitaldia egin genuen musikarekin, Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan. Parte hartu zutenak: Xuan Bello, Itziar Ancin, Jon Iñaki Lasa eta Juan Manuel Uria, eta Jon Makuso biolina jotzen.

Poesia Orduak zikloa Festak unitatearekin eta Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolatzen dugu, eta liburutegi-zerbitzuak literatura-jarduera minoritario bati ematen dion babesaren adierazgarri da. Irailaren 3an Itu bandak *Itzulerak* ikuskizuna eman zuen, Martin Bidaur, Alazne Arruti Bengoetxea, Paul Beitia Ariznabarreta, Jon Gurrutxaga Urbietaren eskutik. Hilaren 4an, berriz, *Emakume Burugabea*, Antxiñe Mendizabal Aranburu, Nerea Gartzia Gartzia eta Pello Ramirez (musika) hirukotearen eskutik.

Emakume idazleen topaketa azaroaren 7an eta 8an egin zen, eta hori da gure beste apustu bat. Topaketa horretan, nazioartean ezagunak diren emakume idazleen literatura-sorkuntza aztertzen da. **Leonor de Recon-dok eta Pilar Selek-ek literatura-sorkuntzaz jardun zuten.**



Miguel Dor's eta Jose Mateos, Poesialdia



Erakusketa, Liburutegi Nagusia

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN



FUNTSAK	563.085	GAZTELANIAZ	406.948
SARBIDE LIBREKO FUNTSA	470.183	BESTERIK	49.712
FUNTS HISTORIKO KATALOGATUA	92.902		
		ALTAK	44.955
FUNTSAK EUSKARRIAREN ARABERA		BAJAK	17.344
LIBURUAK	449.393	BILDUMAREN HAZKUNDEA %TAN	8,26
CD	36.396	BILDUMAREN ERABERRITZEA %TAN	7,98
CDROM	2.780		
DVD	59.425	MAILEGUAK	433.973
BIDEO JOKOAK	1.443	MAILEGUAK EGUNEKO	1.466
MAPAK	205		
MATERIAL GRAFIKOA	3.436	MAILEGUAK EUSKARRIAREN ARABERA	
PARTITURAK	8.382	HELDUENTZAKO LIBURUAK	195.832
ALDIKAKO ARGITALPENAK	1.495	HAURRENTZAKO LIBURUAK	107.284
ORDENAGAILU ERAMAN-GARRIAK	34	CD	11.984
EREADER-IPAD	96	DVD HELDUAK	66.878
FUNTSAK HIZKUNTZAREN ARABERA		DVD HAURRAK	30.336
EUSKARAZ	106.425	CDROM	715

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN

ALDIZKARIAK	6.523
MAPAK	1
PARTITURAK	2.184
BIDEO JOKOAK	3.776
EREADER-IPAD	141
ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK	5.597
MAHAI JOKOAK	2.722

**MAILEGUAK
HIZKUNTZAREN ARABERA**

EUSKARAZ	53.065
GAZTELANIAZ	290.719
BESTERIK	28.277

**E-LIBURUTEGIKO
MAILEGUAK**

FUNTS HISTORIKOAK KONTSULTAK	668
---------------------------------	-----

HEMEROTEKA KONTSULTAK	3.659
-----------------------	-------

BISITARIAK	817.172
------------	---------

BISITAK EGUNEKO	2.761
-----------------	-------

BAZKIDEAK

HELDUAK	69.118
---------	--------

HAURRAK	13.948
---------	--------

BESTERIK	250
----------	-----

GIZONAK	37.816
---------	--------

EMAKUMEAK	45.245
-----------	--------

BESTERIK	255
----------	-----

**2018. URTEKO BAZKIDE
BERRIAK**

HELDUAK	3.314
---------	-------

HAURRAK	1.542
---------	-------

BESTERIK	124
----------	-----

GIZONAK	2.081
---------	-------

EMAKUMEAK	2.775
-----------	-------

BESTERIK	124
----------	-----

**2018KO BAZKIDE
AKTIBOAK**

HELDUAK	19.692
---------	--------

HAURRAK	6.557
---------	-------

BESTERIK	219
----------	-----

GIZONAK	11.086
---------	--------


EMAKUMEAK	15.157
-----------	--------

BESTERIK	225
----------	-----


LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN

INTERNET / CDROM KONTSULTAK	166.926		
KZ ARETOETAN	52.061	JARDUERA KOPURUA	1.517
ARETOAN	48.202	JARDUERETARA ETORRITAKOAK	34.188
WIFI	66.663	ERAKUSKETAK	8
OPAC KONTSULTAK	467.489	AZALERA M2	9007,08
WEB KONTSULTAK	253.425	APALAK METRO-LINEALA	7982,23
HEMEROTEKA DIGITALE- KO KONTSULTAK	187.273	IRAKURTZEKO GUNEAK	1143
LIBURU DANTZA KONTSULTAK	2.442		


(1) Ez dira kontuan hartu Amundarain Mediatekako funtsak.




Sorrera urtea	Sail historikoa 1874	KONTSULTAK FUNTS HISTORIKOAN	668
	Alderdi Eder 1999	KONTSULTAK HEMEROTEKAN	3.659
FUNTSAK	136.846	BISITA	229.500
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	63.584	BISITAK EGUNEKO	775
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	73.262	ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	38
ALTAK	8.310	EKINTZA KOPURUA	317
BAJAK	900	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	7.781
MAILEGUAK	108.187	ERAKUSKETAK	3
MAILEGUAK EGUNEKO	365		



Sorrera urtea	1970 (1994)	MAILEGUAK EGUNEKO	108
FUNTSAK	46.167	BISITA	31.506
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	32.344	BISITAK EGUNEKO	121
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	13.823	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	4.757
ALTAK	2.971	EKINTZA KOPURUA	210
BAJAK	1.192	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	5.711
MAILEGUAK	28.140		



Sorrera urtea	2010	BISITAK EGUNEKO	196
FUNTSAK	31.117	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	10.151
ALTAK	3.017	EKINTZA KOPURUA	117
BAJAK	325	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	3.858
MAILEGUAK	42.353	ERAKUSKETAK	4
MAILEGUAK EGUNEKO	142		
BISITA	58.463		



Sorrera urtea	1987	BISITAK EGUNEKO	81
FUNTSAK	19.334	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.845
ALTAK	1.383	EKINTZA KOPURUA	26
BAJAK	435	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	292
MAILEGUAK	7.634		
MAILEGUAK EGUNEKO	35		
BISITA	17.913		



Sorrera urtea	1986 (2006)
FUNTSAK	38.211
ALTAK	3.257
BAJAK	1.195
MAILEGUAK	34.656
MAILEGUAK EGUNEKO	117
BISITA	67.926

BISITAK EGUNEKO	229
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	14.910
EKINTZA KOPURUA	116
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.421




Sorrera urtea	1997
FUNTSAK	33.266
ALTAK	2.170
BAJAK	4.956
MAILEGUAK	21.095
MAILEGUAK EGUNEKO	95
BISITA	22.007

BISITAK EGUNEKO	99
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	6.696
EKINTZA KOPURUA	82
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.033




Sorrera urtea	2001
FUNTSAK	47.692
ALTAK	2.904
BAJAK	355
MAILEGUAK	34.650
MAILEGUAK EGUNEKO	126
BISITA	55.634

BISITAK EGUNEKO	203
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	15.147
EKINTZA KOPURUA	102
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.837



Sorrera urtea	2000 (2011)
FUNTSAK	44.504
ALTAK	3.563
BAJAK	1.792
MAILEGUAK	38.735
MAILEGUAK EGUNEKO	159

BISITA	67.857
BISITAK EGUNEKO	278
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	29.124
EKINTZA KOPURUA	86
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.796




Sorrera urtea	1988
FUNTSAK	13.516
ALTAK	1.136
BAJAK	1.576
MAILEGUAK	8.113
MAILEGUAK EGUNEKO	37
BISITA	11.384

BISITAK EGUNEKO	51
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.973
EKINTZA KOPURUA	72
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.092



Sorrera urtea	1987
FUNTSAK	33.175
ALTAK	1.959
BAJAK	316
MAILEGUAK	17.284
MAILEGUAK EGUNEKO	76

BISITA	31.038
BISITAK EGUNEKO	137
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.642
EKINTZA KOPURUA	58
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.043




LUGARITZ K.E. LIBURUREGIA (Antiguo)



Sorrera urtea	1993
FUNTSAK	32.936
ALTAK	2.767
BAJAK	417
MAILEGUAK	20.327
MAILEGUAK EGUNEKO	89
BISITA	33.914

BISITAK EGUNEKO	149
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	4.872
EKINTZA KOPURUA	60
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.284




OKENDO K.E. LIBURUTEGIA (Gros)



Sorrera urtea	1987 (2004)
FUNTSAK	40.546
ALTAK	3.343
BAJAK	3.019
MAILEGUAK	59.829
MAILEGUAK EGUNEKO	214

BISITA	111.125
BISITAK EGUNEKO	397
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	27.796
EKINTZA KOPURUA	132
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	3.384




Año de creación	1997
FUNTSAK	4.872
ALTAK	148
BAJAK	374
MAILEGUAK	450
MAILEGUAK EGUNEKO	6
BISITA	3.400

BISITAK EGUNEKO	44
INTERNET / CDROM KONTSULTAK	122
EKINTZA KOPURUA	20
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	380



Sorrera urtea	2017
FUNTSAK	1.757
ALTAK	974
BAJAK	96
MAILEGUAK	3.817

MAILEGUAK EGUNEKO	41
BISITA	17.013
BISITAK EGUNEKO	187
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.260



Sorrera urtea	2002	MAILEGUAK EGUNEKO	29
FUNTSAK	19.928	BISITA	48.708
ALTAK	1.657	BISITAK EGUNEKO	233
BAJAK	307	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	2.688
MAILEGUAK	6.017		



Sorrera urtea	2011	MAILEGUAK EGUNEKO	9
FUNTSAK	16.002	BISITA	2.790
FONDO LIBRE ACCESO	10.185	BISITAK EGUNEKO	14
FONDO HISTÓRICO CATALOGADO	5.817	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	310
ALTAK	876		
BAJAK	52		
MAILEGUAK	1.828		



CRISTINA ENEKO INGURUMEN BALIABIDEEN LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2006	BISITA	2.520
ALTAK	2.576	BISITAK EGUNEKO	7
BAJAK	108	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.924
MAILEGUAK	37		
MAILEGUAK EGUNEKO	93		



AMUNDARAIN MEDIATEKA. ARANTZATZUKO AMA IKASTOLA

Sorrera urtea	2016 (2018)	BISITA	4.474
FUNTSAK	4.412	BISITAK EGUNEKO	20
ALTAK	4.412	INTERNET / CDROM KONTSULTAK	1.115
BAJAK	0	EKINTZA KOPURUA	
MAILEGUAK	765	EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	
MAILEGUAK EGUNEKO	3		



Anari

Donostia Kulturaren, Musikaren emanaldiei eta hedapenari dagozkien ekintzetan hainbat eta hainbat agertoki, lankidetzatza, proposamen eta estilo izaten dira tartean.

Victoria Eugenia Antzokiaren programazioak eskaintza horretako proposamenik interesgarrienak bildu zituen 2018an. Horren adierazle dira honako izen hauek, besteak beste: **Ja-**

rabe de Palo, Rocío Márquez, Izaro, Rosana, Ben Howard, Anari, Alan.Ni, Joseba Tapia. 43 kontzertu izan ziren, eta 20.100 ikus-entzule. Victoria Eugeniako Klubak ere kontzertu interesgarriak eta askotarikoak programatu zituen. Honako artista hauenak, besteak beste: **Marc Ribot** (Jazzaren Na-

zioarteko Egunaren kariatara), **Sofia Rei** argentinarra edota **Pascals** talde japoniarra. Agertoki honetan hemezortzi kontzertu izan ziren, eta 2.111 ikus-entzule.

Antzoki Zaharrak, berriz, hurbilagoko talde eta elkarteei eskaini zien bere



Izaro



Jarabe de Palo



Depedro

agertokia. **Bederatzi musika-eman-kizun.** Nabarmentzekoak, besteak beste, **Ruper Ordorika, Angel Olsen** eta **DePedro**renak. Guztira, bederatzi kontzertu eta 3.181 ikus-entzule.

Bertako jazz-taldeen kontzertuak ere programatu dira Kutxa Kultur Klubean eta FNACen. Hamar kontzertu, hain zuzen, 1.500 ikus-entzulerekin.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak programatzen du **Kursaal Eszenaren** Herri Musika saila. 2018an, zazpi emankizun izan dira Kursaaleko Auditorioan. **Apocalyptica**, **Silvia Pérez Cruzek**, **Luz Casalek** eta **Benito Lertxundik** (honek birritan) sarrerak agortu zituzten beren kontzertuetan. Zazpi kontzertu, eta 9.631 ikus-entzule.

2018an ere, ekainaren 21a, Musikaren Europar Eguna, aitzakia polita izan zen **Adarra Saria** emateko. Urtero, sari horren bidez, Euskal Musikaren arloan jardun duen edo diharduen artista baten ibilbidea eta lana nabarmentzen dira. Aitortza hori **Anariri** egin zitzaion honako honetan.

Bestalde, azpimarratzea komeni da bertako musika-erakundeekin izan-

dako harremanak oso onak izan zirela; honako hauekin, besteak beste: Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa, Udalaren Musika eta



Joseba Tapia

Dantza Eskola. Horri esker, sinergiak ezar daitezke, eta musika-arlorako ongarri gertatuko diren lankidetzak.

Urtean zehar, etengabea izan da musikari eta ikus-entzule berriak sortzeko eta prestatzeko lana. Adibiderik argiena TxikiJazz-en eta TxikiJazz Big-band-en programazioa da, arrakasta handia izan baitu ikus-entzuleen aldetik, eta emaitza artistiko bikainak lortu baititu.



Ceramic Dog

MUSIKA

ARETOA	EMANKIZUN-KOP.	IKUS-ENTZULEAK
GUZTIRA	87	36.523
Victoria Eugenia Antzokia	43	20.100
Victoria Eugenia Kluba	18	2.111
Antzoki Zaharra	9	3.181
Kutxa Kultur eta FNAC	10	1.500
Kursaal Eszena	7	9.631



© Mikel Belasco

Como un viento helado

Lurralde sentikorra, eta sentikortasunen lurraldea. Arte eszenikoak, arlo publikotik, ez dira arlo pribatutik direna; desberdindu egin behar dira arlo biak, eta desberdintzen dira. Ohitu egin gara, eta batzuetan ez gara ohartzen Donostiak dituen azpiegituren ugariak. Ugartasun horrek, erdialdetik auzoetara (edota alderantziz) doan garapen ho-

rri esker, aukera handia ematen digu eduki eta formatuetan, eta horrek izugarri errazten du arte eszenikoe-tako lan publikoa eraginkorragoa izatea eta helburuak anbizio eta asmo handiagoz betetzea. Dibertsifikatzeko aukera izateari esker, orekak bila ditzakegu. Oreka bertakoaren eta kanpokoaren artean, antzerki, dantza eta arlo multidisziplinarioen artean, handiaren eta txikiaren artean, euskararen eta gaztelaniaren artean, klasi-zismoaren eta berritasunaren artean, ahapekakoaren eta oihuen artean, kontatzearen eta salatzearen artean, goian dagoenaren eta gora bidean denaren artean.

ANTZERKIA

Urtebeteen asko egin daiteke. Antzerkian, **Calígula** eta **Moby Dick** denon gogoan eta Victoria Eugenia Antzokiaren historian geratuko diren ikuskizunak izan ziren 2018an. Camus edo Melville autore funtsezkoen testuetan oinarrituriko gidoiak, ondo egindako ikuskizunak, anbizio handiko formatuak eta izugarrizko talde artistikoak oro har, honako hauek buru zirela: Jose María Pou Ahab kapitainarena egiten, eta Pablo Derqui Kaligula harrigarri batena, ña-

barduraz beteriko interpretazio ezin hobean. Bestalde, Fabio Marraren **Juntos** obra da Donostiako udetan ohikoak diren ikuskizunen labealdi berriaren adierazlea. Gorka Otxoa, Melani Olivares, Kiti Manver eta Ínés Sánchez komedia oso dibertigarri bategan sartu dira desberdintasunaz eta desberdin denaz hitz egiteko, "normaltasuna" delakoaz. Abagunea baliatzen dute gaur egungo familiaren oinarrietan sakontzeko. Alegia, ikuskizun jostagarriak, umorea darabiltenak kasuan kasuko gaian sakontzeko asmoz; kasu honetan, desberdintasunean. Antzoki Zaharrari dagokionez, bi ardatz izan ditu programazioak: euskarazko antzerkia eta "emakume autorearen" antzerkia. Programazioak leku egin die emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerantz bizitzako arlo guztietan egiten diren urratsei. Emakumeen historiak kontatzea, emakume oso garrantzitsuak ikusgai paratzea gauzak auzitan jartzeko edota, gutxienez, galderak egiteko. **Penélope, Emilia, El lunar de Lady Chatterley** dira adibide batzuk: nabarmendu ziren emakumeak, denak ere; beren eskubideen alde borrokatu zirenak oraingo hau baino are garai zailagoetan.



Emilia, Deleloutre



Zoaz pake santuan

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den **euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular bakarraren zutabe nagusia da**, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilzan konpainia nagusiak,

hala nola Tartean, Ados, Tanttaka, Vaivén, Txalo, Laurentzi... Nabarmentzekoak **Sherezade eta tipularen azalak**, Vaivén Teatrok eta Chapitô konpainia portugesak lankidetzan gauzatu, edo **Zoaz bake santuan** lanaren estreinaldia abuztuan, Txalo Producciones-en eskutik eta euskarazko antzerkiko aktore ezagunenekin,

edota **Erlauntza**, mugarik gabeko komedia, Kepa Erraztik idatzia Dramaturgia Berriak proiektuaren barruan eta Vaivén konpainiak, Arriaga Antzokiak, Gasteizko Principal Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak ekoitzia. Victoria Eugenia titulu interesgarriak taularatu ziren, hala nola Tanttakaren **Izoztutako haizea bezala**, Adosen **Dublindarrak** edo Loraldiaren ekoizpena, **Strip-Tease**. Gazteszenatik pasatu zen, halaber, euskarazko antzerkian ikus-entzuleen artean zertu den azken gertakarietako bat, Le Petit Théâtre de Pain-AXUT!-ARTEDRAMA-en azken produkzioa, **Zazpi senideko**. Urtero, martxoaren 27an, **Munduko Antzerki Egunean**, Donostia Antzerki Saria ematen zaio aurreko urtean helduentzat programaturiko euskarazko ikuskizunik onenari. 2018an, **Mami Lebrun** izan zen irabazlea, Xake Produzioak-ena.

Imanol Larzabal aretoak formatu txikian eta Gazteszenak abangoardian egiten duten lana nabarmentzekoak dira. Eskaintzen dituzten ikuskizunak gako dira Donostia Kulturaren jarduna jardun oso eta globaltzat hartu ahal izateko. Estilo desberdinak, kontzeptu desberdinak, gorabidean diren artistentzako aukera (bai eta gorabidean ez direnentzat ere. Nola ikusten den). Imanol Larzabalek **Masacre. Una historia del capitalismo español** programatu zuen, besteak beste; Alberto San Juan eta Marta Calvorenkin. Gazteszena arriskatu egin zen Matarile galegoekin, hots, abangoardiaren eta berrikuntzaren puntan dabilzanekin. Oraingo honetan, Ana Vallések **Circo de pulgas** zuzendu zuen. Zirkuaz ari garelarik, Gazteszenak oso proposamen interesgarriak aurkezten ditu, kalitate handikoak: Lapso Circoren **Ovívio** eta La Trocola Circ-en **Emportats**. Victoria Eugenia Antzokiak, zirkuari,



Erlauntza



© Sergio Parra

Juntos



© David Ruana

Mobydick

Black Blues Brothers programatu zuen, bost akrobata-dantzari, afrikar zirkuaren ordezkari.

Musikalei dagokienez, Donostiara etorri ziren **I Want You Back, El Musical**, Michael Jackson zenaren pertsonaian inspiratua, eta **We Love Queen**, britainiar bandaren omenez, eta Victoria Eugenia Antzokiaren agertokian eman ziren.

DANTZA

Dantzan, badira urte batzuk lankidetzatza estua dugula Kukai Dantzarekin, zeinari Espainiako Dantza Sari Nazionala eman baitzaio sorkuntza modalitatean. Folklorearen eta mito eta errieto tradizionalen trataera ikusgarria du bereizgarri talde horrek, unibertsaltasunera eramaten baititu gaur egungo dantza-hizkuntzaren bidez. 2018an, bere sorkuntza-lan berriarekin etorri zen: **Erritu**. Manuel Liñán da beste sari nazional bat: hark ere bere azken sorkuntza-lana aurkeztu zuen Victoria Eugenia Antzokian, **Nómada**. La Ribotek, berriz, espainiar dantza garai-kideko koreografo multidisziplinario

berritzaileenetako batek, gozabidea eman zigun **Gustavian**, Mathilde Monnier-ekin batera. Monnier erreferentzia bat da dantza garai-kide frantsesean eta nazioartekoan, eta etengabe ari da eraberritzen. **Gustavia**k dotorezia eta maila handia dakarkio zeinahi dantza-programaziori. Nabarmentzekoa da, halaber, Ertza konpainiaren hazkundea: Victoria Eugenia Antzokiko agertokira egin zuen jauzi bere azken sorkuntza-lanarekin, **Janeten titia**, eta ikus-entzuleek erantzun ezin hobe eman zioten. Eta ohi bezala, Malandain Ballet Biarritz, Victoria Eugenia Antzokiaren lankide estu eta etengabea, urtero zenbait emankizun



© Celia Coca

Nomada



Janeten titia

© Gorka Bravo

dakarrena antzokira. Oraingo honetan, **Sirenes** estreinatu zuten, inguruneari buruzko gaia zuen lana. Malandain Ballet eta Kukai parte-hartzaile nagusiak dira urte osoan zehar antolatzen diren prestakuntzarako eta dantzaren alderako sentsibilizaziorako jarduera koreografikoetan: topaketak, eskolak, lantegiak, laborategiak eta abar. Berrietasunen artean, 2018an Ballet T Egunak izeneko programa antolatu dugu, Donostia Kulturari urte osoan zehar antolatzen den jarduera koreografikoa ikusgai jarri eta ezagutarazteko. Ikasleentzako emanaldiak, ibilaldi koreografikoak hirian barrena, erakusketak, lantegiak eta baita estreinaldi bat ere: horiek guztiek osatu zuten asteburu bete bat dantzaren inguruan.

Ezin ahaztu Egia Kultur Etxeko Gazteszena aretoak dantza garaikidearen inguruan egiten duen lan itzela. Honako artista hauek etorri ziren: Dani Abreu, 2018ko Max Saria dantza-ikusbizun onenari **La desnudez** lanagatik; Bartzelonatik, Iron Skulls Co etorri zen **No sin mis huesos** lanarekin, breakdance, hip-hop, dantza garaikidea eta akrobaziak batzen zituela, hainbat disziplinan inspiratuta: arte martzialak, musika-produkzioa, diseinua eta moda. Oso originalak. Sharon Fridman dantzari eta koreografo ospetsuaren konpainiak **All Ways** aurkeztu zuten. Ikuskizun horretan, Fridmanek zirkulu bat itxi du "contact" teknikaren inguruko hizkuntzaren ikerkuntzan. Euskal presentziari dagokionez, Gazteszenak arlo horretan egiten duen lana azpimarratuko dugu: Jaiotz Osa, Cielo Raso, Lasala... Egiako agertokira sarri etorri ohi diren konpainiak.

Amaitzeko, azpimarra dezagun, halaber, Dantzaren Profesionalen Elkar-eteak dantza sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana, zeinaren adierazle-rik nabarmenena Dantzaren Hilabetea baita, eta, zehatzago, Dantzaren Gala, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan. Ez dugu ahaztu nahi Verdini, ez eta dantza urbanoak, tradizionalak edota flamenko hutsa interpretatu zu-



Sherezade eta tipularen azalak

ten konpainiak ere. Denen artean, urte koreografiko koloretsua eta ñabarduraz bete eskaini zuten.

HAURRAK ETA GAZTEAK

Haurrentzako programazioa: Arte eszenikoek hitzezko eta gorputz bidezko adierazpena garatzen laguntzen dute, eta buru-azkartasuna eta amets eta hegan egiteko gaitasuna pizten. Onura dakarkiete, halaber, hizketari, dizkioari, kontzentrazioari, gogoetari eta sormenari. Ikus-entzuleria berriak sortzeak, arte eszenikoak etxeko txikientzat ere onak direla sinesteak eraman gaitu antzerki- eta dantza-programazio egonkorak osatzera kultur etxe guztietan. Batzuk auzoari zuzenduak; beste batzuk, berriz, hiri osoari, hala nola udal antzokietan eta kultur etxeetan diseinatzen direnak; zehazki, Egia, Lugaritz eta Altza kultur etxeetan. Udan izan ezik, esan dezakegu asteburu guztietan dagoela programaturik ikuskizun bat gutxienez Donostian.

Eskolatik antzokira proiektu sendoa da gaur egun, eta hazi eta hazi egin da etengabe 2009an lehen edizioa egin zenetik.

Arte eszenikoak etorkizuneko ikus-entzuleei hurbiltzea ardatz estrategikoa da Donostia Kulturarentzat ikus-entzuleria berriak sortzeari begira. Gazteenei arte eszenikoak maitatzen irakastea, zuzeneko arteak maitatzen irakastea, oso osagarri garrantzitsua iruditzen zaigu haien heziketa akademikoan eta pertsona gisa.

Programa hau 10 ediziotan martxan jarri eta gero, esan dezakegu betebetean asmatu genuela hain prozesu aberasgarriari ekitean, ikusirik zer emaitza eta zer-nolako balorazioak izan dituen urtez urte. Edizio bakoitza hazi egin da adin-tarte guztietan, bi urteko haurretatik hemezortzi dituztenetara. Edizioren batean parte hartu duten ikastetxeek jarraitu egin dute ondorengoetan, eta, beraz, ondorioztatu dugu proiektuak sortu duen interesaren emaitza dela erakutsitako leialtasun hori.

2018ko edizioan, **7.702 haur eta gazte** izan dira programaturiko sei ikuskizun- en 33 emanaldietan (ikusbizun bat adin-tarte bakoitzeko). 33 ikastetxek hartu zuten parte, 110 taldek guztira.

Ordu Gaztea: Milatik gora dira “ordu gaztea”ri onura atera dioten gazteak, hau da, 3 euroren truke ikuskizun batera joan direnak, zeinahi zelarik berezko prezioa; frogatu ondoren, betiere, 30 urtetik beherakoak zirela eta sarrera kasuan kasuko funtzioa hasi aurreko 30 minutuetan erositak. Ekintza positiboa gazte jendeari begira, adin horietakoei ikuskizunetarako irispidea eskaini nahi diena, arte eszenikoen alderako zaletasuna eta loturak sortuz joan daitezten.

dFERIA

dFERIA, arte eszenikoen feria, ikus-entzuleen eta kritikarien artean arrakasta handia lortuta amaitu zen, “oso sentrazio onekin”. dFERIAren hogeita laugarren edizioan, **leit-motiva** “tabua” zela, **34 ikuskizunen 37 funtzio** programatu ziren, bederatzigertokitan. Guztira, 8.400 lagun izan ziren programaturiko emanaldietan, eta, batez beste, %83koa izan zen aretoen okupazioa. Akreditaturiko pertsonen dagokienez, 2018an 520 izan ziren profesional akreditatuak (hau da, aurreko urteko edizioan baino %23 gehiago). Diziplinak, %40 antzerki-funtzioak izan ziren, %42 dantzakoak, eta %18 multidisziplinarioak. Jatorriaren aldetik, funtzioen %51 Euskal Herriko produkzioak ziren, %19 Estatuak beste alde batzuetakoak, eta %30 atzerriarrak.

dFERIAk ikus-entzuleei eskaintzen dien antzerki- eta dantza-jaialdia-ekin batera, jarduera profesional



betea azpimarratuko dugu: bilerak, topaketak, erakusketak, harreman profesionalak, proiektu-aurkezpenak, negozio-bilerak, lantegiak.

dFERIA ABROAD

dFERIAk sortzaileei -kasu honetan, Euskal Herriko sortzaileei- beren lana indartzen laguntzeko eta bultzatzeko duen asmo baitezpadako honek tresna berri bat du 2017tik, dFERIA ABROAD deitu duguna, zeinaren helburua merkatu berriak irekitzea baita, hala European nola Amerikan.

Zer da dFERIA ABROAD? Etxepare Institutuarekin lankidetzan egiten den proiektu bat. dFERIA ABROAD proiektuari esker, aukera dugu dFERIAren sustatze-lana erregularizatzeko, Donostiatik urrun dauden beste leku batzuetara luzatzeko eta hedarazteko, eta urteko beste hilabete batzuetara. Hartara, beste neurri bat ematen zaio feriarri, munduko beste ekitaldi eta jaialdiekiko lankidetzak dela bide, laguntza emanez konpainiei beren ikuskizunak aurkez ditzaten, ezagutuak izan daitezten eta ikus-entzule berriak eta muga berriak irits ditzaten.

dFERIA ABROAD 2018.

Bigarren edizioan, hauek izan ziren lankidetzak:

MAPAS.

Hego Atlantikoko Arte Performatiboaren Merkatua, Tenerifen, Kanariar Uharteetan. Uztailean izan zen, eta hauek hartu zuten parte:

Block / Pool

AMAIA ELEIZARAN DANZA

Topa

KUKAI DANTZA

Meeting point

ERTZA DANTZA

CENA CONTEMPORÁNEA,

Brasiliako Nazioarteko Antzerki Jaialdia

Abuztuan. Hauek hartu zuten parte:

Alicia después de Alicia

KABIA TEATRO

Jardín de invierno

CIELO RASO DANZA



dFERIA

Ekoizpenak

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen arloko eragile dinamizatzailea da (antzerkia, dantza eta, gutxiago bada ere, zirkua), eta urtero, urratsez urrats, aktiboki hartzen du parte sektorea ehuntzen. Antzerkia ikuskizunen erakustoki bat baino gehiago da. Antzoki dinamikoa izan nahi du, kudeaketa-bide berriak urratuko dituen, erronka berriei ekingo diena eta erakuste hutsa baino harago iritsiko dena, konpromisoak hartuz eta modu desberdinean inplikatuz proiektuetan, modu beteagoan. Gastuak partekatuz ez ezik, ikuskizunaren garapenean eta geroko bizitzan parte hartuz. Horregatik, koproduzitzeko asmoa dugu, hein batean bada ere; laguntzeko, berresteko, bultzatzeko asmoa, hots, proiektuaren parte izateko. Produzioen kostu handiek eta ondorengo banaketaren zailak bat egitera eta arriskuak hartzera behartzen gaituzte. Sortzeko arriskuak hartzera, alegia, lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagoz, zertarako eta emaitza artistiko onak eta ustiatze-aldi luzeagoak lortzeko.

Victoria Eugenia Antzokiak honako ikuskizun hauek koproduzitu ditu 2018an:

Sirenes

MALANDAIN BALLET BIARRITZ

BALLET T proiektuaren baitako lankidetzak, Malandain Ballet Biarritz Koreografia Gunearekin eta Festival Cadences - Théâtre Olympia, scène conventionnée d'Arcachon-ekin batera.

Koreografia: Martin Harriague

Musika: Antonio Vivaldi, Arcangelo Corelli, Francisco Araia & Hermann Raupach

Rêverie romantique

MALANDAIN BALLET BIARRITZ

BALLET T proiektuaren baitako lankidetzak, Malandain Ballet Biarritz Koreografia Gunearekin, Festival Cadences - Théâtre Olympia, scène conventionnée d'Arcachon-ekin eta Biarritzeko Festival Les Beaux jours de la musique-rekin batera.

Koreografia: Thierry Malandain

Musika: Frédéric Chopin

Erritu

KUKAI DANTZA

Lankidetzak BALLET T proiektuan Kukai konpainiarekin (2018ko Espainiako Dantza Sari Nazionala), 2018ko dFERIA diseinaturiko DPRODUCCIÓN proiektuaren emaitza.

Koreografia: Sharon Fridman

Musika: Luis Miguel Cobo

Janeten titia

ERTZA DANTZA

2018ko dFERIA diseinaturiko dPRODUCCIÓN proiektua.

Koreografia: Asier Zabaleta eta dantzari taldea

Musika: J hana Beat

Erlauntza / El enjambre

VAIVEN TEATRO / ANTZ3RKIZ

Antzerkigintza berriak proiektuaren baitan aukeratutako testua, Vaivén, Bilboko Arriaga Antzokia, Gasteizko Principal Antzokia eta Victoria Eugenia Antzokia ekoizle (ANTZ3KIZ)

Eszena-zuzendaria: Mireia Gabilondo

Autorea: Kepa Errazti

Galerna

PABELLON 6 / ANTZ3RKIZ

Antzerkigintza berriak proiektuaren baitan aukeratutako testua, Vaivén, Bilboko Arriaga Antzokia, Gasteizko Principal Antzokia eta Victoria Eugenia Antzokia ekoizle (ANTZ3KIZ)

Eszena-zuzendaria: Ramón Barea

Autorea: Tamara Gutiérrez

IZAR

MARIE DE JONGH

Lankidetzak Marie de Jongh-ekin, zeinak Haur eta Gazteentzako Espainiako Arte Eszenikoen Sari Nazionala irabazi baitzuen 2018an.

Eszena-zuzendaria: Jokin Oregi

Autorea: Jokin Oregi

El Museo de la Ficción,

MATÍAS UMPIÉRREZ / Rolex Arts Initiative / DK

Matías Umpiérrez eta Rolex Mentor and Protégé Arts Initiative-ren arteko lankidetzak

Eszena-zuzendaria: Matías Umpiérrez

Sorkuntzaren autorea:

Matías Umpiérrez



Erritu

Sentsibilizazioa

Prestakuntza-jarduerak eta arte eszenikoetan sentsibilizatzeko jarduerak, horra gure Unitatean modu berezian zaintzen dugun ardatza, urtean 6.867 lagun mugiarazten dituen topaketa, lantegi, *masterclass*, truke eta abarren bitartez.

Dramaturgia berriak

Dramaturgia berriak Donostia Europako 2016ko Kultur hiriburuaren ondarea da, eta Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta Gasteizko Principal Antzokiarekin batera daramagu aurrera. Programaren helburua sortzaileen eta dramaturgoen sare bat sortzea da, zertarako eta, ohiko bakar-lana eta hain ohiko ez den talde-lana konbinatuta, material dramatikoaren harrobia osa dezan, antzerki-konpainientzat eta sorkuntza eszenikoarentzat erreferente izango dena. Orobat, ekinbide honen helburua antzerki-testu berriak sortzea da; testua, partitura gisa ulerturik, zuzendari bati ematen zaiona eszenara dezan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere zortzi, obra dramatiko bat garatu beharko dute lau hilabeteen, arte eszenikoetako profesionalen gidaritzapean: Patxo Telleria eta Mireia Gabilondo.

Kimu

KIMU Donostia Europako 2016ko Kultur Hiriburuaren ondarea da, eta Euskal Kultur Elkartearekin batera daramagu aurrera. Helburua haurrentzako autoheziketaren munduan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere lau, diseinaturiko autoheziketaren plana garatu beharko dute, plan horregatik eta beren CVagatik hautatuak izan ondoren proiektuan parte hartzeko. Partaide bakoitzak gaien espezialista den norbaiten laguntza izango du, aitapontekoa izango balu bezala.

Sareko lana

Sareko lana beste ardatz bat da Antzerki eta Dantza Unitatean. Programa asko, edo proiektu zein ekitaldi asko, erakunde publiko nahiz pribatuekin lankidetzan egiten dira; hainbat erakunde edo errealitatetako kudeatzaile, artista eta sortzaileekin lankidetzan. Batasunak indarra dakar, eta hortik dator urtez urte aurkezten ditugun programen sendotasuna. Erregulartasuna eta iraunkortasuna dira epe ertainean emaitza sendoak lortzeko bermea.



© Oskar Moreno

Museo de la ficción



© Gorka Bravo

dFERIA



© Gorka Bravo

dFERIA

ANTZERKIA ETA DANTZA

LANAK

EMANALDIAK

IKUS-ENTZULEAK

ORDU GAZTEA

ANTZERKIA

GUZTIRA 131 208 47.521 433

Neguko denboraldia

Antzerki Profesionala Euskaraz 13 23 4.585 88

Antzerki Profesionala Gazteleraz 34 62 18.963 321

Haurrentzako Antzerkia Euskaraz 23 28 5.992

Haurrentzako Antzerkia Gazteleraz 2 3 425

Klub Aretoa Gazteleraz 2 5 221 24

Klub Aretoa Euskaraz 1 2 94

Antzerki amateurra Euskaraz 23 23 3.719

Antzerki amateurra Gazteleraz 15 15 1.484

Eskolatik Antzokira 6 33 7.702

Kale antzerkia Euskaraz 7 7 2.186

Kale antzerkia Gazteleraz 1 1 275

Kale antzerkia testurik gabe 4 6 1.875

GUZTIRA 18 82 20.542 357

Udako denboraldia

Antzerki Profesionala Euskeraz 3 12 2.186 61

Antzerki Profesionala Gazteleraz 13 60 17.595 296

Club Aretoa Euskaraz 2 10 761 2

ANTZERKIA ETA DANTZA

	LANAK	EMANALDIAK	IKUS-ENTZULEAK	ORDU GAZTEA
--	-------	------------	----------------	-------------

DANTZA

GUZTIRA	48	56	15.426	106
Dantza Profesionala	43	48	14.826	99
Klub Aretoa	5	8	600	7

LIRIKA

GUZTIRA	0	0	0	0
MUSIKALA	3	13	4.408	108
GUZTIRA	3	13	4.408	108
ZIRKUA	3	3	598	
GUZTIRA	3	3	598	

JAIALDIAK

GUZTIRA	66	86	12.654	
dFERIA	34	34	8.399	
Poltsiko Antzerkia	14	33	3.343	
Gazteen Antzerki Topaketa	18	19	912	

BESTE JARDUERA BATZUK	JARDUERAK	EGUNAK	PARTE HARTZAILEAK
GUZTIRA	46	158	6.867
DANTZA	46	158	6.867
ANTZERKIA	0	0	0

Lugaritz eta Egiako datuak barne.



Agnes Varda, Nosferatu Zikloa

kus-entzunezkoen emanaldiak etengabe izaten dira Donostian urte osoan zehar, eta Donostia Kultura eragile publiko dinamizatzaile handiena da, ezbairik gabe, kopuruari eta askotarikoari dagokienez, dela antolatzaile gisa, dela orotariko kolektiboan laguntzaile gisa.

Horrez gainera, ondo asko sendotuta geratu da 2018an beste eragile batzuekiko koordinazioa, "pantaila publiko partekatua" kontzeptua ikusgai jartzearen bidez, Tabakalerako areto nagusian ikusi ahal izan denez. Han

modu koordinatuan egiten da Nosferatu zikloa azken urteotan. 2018an, arrakasta handia izan du **Zinea eta Distopia** izeneko zikloak, eta udazkenean, berriz, **Agnés Varda** zinegile frantsesari eskainitako atzera begirako garrantzitsua hasi zen. Ez dezagun ahaztu ziklo horiek Donostiara ez ezik harago ere iristen direla, lan-kidetza bideak baitira Valentziarekin (Filmoteka), Iruñearekin (Filmoteka), Gasteizekin (Montehermoso Kulturunea).

Donostia Kulturak 2018an diruz lagundutako Zinemaldien artean, **Dock of the Bay** dokumental musikalen zinemaldiaren beste edizio bat egin da; bai eta **Nazioartekio Itsaspeko 41. Zinema Zikloa** eta film laburrei eskainitako **Donoskino** ere. Berritasun bat aipatzeko, azaroan **FICA** jaio zen, **Nazioarteko Atletismo Film Festibala**, oso menu interesgarriarekin, ema-



Dock of the Bay, Kartela



Donoskino, Kartela



Fiz Puro, Maratoia. FICA

naldiak eta kirol munduko izen handi gonbidatuak konbinatuta.

Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak sustaturik, berriz, **Korner** jaialdia sortu zen, Kultura eta Futbolari eskainia, zeinean zineak oso leku garrantzitsua izan baitu.

Antzoki Zaharrak bigarren aldiz hartu zuen **Beste Begiradak** jaialdia, haur eta gazteentzat egindako zine amateurrari eskainia. Etorkizuneko ikus-entzule eta sortzaileekiko lan hori egiten da, halaber, **Euskara Zine Aretoetara** programan ere. Tinkorekin itundutako programa da, eta milaka ikasle jartzen ditu pantaila handiaren aurrean ikasturte osoan zehar.



A través del fútbol. Korner

Helburu gisa edota beren mezua hedatzeko asmoz ikus-entzunezkoa erabili duten beste kolektibo izaera sozialagoko batzuei ere lagundu zaie: **Atzegi, Gehitu-Premio Sebastiane, Bideak Zabalduz** ekinbidea, **Manos ke rien**, eta **Emakumeen Etxea** (VII. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz: Jane Campion).

Antzoki Zaharrak mendi-zineari eskainitako begirada hartu zuen **Club Vasco de Camping**en zenbait jarduerarekin (besteak beste, Menditour), bai eta, bigarren urtez jarraian, **Club de Creativosek** Donostian egindako kongresuarekin batera emandako proiektzioa ere. **Kresala zineklubak** ere bere ohiko saria eman zuen urte hondarrean, film batekin batera. Eta EITB-rekin batera, **Gu, Laboa** dokumentalaren aurrestrenaldiko gala antolatu genuen Victoria Eugenia Antzokian.



El piano. Ciclo Jane Campion

Ez dauzkagu ahazteko **Bang Bang Zinemaren** bi hilez behingo proiektzioak Antzoki Zaharrean, zeinetan aretoa erabat betetzen baita esperientzia ludiko eta kolektiboa bizi nahi duten ikus-entzulez, film mitikoak, perfor-

manceak eta zozketak eskaintzeko, guztia giro ezin hobean.

Beste programazio batzuei ere lagundu zaie: **Zinema Hondartzan** Aste Nagusian, **helduentzako ani-**

mazio-ziklo bat San Telmon, eta euskarazko filmen kultur banaketarako **Filmazpit** programaren jarraipena (2018an emanaldi berezia izan zen Euskaraldia zela-eta): horiek osatzen dute gure Zine Arloaren lan-urtea.

	Egunak	Saioak	Ikusleak euskarazko saioetan	Ikusleak gaztelerazko saioetan	Ikusleak ele biko saioetan	Ikusleak guztira
GUZTIRA		156	17.458	22.580		40.538
Nosferatu	24	24	484	2.336		3.320
Beldurrezko eta Fantasiarazko Zinema Astea	8	36	2.320	7.836		10.156
Giza Eskubideen Zinemaldia	11	30	5.910	3.860		9.770
Dock of the Bay	4	8	0	2.286		2.286
Bang Bang	4	4	0	1.430		1.430
Tinko	26	26	7.226	0		7.266
Saio bereziak	24	28	1.478	4.832		6.310



Errege Magoak

ERREGE MAGOAK

2

018an, Erregeak Urumea ibaitik jaitzita iritsi ziren Donostiara. Lehorreratzea Frantzia pasealekuan izan zen, han jarritako Gabonetako azoka bisitatu ahal izateko.

Ondoren, eta aurreko urtean bezala, Erregeek Donostiako auzo batzuk bisitatu zituzten. 2018an, Gros, Bidebieta, Intxaurrondo, Amara eta Antigua bisitatzeko interesa agertu zuten, eta hara abiatu ziren, errege-postari batzuk lagun zituztela, zeinek agurtzera hurbildutako haur guztien gutunak jaso baitzituzten.

15:30etan, ohi bezala, Udaletxeko harrera-ekitaldia hasi zen; 17:30ak arte iraun zuen, eta, atsedenaldi labur baten ondotik, 18:00etan, desfileari ekin zitzaion, hiriko erdialdeko kaleetan barrena. Desfilea amaitu ondoren, Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.



Gainera, Erregeek Altzako auzoa bisitatu zuten, eta han Casares Kultur Etxera hurbildutako haur guztiak hartu zituzten.




Haur Danborrada

HAUR DANBORRADA

Haur Danborrada aurkezteko festa urtarrilaren 18an egin zen, ostegunarekin, Victoria Eugenia Antzokian.

Urtarrilaren 20an, eguerdiko 12etan, desfilea hasi zen Alderdi Ederretik, eta erdialdeko kaleetan barrena ibili zen. Hari buru emanez, karro-

za, gure hiriko gizarte zibilaren XIX. mendeko ordezkaritza bat zeramala. 2018an, berritasun bat: alkate andrearen figura gehitu zitzaion.



8.046 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak.



Banderaren Jaitsiera, Konstituzio Plaza


HELDUEN DANBORRADAK

8.000 lagun inguruk mukuru bete zuten Konstituzio Plaza, San Sebastian egunari hasiera ematen dion bandera jasotzean izateko.

Ekitaldi jendetsu hartan, 105 lagunek hartu zuten parte, hiriko auzoetako danborraden ordezkariak denak ere, Kresala Dantza Taldearekin batera.

Hiriko auzo batzuetan ere egin zen bandera jasotzea, eta, urtero bezala, jendetza handia bildu zuen.

Patroiaren jaiari amaiera emateko bandera jaistean -zeinean, 2018ko ediziotik aurrera, nahi duten danborraden ordezkariak parte hartu ahal izango baitute-, 79 lagunek hartu zuten parte.



DONOSTIAKO KALDEREROAK

Otsailaren 3an, Kaldereroen konpartsa tradizionalako 19 tribuek beren ibilia egin zuten Parte Zaharreko kaletan barrena, eta Konstituzio Plazan paratu zuten kanpamendua.

Ia auzo guztiek dute kaldereroen konpartsa. Aiete, Altza, Amara, Antigua, Erdialdea, Egia, Gros, Herrera, Loiola eta Parte Zaharrak, gainera, inauteriak iragartzen dituzte.


ERREGINA:
NAGORE MARTÍNEZ

DAMAK:
NEREA VESGA, VANESA CASTAÑO
(KUKAI dantza-konpainiako kideak)



Kaldereroak

Parte Zaharreko kaldereroak



Auzoetako kaldereroak



Kaldereroak



Inauteriak

INUDE ETA ARTZAINAK

Zenbait auzotan, inude eta artzainen konpartsak irten ziren.



otsailak 4

Parte Zaharra
Kresala Elkarte

Gros
Groseko Artzain eta Iñudeak "Artainu"

Amara Berri eta Loiolako Erribera
Ikasbide Guraso Elkarte



otsailak 10

Antigua
Antiguotarrak Dantza Taldea




Iñude eta artzainak

INAUTERIAK

Jarduera nagusiak otsailaren 8tik 12ra bitarte egin ziren.

Momo jainkosarena Amaia Díezek egin zuen, bere segizioarekin: Ione Díez, Jorge Perez eta Rosa García. Denak ere Intxaur Txiki konpartsako kideak.



Donostiako auzo batzuetan ere -Altza, Bidebieta eta Intxaurrondon- ospatu ziren inauteriak, eta zenbait jarduera programatu ziren hartarako. Besteak beste, Altzako Piñataren igandea, non 26 taldek hartu baitzuten parte.



San Juan Bezpera



SAN JUAN BEZPERA

Urtero bezala, ekainaren 23an, 19:00etan, alkateak eta zinegotziek agintarien soka-dantzan jardun zuten Konstituzio Plazaren erdian ipinitako lizar baten inguruan, Goizaldi Dantza Taldea eta txistularien udal banda lagun zituztela.

Hiriko auzo batzuek ere ospatu zuten jai hori. Batzuek, beren jaien programaren barruan.

San Juan bezperaren ospakizuna auzoetan

Aiete	Intxaurrondo	Parte Zaharra
Amara	Loiola	Sagues
Amara Zaharra (2)	Martutene (2)	Txomin
Antigua (2)	Morlans	Bidebieta
Oleta	Herrera	Igeldo

ASTE NAGUSIA

Abuztuaren 11tik 18ra bitarte ospatu zen, eta 400 jardueratik gora egin ziren: musika, kirola, jai-girokoak... gustu eta adin guztientzako modukoak. Berdintasuna, ingurumenaren eta elikagaien iraunkortasuna, irisgarritasuna, berdinen eta desberdinen alderako errespetua, euskararen sustapena, elkartasuna, osasuna eta haren sustapena gure erkidegoan, hiri-espazioaren zaintza... horra zein ardatzen inguruan osatu zen jaien programa.

“Artillero” kantak ematen dio hasiera jaiari, eta Asoleus eta Helduak elkar-teetako ordezkariak kantatu zuten, biak ere hainbat jatorritatik etorritako donostiarrek osatuak; bai eta SONAKAY musika-taldeak ere, zeinak, kanoikada baino lehen, “Artillero”ren bertzio flamenkoa interpretatu baitzuen.

Herritarrek hain ondo hartu zuten Aste Nagusia auzoetara eraman izana, 2018an, Amara, Antigua eta Grosen ez ezik, Altzan eta Intxaurrondon ere izan zen jai-programaziorik.

Erraldoi eta buruhandien konpartsa berriro joan zen Amara, Antigua eta Groseko auzoetara; Altzan eta Intxaurrondon, berriz, suzko zezena izan zuten jostagarri.



Sonakay, Artillero

Saguesko kontzertuak izan ziren errek-lamo nagusietako bat; 74.000 lagun izan ziren haietan. Azpimarratzekoa gastronomia-lehiaketetan eta auzoetan programaturiko jardueretan izan zen jendetza.

Ikuskizun piromusikala, jaien asteari amaiera ofiziala ematen diona, Martin Hildebergerek egin zuen 2018an (Göteborgs Fyrverkerifabrik), zeina munduko piromusikal-diseinatzaile onenen artean baitago. Dotorea, kolo-

retsua eta ikusgarria izan zen, eta orain arte programaturiko piromusikalen aldean desberdina. Soinuen hedapena, koloreen konbinazioa, aukeratutako musika... denak lagundu zuen Aste Nagusiari buru ematen dion ekitaldi handia jendetsuena eta txalotuena izan zedin.

Aste Nagusiko Sariak

Herri-kirolak

Igeldoko Haria: irabazle, Mikel Lopetegi “Urra”

Urrezko Kopa: irabazle, Aitzol Atutxa

Aste Nagusiko XI. Marmitako Saria

Bikote irabazlea: Iker Uriarte eta Gabriel Guiu

Bertako produktuak erabiliz egindako Gazteentzako VII. Lehiaketa Gastronomikoa

Bikote irabazlea: Ainhoa Artola eta Ane Acha

Aste Nagusiko I. Lehiaketa, legatza saltsa berdean

Bikote irabazlea: Maite eta Nieves Labaca

Aste Nagusiko II. Paella Lehiaketa

Bikote irabazlea: Txomin Ruiz de Gauna eta David Barbero

Aste Nagusiko II. Lehiaketa, arkume-menestra

Bikote irabazlea: José Manuel Irigoyen eta Tomás Nuñez

Aste Nagusia
(abuztuaren 11tik 18ra)

Ikusleen zenbatespena
1.278.000

Agertokiak
30

Jarduerak
+ 400



Su artifizialak

SU FESTEN NAZIOARTEKO 55. LEHIAKETA JAIALDIA

Zazpi enpresa piroteknikok (lau espainiar eta hiru atzerritar) hartu zuten parte aste osoa iraun zuen lehiaketan.

2018ko edizioan sari berri bat izan zen, “hasiera ikusgarriari” emana: Lehiaketan parte hartu zuten etxe guztiek ekin zioten badia erdian kokatutako plataformatik. Hasierarentzako saria epai-mahai ofizialak eman zuen, Alemaniako First Class pirotekniari, hain zuzen ere.

“Aste Nagusiko Su Festen IV. Argazki Lehiaketa” Sonia Urreiztiren “Flor” izeneko argazkiak irabazi zuen; hori izango da su-festen nazioarteko lehiaketaren 56. edizioko kartel iragarleko irudia.

EUSKAL JAIK

Abuztuaren 30ean hasi ziren, emakumeen eta gizonezkoen sailkapen-estropadekin, eta 9an amaitu ziren, igandean, Bretxako aterpean egindako herri-sardinadarekin.

Bi egun horien artean, gure kulturarekin zerikusia zuten 66 jarduerak osatutako programa bat, era guztietako jendearentzat: kirola, gastronomia, folklorea, kultura...

Nabarmentzekoa Trinitate plazan Gero Axular dantza-taldeak eta Araoz eta Easo abesbatzako Easo Txiki abesbatzek emandako ikuskizuna.

2018an, gainera, eskulangileen merkatua izan genuen Frantziako pasealekuan, bertako eskulangileen produktuak sustatzeko xedez, non zenbait lantegi eman baitziren. Pasealeku hartan jarri zen haurrentzako feria ere.

Su Festen Nazioarteko 55. Lehiaketa Jaialdia (Abuztuaren 11tik 17ra)

Ikusleen zenbatespena 650.000

-  **Urrezko Maskorra:**
Hermanos Caballer
-  **Zilarrezko Maskorra:**
First Class
-  **Brontzezko Maskorra:**
Parente
-  **Gazteriaren Saria:**
Parente
-  **Herri Epaimahaiaren Saria:**
Peñarroja



Parte hartu zuten pirotekniak

- Esteban Martín**
(Granada)
- Hamex**
(Eslovenia)
- Caballer FX**
(Valentzia)
- Parente**
(Italia)
- First Class**
(Alemania)
- Xaraiva**
(Ourense)
- Hermanos Caballer Pirotécnicos S.L.**
(7. Castelló)



Donostiako Estropadak - Emakumeen Estropada

ESTROPADAK

Bi banderak, emakumeena eta gizonetzkoena, parte-hartze baldintza berdinetan egin ziren: sailkapenerakoa abuztuaren 30ean, eta lau partaideko bi txanda hurrengo bi igandeetan, irailaren 2an eta 9an. Ziaboga bakarrera jokatu ziren, emakumeena 1,5 itsas miliako luzerakoa, eta gizonetzkoena 3 itsas milakoa.

2018an, gainera, sarien dirutza berdina izan da bi modalitateetan. Orobat, "Enpresa Kultura Berriaren III. Adegia Saria" eman zitzaizkien estropaden bi egunetan guztira denborarik onena egitea lortu zuten emakumeen eta gizonetzkoen traineru gipuzkoarrei.

"Ciudad de San Sebastián" katamarana izan zen banderak emateko aukeraturako lekua, Donostiako kaian.

Donostiako estropadak (abuztuaren 30ean eta irailaren 2an eta 9an)

Ikusleen zenbatespena 25.000 lagun eguneko

Kontxako XI. Bandera (emakumeentzat)

Traineru parte-hartzaileak: 17

Sailkatuak:
Club de remo náutico de Riveira
Gu-Arraun
Hibaika jamones Ancin
Kaiku Producha
Orio - Babyauto
San Juan Iberdrola
Tolosaldea

Horiekin batera, Kai Arriba klubaren "Donostiarra" trainerua ere aritu zen, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea: San Juan - Iberdrola

Kontxako Bandera (gizonetzkoentzat)

Traineru parte-hartzaileak: 25

Sailkatuak:
Bermeo-Urdaibai-Echebaster-Avia-Campos-Enagas
Cabo
GO fit Hondarribia
Orio-Babyauto
Sanpedrotarra A.E.
Santurtzi-Iberdrola
Zierbena bahias de Bizkaia

Horiekin batera, Kai Arriba klubaren "Donostiarra" trainerua ere aritu zen, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea: GO fit Hondarribia

INPROBISATZAILEEN BIRA

Urriaren 14an, 19:00etatik aurrera, Antzoki Zaharrean, "Inprobisatzaileen bira"ren amaiera-gala egin zen.

Honako hauek hartu zuten parte: Tomasita Quiala (Kuba), Araceli Argüello (Argentina) eta Amets Arzallus, Jone Uria eta Julio Soto (Euskal Herria).

Ikus-entzuleek hizkuntza eta estilo desberdinetan kantaturiko bertsoaz gozatze-ko aukera izan zuten.

300 lagun izan ziren galan.



Santo Tomas Feria

SANTO TOMAS FERIA

Donostia azoka handi bat bihurtzen da egun horretan; txistorra izaten da protagonista, eta 205 postu jaien ingurune osoan, era guztietako produktuekin. Azokaren egunaren osagarri, era guztietako jendearentzako programazioa izan zen, non ez baitziren falta izan herri-kirolak (pilota, aizkolariak), haurrentzako lantegiak,

abere-erakusketa, txistorra-, fruta-eta barazki-lehiaketak... ez eta “Base-rritar-Jantzien II. Lehiaketa” ere.

Emakumeen kirolarekin dugun konpromisoari erantzunez, “ESKU PILO-TAKO III. TXAPELKETA” eta aizkolarien “III. URREZKO KOPA” egin ziren, eta ikus-entzule asko bildu zituzten.

Ezin ahaztu azokako protagonista nagusia: Gilda, 340 kilotik gorako urdemea, zeina egun osoan ikusgai egon baitzen Konstituzio Plazan.

Hamar auzok hartu zuten parte azokan, zenbait jarduera antolatuz: Amara Berrri, Amara Zaharra, Bidebieta, Antigua, Gros, Ibaeta, Ipar Intxaurrenondo, Hego Intxaurrenondo, Loiola eta Morlans.

Ikusleen zenbatespena 80.000 pertsona

Urdemea "Gilda"
Jatorria: Leitza
Pisua: 340 kg.

205 Postu

Adin txikikoen arteko alkohol-kontsumoak sorrarazten duen kezka dela-eta, 2018an aldatu egin ziren txistorra saltzeko postuak izateko baldintzak, eta zera zehaztu zen: DBH eta Batxilergoko ikastetxeei emandako postuetan ezingo zela alkoholik saldu. Neurriak harrera ona izan zuen, eta alkoholaren ordez freskariak, ura, zukuak... jarri ziren salgai.



Olentzero eta Mari Domingi

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Abenduaren 24an, urtero bezala eta hutsik egin gabe, Olentzero eta Mari Domingi Urgull menditik jaitsi ziren, ongi etorria egitera hurbildutako haur guztiak agurtzera.

Bost txotxongilo erraldoi zihoa-zen taldeburu, trikitalari eta pande-

ro jantzia, Udaletxerainoko bidea irekiz, non haurrek beren gutunak eman baitzizkieten.

Bien bitartean, Eskola eta Gero Axular dantza-taldeek zenbait jarduera egin zituzten Udaletxe aurreko terrazan (baserritar jantziaren zapia

behar bezala ipintzeko lantegia, marrazki-lantegia, ogi eta gaileten lantegia, dantza tradizionalak...)

18:30etan, Olentzero eta Mari Domingiren gurdiak erdialdeko kaleetan barrena desfilatzeari ekin zion, artzainak, galtzagorriak, abereak, farolzainak eta Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileak ondoan zituela ibilbide osoan ordura arte entregatu ezin zituzten haurren gutunak biltzeko.



EGUBERRIAK

2018an ere, Festak unitatea Donostia S.A.rekin lankidetzan aritu zen, "Gabonetako III. Azoka"n izan ziren su-festak antolatzeko. Abenduaren 1, 24 eta 31n eta 2019ko urtarrilaren 5ean.

DONOSTIAKO AUZOETAKO JAIK

Festak unitateak kudeatzen ditu jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz.

Jaien Izena	Datak
ANTIGUAKO JAIK	URTARRILA 11-27
IBAETAKO JAIK	OTSAILA 24 / MARTXOA 1-5
TXANPONTXO JAIK - BIDEBIETA	MAIATZA 10-14
MORLANSEKO JAIK	MAIATZA 18-20
LARRATXOKO JAIK	EKAINA 7-11
AMARA BERRIKO FESTAK	EKAINA 15-17, 23
ANTIGUAKO SAN JUAN JAIK	EKAINA 14-17 / 20, 22, 23
OLETAKO SAN JUAN JAIK	EKAINA 18-21
HERRERAKO JAIK	EKAINA 9-23
SAN JUAN JAIK - INTXAURRONDO	EKAINA 21, 23
INTXAUR JAIK - INTXAURRONDO	EKAINA 29,30/ UZTAILA 1
ALTZAKO SAN MARTZIAL JAIK	EKAINA 22-24 / 28-30 / UZTAILA 1-2
IGELDOKO SAN PEDRO JAIK	EKAINA 17, 22, 23, 24 28, 29, 30 / UZTAILA 1, 2
KARMENGO JAIK - KAIA	UZTAILA 12-16
AÑORGAKO FESTAK	UZTAILA 7-8 / 12-16
AMARA BERRIKO KARMENGO JAIK	UZTAILA 13-14
GROSEKO ZIPOTZ JAIK	UZTAILA 12-15
ZUBIETAKO JAIK	UZTAILA 25-31
AMARAKO JAIK	UZTAILA 27-31
LOIOLAKO SAN IGNAZIO JAIK	UZTAILA 28-31
AÑORGA TXIKIKO JAIK	ABUZTUA 31- IRAILA 1, 2

TXOMIN -ENEAKO JAIAK	IRAILA 7-9
INTXAURRONGO ZAHARREKO JAIAK	IRAILA 13-16
PORRONTXO JAIAK - EGIA	IRAILA 10-16
JOLASTOKIETAKO JAIAK	IRAILA 10-16
LOIOLAKO ERRIBERAKO JAIAK	IRAILA 14-16
AIETEKO JAIAK	IRAILA 7-9 / 13-16
MARTUTENENKO JAIAK	URRIA 11-14
AMARA BERRIKO JAI HERRIKOIAK	URRIA 11-14

BESTE JARDUERA BATZUK

Festak unitatetik, behar ziren baimen eta zerbitzuak kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkartet proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

7
Etxe erregionalek jaiak

Beste lankidetzak batzuk
47

Minbiziaren kontrako lasterketa
Casal de Catalunya - Calçoten denboraldia
Liburu zahar eta berrien azokak.
Donosti CUP
Gipuzkoako marinel zharrei omenaldia
Txakoli eguna
Zipristin - Tamayo Pintura Lehiaketa
XXI Rallye histórico Vasco-Navarro
Santa Ageda
Sagardo Apurua
...

SENIDETZEAK

Marugame: Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako.

Akitania Berria Euskadi

Nafarroa, Kantatzen duen herria

Ekainaren 9an, Donostiako Easo Abesbatzak eta Baionako Aizkoa abesbatzak kontzertu ibiltaria eman zuten Donostiako Parte Zaharreko kaleetan barrena, euskal folklореko kanta sorta bat eskainiz. Ekitaldi hori "Eurorregioa" proiektuaren barruan izan zen.

ESKERRAK BABESLEEI

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, berak gabe zenbait jarduera egin ezinik geratuko baikin: Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, Urbycolan, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGI...



EL DIARIO VASCO







© Guille Garca

Cécile McLorin Salvant

K

Kalitate artistiko gorenaren eta entzuleen harrerasutsua erdietsi ditu 53 Heineken Jazzaldia

Aurtengoan izarrak lerrokatu dira eta itzelezko artista mordoa izan dugu 53. Heineken Jazzaldian. Horrexegatik, zaila da bakar batzuk nabarmentzea. Azken urteetako ediziorik borobilenetakoa izan da musikari dagokionean eta entzuleriak gogotsu erantzun du, beste behin ere.

Ordainpeko eta doako kontzertuek **171.500 pertsona** bildu dituzte. 153.000 izan dira doako emanaldietan eta 18.500 ordainpekotan.

Kontzertu batzuk gogoan iltzatuta geratuko zaizkigu. Trinitate Plazan uztailaren 27an bizi izan genuena ez zaigu berehalakoan ahaztuko. Erabat bat eginda eta sormenaren puntan ikusi genituen **Dave Holland**, **Zakir Hussain** eta **Chris Potter** maisuek lezio ederra eman ziguten. Gauaren bigarren zatian, erabat sorgindu gintuen **Cécile McLorin Salvant** kantariak. Ahots xarmagarria du, teknika

menperatzen du, eta sentikortasuna eta alaitasuna borborka dario. Eta Trinitate Plazako entzuleriak, liluratuta, gogoz txalotu zuen.

Uztailaren 29ko emanaldia ahaztezi-na izango da. Bikain amaitu genuen jaialdia. Arratsaldean, Kursaal Auditorioan, **Gregory Porter**-ek Nat “King”

Cole-n kantuak eskaini zituen, Arkaitz Mendozak zuzendutako Orkestra paregabeak lagunduta. Kontzertu hunkigarria izan zen, barruraino iristen zaizun horietakoa. Porter-ek ilea lastu zigun oraingoan ere, baina kasu honetan Nat “King” Cole handiaren kantuak bere eginda. Gauean **Yann Tiersen**-en txanda iritsi zen, piano emanaldi fin



© Lolo Vasco

Rubén Blades

Gregory Porter



Chick Corea

eta dotorea. Trinitate Plazan **Chick Corea** gure lagun zaharrak, **John Patitucci** eta **Dave Weckl**-ek osatutako hirukotea akustikoan aritu zen, elkar ulertze erabatekoan, dena emanda. **Curtis Stigers** kantaria puntaren puntan dabil eta entzuleak jakitun dira. Lehen nota abestu orduko poltsikoan sartu zituen.

Kursaal Auditorioko egitarauak lau hitzordu eskaini zituen: **Caetano Veloso** bere semeekin eskainitako emanaldi goxoan haien etxean bagina bezala sentitu ginen; **Brad Mehldau** zale amorratuena ere harritu zituen; **Kenny Barrone** bip bop dotore baino dotoreagoa eskaini zuen, **Gregory Porter**rek Nat "King" Cole bere ahotsaren bidez biziberritu zuen eta **Yann Tiersen**ek piano hutsezko emanaldi borobila eman zuen.

Mary Stallings kantariak, umiltasun osoz, jaso zuen **Donostiako Jazzaldia Saria**. Kantari ona ez dela esan zigun, baina istorioak bihotz-bihotzez kontatzen dituela. Berak hala uste ez duen arren, jazzaren historiaren parte da eta ondo merezita, gainera. **Cécile McLorin** berak Stallings-en jarraitzaile zela aitortu zuen eta Triniko oholtzara gonbidatu zuen berarekin blues bat abestera. Aurretik Victoria Eugenia Antzokian emanaldi beroa eskaini zuen Stallings-ek, handikeriarik gabea. Eta arrazoi du, barru-barrutik, bihotzetik, kantatzen du; zin dagigu.

Michel Portal baionarrak ere **Donostiako Jazzaldia Saria** jaso zuen jaial-



© Lolo Vasco

Gary Clark Jr.

diaren azken egunean eta bi kontzertu eskaini zituen: bata hiruko formatuan **Vincent Pairani** eta **Émile Parisien**-ekin eta bestea Parisien-en Sfumato proiektuko gonbidatu gisa. Portal euskal jazz musikari aitzindaria da, eragin handikoa Frantziako eta Europako jazz zirkuituan, *jazz free*-a Europara ekarri zuen lehen musikarietakoa.

Iñaki Salvadorren taldeak **omenaldi** hunkigarria eskaini zion **Mikel Laboa** euskal kantautore bakan eta apartari, bere heriotzaren hamargarren urtean. Halaber, Victoria Eugenia Antzokiak bi proposamen berezi hartu zituen, ekialdeko eta mendebaldeko musika uztartzen dituzten **Rabih Abou-Khalil** laute-jotzailea eta **Naïssam Jalal** nay (txirula)-jotzailea.

Agertoki Berdean jai giroa nagusitu zen eta jendetza bildu zen. Festa lehertu zen **Rubén Blades** panamarrarekin. Saltsa munduan zehar ezagutarazi duen kantariak hondartza bere egin zuen, erritmo beroz. **Too Many**

Zoos-ek musika urbanoagoa, garaikidea, etenik gabea eta probokatzailerak ekarri zigun. **Izaro** euskal musikako izar berria da, apala bezain liluragarria. **Gary Clark Jr.**-ek argi utzi zuen bluesa duela zainetan. Azken urtean ezustekoa eman du **Morgan** talde espainiarrak eta halaxe utzi zuen Zurriola hondartzako entzuleria: aho bete

Christian Scott



hortz. **Mikel Erentxun**ek bidea urratu du espainiar pop-rockean eta argi utzi zuen aurretik bide luzea duela. **Anna Calvi** saillkaezina da eta ez ditu saillkapenak maite.

Patri Goialde Musikeneko jazzaren historia irakasleak konferentzia bat eskaini du egunero San Telmo Museoa. **Duke Ellington**, **Billie Holiday**, **Charlie Parker** eta **Charles Mingus** izan ditu hizpide eta segidan kontzertu eder bana izan da bost egunez: **Conrad Herwig**, **Carlos Martín**, **Chris Kase** eta **Andrzej Olejniczak**.

Helburua aise bete da Kurasaaleko terrazetan, Nauticool-en eta Alderdi Eder-eko Skoda Gunean: askotariko kontzertuak izan dira eta jende ugari bildu dute, giro ezin hobean. Alderdi Ederrek Trojan Sound System-en, **Dennis Alcapone**-ren eta **Dawn Penn**-en agerraldiak hartu zituen, Trojan reggae diskoetxearen 50. urteurrena ospatzeko.

Jaialdi borobila izan da, aho-zapore gozoa uzten duenetakoa.



© Lolo Vasco

Morgan



Salvador Sobral



© Lolo Vasco

Jacob Collier

ANTZEZTOKIAK

BERTARATUAK

Trinitate Plaza

7.024

Kurasaal Auditorioa

7.909

Victoria Eugenia Antzokia

3.490

San Telmo Museoa

780

Doako kontzertuak (Frigo Antzeztokia, Antzeztoki Berdea, Heineken Terraza, Coca Cola, Konstituzio Plaza eta Nauticool)

153.000

GUZTIRA: 172.203

29

**FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO
ZINEMAREN ASTEA**

**SEMANA DE CINE FANTÁSTICO
Y DE TERROR**

**HORROR AND FANTASY
FILM FESTIVAL**





Inaugurazioa Kalean

Astearen XXIX. edizioa **maila handikoa** izan da sail ofizialean aurkeztutako produkzioei dagokienez, eta ikus-entzuleek ere halaxe hartu dituzte. Orobat, ugaldu egin da erakusketen eta beste

jarduera paralelo batzuen eskaintza, zeinen helburua Astea hiri osora iristea izan baita, ekitaldi kulturaz eta espiritu ludikoz betea, fantasiaren generoaren festa handia.

Mary Shelleyren *Frankenstein* eleberriarren bigarren mendeurrena zelareta, kaleko tailerrak egin ziren, komiki-

eta pintura-erakusketak, argitalpenak eta, jakina, filmen ziklo antologiko bat. Idazlearen irudiak eta haren sorkaria-
ren hainbat agerkerak "kutsatu" zuten zinemaldia, zentzurik onenean kutsatu ere, poster ofizialek beretik hasita.

Beste artista berezi batzuen izenek -hala nola Sandra Arteaga bere *art-*



Frankenstein zikloa



Sandra Arteaga



Errealitate birtuala

boyekin, edo David Aja eta haren superheroiak- gunerik bisitatuenetako batzuk hartu dituzte. Alde horretatik, nabarmendu behar da EHUko campusean gure erakusketa bat egin dela lehen aldiz. Horra beste eragile bat, zinemaldiaren aliatu publiko eta pribatuaren zerrenda luzeari gehitzeko.

Edizio honetako beste berritasun bat izan da **errealitate birtualerako filmaturiko** beldurrezko lanen sail bat sortzea, sarrera doan zuena.

Astea gero eta gehiago hedatzen da probintziara. Aurten, Irunen, Zumarragan eta Oiartzunen izan dira proiektzioak eta beste ekitaldi batzuk.

Horrez gainera, zinemaldiak 2017an produzituriko *Mil gritos en la noche* erakusketa Sitgesko Zinemaldira joan da. Jaialdi garrantzitsu horrekin koordinatu da, halaber, Frankensteinari eskainitako atzera begirakoa ere.



Itxiera ekitaldia

29

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

16

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL





Margolariak erakusketa

Udaleko Giza Eskubideen Arloarekin batera antolatu da zinemaldi hau. 2018an, 16. edizioa egin da. Erreferentea da, eta **gero eta beharrezkoagoa gogoetarako, salaketarako eta dibertsitatea islatzeko.**

Ikus-entzuleek eta epai-mahaiak tortura eta sexu-indarkeria nabarmendu zituzten gaien artean, saritutako film luzeetan, baina beste auzi asko ere jorratu ziren, gonbidatuak eta proiektzioak zirela bide: gaztaroaren eta haurtzaroaren zenbait alderdi, Gazaren blokeoa, mugak, migrazioa eta asiloa edo justizia unibertsala.

2018ko **sari berezia Laurent Cantet** zinegile frantsesarentzat izan zen, filmografia sendoa eta koherentea duelako, ikuspegi humanista nagusi duena.

Zinemaldiak **pedagogia-lana** eginez jarraitu zuen, gida didaktikoak eskaini baitziren ikasleentzat programaturiko film guztiak ikasgeletan lantzeko. Eta ez dira ahaztu behar zenbait kolektibok zinerako irispi-

dea izan dezaten egindako aurrebideak ere (audio-deskribapena, azpidatzi egokituak, emanaldia Martutenen...).

Berritasunen artean, izaera sozialeko ikus-entzunezkoen sail bat ere bazen, denak ere errealitate birtualaren formatuan filmatuak. Sarrera doan zen sail horretara, bai eta au-

zoetako kultur etxeetan izan ziren emanaldi ugarietara ere, zeinak zinemaldian inplikaturiko kolektibok dinamizatu baitzituzten.

2018ko jarduera paraleloen artean sartzekoak dira erakusketa hauek ere: *Eskola bideak*, *Giza Eskubideei begira* eta *Artea* eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen ekitaldia.



Itxiera ekitaldia. Sarituak

dFERIA 2018

TABU | MARTXOA/5-8/MARZO
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

TABU

Antolatzailea / Organizador



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



dFERIA

A

rte eszenikoen feria arrakastatsua izan da, bai publikoari bai kritikei dagokionez eta "sentsazio onekin" amaitu da.

dFERIAko XXIV. edizio honetan, **33 ikuskizunen 37 emanaldi programatu dira 9 eszenatokitan:** Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz), Intxaurren K. E., Kutxa Kultur (Tabakalera), San Telmo Eliza eta Convent Garden-Cripta.

Guztira, 8.400 lagunek programatutako emanaldiez gozatu ahal izan dute eta batez besteko okupazio maila %83koa izan da. Orokorrean, 14.400 lagun baino gehiagok parte hartu dute feria honetan; ikuskizunetako publikoa eta jarduera paraleoetako parte-hartzaileak kontutan hartuta, **aurreko urteko parte-hartzea baino %9 gehiago (zehazki, 1.300 lagun gehiago).** Sarrera salmentari dagokionez, azkeneko urteetako joera mantendu da.

Akreditatuen kopuruari dagokionez, 520 profesional etorri dira guztira. Hala, iazko kopurua %23 handitu da: 184 programatzaile, 60 banatzaile, 181 ekoizle eta konpainien ordezkari, 18 kazetari eta kritikari eta bestelako 77.

Espainia, Polonia, Kroazia, Holanda, Irlanda, Norvegia, Frantzia, Errusia, Danimarka, Uruguai, Argentina, Dominikar Errepublika, Brasil, E.E.B.B., Ekuador, Kosta Rika eta Kolonbiako programatzaileak izan ditugu aurtengo ferian.

- **Sarea bilera: 50 lagun**
- **Topaketak (programatzaile, proiektu edo erakundeen aurkezpenak): 40 lagun.**
- **Topaketak (dFERIAN programatutako konpainien eta elkarten aurkezpenak): 40 lagun.**
- **Ongi Etorri Ardoa: 300 lagun.**
- **dPRODUCCIÓN: 30 lagun.**
- **Matias Umpierrezen Museo de la Ficción Erakusketa: 1.000 lagun.**
- **Matias Umpierrezen "El Museo de la Ficción" aurkezpen orokorra: 250 lagun.**

- **Matias Umpierrezen aurkezpena (azpitoluak ingelesez): 15 lagun.**
- **Matias Umpierrezen aurkezpena (azpitoluak frantsesez): 28 lagun.**
- **Matias Umpierrezen aurkezpena (azpitoluak euskeraz): 10 lagun.**
- **Adostutako topaketak: 10 lagun.**
- **dFERIAk antolatutako bazkaria: 250 lagun.**
- **Territorio Violeta Jaialdiaren aurkezpena: 150 lagun.**
- **Agurra Ardoa: 150M lagun.**
- **Eskenaren Autobusa: 450 lagun.**
- **Eguneko Topagunea: 1.500 lagun.**
- **Gaueko Topagunea: 900 lagun.**
- **Bideratzaileak (Pepa eta Iva): 500 lagun.**
- **dFERIAko prentsaurrekoak: 400 lagun.**

dFERIAKO NOBEDADEAK

dFERIAko azken egunak, Martxoaren 8ko lan uztearekin koinziditu du. dFERIAko parte-hartzaileek emandaliekin jarraitzea erabaki dute, kontzientziario-lanean eragingo duelako, are gehiago kontutan hartuta ikuskizun horietako batzuek emakumea dutela ardatz.

DPRODUCCIÓN. 77 proposamen aurkeztu dira, horietatik lauk izango dute ekimen honen dirulaguntza.

Territorio Violeta Jaialdia, lehen aldiz dFERIAN izan da, bertan programatutako bi ikuskizun saritu eta aipamen berezia egingo die. Territorio Violeta Jaialdia disziplina anitzeko jaialdi bat da, gizarteak eta bereziki Arte Eszenikoek **berdintasunaren alde** egiten duten lanean begirada **jartzea du xedea.**

Aurten, bi gune berri izan dira dFERIAN: San Telmo Museoko Eliza eta Convent Garden-Cripta.

2018ko dFERIA Abroad honako merkatu eta jaialdietan izango da: MAPAS (Mercado de las Artes Performativas del Atlántico Sur) Tenerifen (Espainia), Brasiliako (Brasil) CENA CONTEMPORANEA eta Uruguaiako Festival Cervantinon.

PROGRAMAZIOA

33 ikuskizunen 37 emanaldi programatu dira. Horietatik, %64a modu bateko edo besteko estreinaldiak izan dira:

Estreinaldi orokorrak:

BODORRIO (Hika), EXIT (Compañía La que tú me haces), ENCUENTROS (Denis Santacana) eta NUESTROS BOLEROS PROHIBIDOS (Freddy Ginebra)

Estreinaldiak Euskal Herrian:

CLAUDIA (La Conquesta del pol sud), CONTRAESCENA (The Funamviolistas), LA WAGNER (Pablo Rotemberg), GROWING YOUNG



© Gorka Bravo

dFERIA

(Dantzaz), ENDLESS FALL (Francesc Fernández/Julia Cortés), QUINTETTO (Aldes), TAL VEZ SOÑAR (Factoría Unahoramenos), MAN RAY (Tait Dansa), LUCES DE BOHEMIA (Teatro Clásico de Sevilla), EL HOMBRE NADA (Andy Chango) y SOY UNA FERIA (Maui).

Estatu mailako estreinaldiak:

TERRA (Compagnie Illicite-Bayonne) y DOS HERMANAS (Théâtre des Chimères) Aline Corrêa y TEMPUS FUGIT (cie toula limnaios),


Europa mailako estreinaldiak:

TIJUANA (Lagartijas tiradas al sol) y LA PRIETTY GUOMAN (Cesar Enriquez Cabaret).

Work in progress bat: ERRITU, Kukai.

Aurten bi izan dira euskarazko emanaldiak

Txarriboda, Hika Teatroa. Oxido/ Umore garratza, Pez Limbo.



Diziplinei dagokienez, %40 antzezlanak izan dira, %42 dantza ikuskizunak eta gainerako %18a, diziplina anitzekoak. Jatorriari dagokionez, %51 euskal ekoizpenak izan dira, %19 espainiarak eta %30 atzerrikoak.

ONDORIOAK

dFERIAren azken edizio hau **arrakasta** handiz bukatu da **konpainien maila artistiko handiari** esker. Arte Eszenikoen **sektoreak** feriarekiko **erakutsi duen atxikimendua** handia izan da, eta publikoaren harrera, bikaina.

dFERIAra hurbildu diren ikusle eta profesionalen kopuruak, aurten ere, gairitu egin du aurreikusitakoa. Azpimarratzekoa da **akreditatuen kopurua %23 handitu** dela, 2017 urteari dagokionez, 520 akreditatuekin.

Bestalde, aurkeztutako ikuskizunek **kalitate handia** dute, eta **euskal antzerkiaren eta dantzaren mailaren erakusgarri** izan dira, bai ikusleentzat, bai komunikabideentzat, bai profesionalentzat. Nabarmentzekoa da, halaber, aurten ere **nazioarteko aintzatespena** lortu duten zenbait artista eta ikuskizun izan ditugula gure artean. Duela zenbait edizio finkatutako erronka guztiak gairitu dira, eta, hala, kalitatezko programazio berritzailea eskaini da, orekatua, dantza eta antzerkiari begira. Guztion artean -sektorea, administrazioak, prentsa eta ikusleak-, ezagutzera eman dugu dFERIAk egiten duen lana antzerki eta dantzaren arloa sustatzen eta bistaratzen. dFERIAk ahalbidetu dituen eta oraindik ere ahalbidetuko dituen salerosketen aurreikuspen-datuei begira ere, baikorrak izan gaitzke.

Bestalde, atzerritik etorritako zenbait profesionalak, berriz ere, interes handia azaldu dute euskal antzerkia eta dantza beren herrialdeetan programatzeko.

Horrenbestez, nabaria da dFERIA errotzen ari dela, eta **lau berritasun nagusi** azpimarratuko ditugu:



dFERIA

Espainiako egileen lana sustatzeko SGAE Fundazioarekin luze egindako elkarlanaren emaitza gisa, beste espazio bat sortu da: Antzoki Zaharra-SGAE Fundazioa.

Negoio-foreok profesionalak elkar ezagutu dezaten ahalbidetzen dute, eta proiektu eta ikuskizun berriak sustatzeko aukera eskaintzen dute. Ezinbestekoa iruditzen zaigu lan-ildo hori jorratzen jarraitzea, elkar lanerako eta merkataritza-trukerako bideak zabaltzeko.

Illo horretan, azokak aurten ere bi bideratzaileen lana izan du; izan ere, bitartekari-lanak egin dituzte elkar ezagutzen ez zuten profesionalak harremanetan jartzeko eta haien arteko topaketak bideratzeko. dFERIA pixkanaka-pixkanaka gora doa, gero eta profesional gehiagok parte-hartzen du bertan, eta, horregatik, bitarteka-

ritza-lana gero eta beharrezkoa izango da.

dFERIA ABROAD proiektuaren bidez, bestalde, beste dimentsio bat eman go diogu dFERIAri berari eta haren eginkizunari, aukera izango baitugu urtean zehar munduko beste leku batzuetara joateko eta gure lana zabaltzeko. Elkarlanean arituko gara nazioarteko jaialdi eta azokekin, **euskal konpainien sorkuntza-lanak eza-gutarazteko** eta haientzako merkatu berriak zabaltzeko. Hala egingo dugu aurten: Tenerifeko Mercado de las Artes Performativas del Atlántico Sur, MAPASen izango gara; eta Brasilgo, CENA CONTEMPORÂNEAn, Brasiliako Nazioarteko Antzerki Jaialdian.

dFERIA errotzearen aldeko erronka honetan berebiziko garrantzia du, orobat, aurreko edizioetan emaitza interesgarriak ekarri zituzten berrita-

sunak indartzea eta sendotzea; hala, aurten, besteak beste:

- **Azpitulua erabili** ditugu euskal konpainien lau testu obretan Etxepare Institutuari esker.

- Kutzak Tabakaleran duen gunea erabili dugu eguneko topagune gisa.

Amaitzeko, zinez eskertu nahi ditugu azken urteetan lankide izan ditugun administrazio-erakundeak: **INAEM, Eusko Jaurjaritza** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**.


Halaber, ezin aipatu gabe utzi **KUTXA, SGAE Fundazioa, Etxepare Instituta, Nafarroako Gobernua, OARA** (Office Artistique de la Région Aquitaine),

IBERESCENA (Fondo de Ayudas para las Artes Escénicas Iberoamericanas), **COFAE** (Coordinadora de Ferias de Artes Escénicas del Estado) eta **AC/E** (Acción Cultural Española bere PICE Espainiar Kultura Nazioartekotzeko Programaren bitartez, atzerriko 16 profesionalak izan dute edizio honetan parte hartzeko aukera Bisitariak modalitatean) erakundeen ezinbesteko lankidetzak.

Urtero bezala, bereziki eskertu nahi dugu euskal antzerki eta dantza konpainien parte-hartze aktiboa, oro har, eta, zehazki, Euskal Antzerki eta Dantza Konpainien Elkartearena (**Eskena**) eta Euskal Aktoreen Batasunarena (**EAB**), hala nola **Artez aldizkari**arena.

Bestetan bezala, haiek guztiek euren alea jarri dute aurtengo edizioa aurrera eramateko, eta ahalegin berezia egin dute, besteak beste, baita ekonomikoki ere.

Esker ona adierazi nahi diegu, halaber, komunikabideei eta bertako profesionali dFERIAri emandako babesagatik, eta, azkenik, eta batez ere, publikoa eskertu nahi dugu: izan ere, azken urteetako joera jarraituz, haiei esker ikuskizun-aretoak beteago daude urtetik urtera, eta hori ezinbesteko erronka eta akuilu bihurtzen da etorkizuneko edizioak antolatzeaz begira.






LITERAKTUM



Reyes Monforte eta Alicia San Juan



inazea izan zen gaia, eta 10.867 lagunaren arreta erakarri zuen Literaktumen 2018ko ediziora.

33 jarduerak osatu zuten programazioa (tartean, haurrentzako lau), eta 54 gonbidatu izan ziren. Jaialdia azaroaren 13tik 24ra egin zen, eta zenbait mugarri izan zituen. Esate baterako, **Nacho Carretero** eta **David Truebaren**, **Ramon Saizarbitoria** eta **Iban Zalduaren** eta **Manuel Vilas** eta **Juan José Millásen** hitzaldietan bete egin zen aretoa. Orobat, **Martuteneko kartzelan**en estreinaldiak bete egin zuen Loiolako areto nagusia, bai eta **Sonetos del amor oscuro**ok Lugaritzekoa ere. Bestetik, **Afoniak** soinu-sorkuntzak eta **Harkaitz Canoren** **Fakirra- ren ahotsa** eleberraren aurkezpenak interes handia piztu zuten. Aipamen berezia egin behar zaie **Pio Barojari bisitan** literatur ibilaldiari eta **Anna Karenina** liburuaren inguruko afari-solasaldiari, non 80 lagun bildu baitziren, aretoa osorik bete arte, eta artean beste asko itxaron-txandand zirelarik.

Beste elkarte batzuekin batera programaturiko jarduerak ere ez zuten inor hotz utzi: EHuren **Pentsatu!** Jardunaldiak, **Danele Sarriugarte** eta **Fernando Broncanoren** arteko topaketa **Kaxilda** liburu-dendan kulturaz hitz egiteko (denda mukurru bete zen) edo filosofia eta oinazeari buruzko mikroeztabaidak **Tabakalerako Kutxa Kultur** gunean. Denek izan zuten harrera ona jendearen aldetik. Baina topaketaren bat nabarmentzekotan, edizio horretan liburu-dendetarako hitzorduek izan dute harrerarik onena. Egin ziren hiru topaketetan izan zen jendetza, eta agerian geratu zen liburu- en etxean pentsamendura hurbiltzeak duen xarma.

Datu bitxi bat: Literaktum-en egin zen liburu-zozketan ehundik gora lagunek hartu zuten parte.

2018ko edizioa, beraz, oso edizio ona izan zen.



© Josu de la Calle

Pio Baroja ibilbidea

DKLUBA



Pristine / Glad is the Day / Gartxot

Dkluba hemengo musika independentearen marka bihurtu da dagoeneko. 2018an, 18.876 ikus-entzule izan ziren 54 kontzertutan, zeinak taberna, aire libreko agertoki eta **Intxaurrondo Kultur Etxeko** aretoan egin baitziren.

Programak, musika eskaintzeaz gainera, beste sinergia batzuk eragiten ditu, hala nola urrian sortutakoa, **Willis Drummond** taldeak sorkuntza-egoitzaldia egin baitzuen **Intxaurrondon**. Bandak DVDan grabatu eta **Durangoko Azokan** salgai jarriko zen kontzertua prestatzeko baliatu zuen egoitzaldia. Esperientzia hura ezagutu eta bizitzeko, **Lauizeta Ikastolak** topaketak izan zituen taldearekin, eta material grafikoak sortu zituen, zeinak orain, Kultur Etxearen beraren erakusketa batean jarri baitira ikusgai. Beraz, Dkluba musika baino gehiago da.

Izan ere, **Intxaurrondo Kultur Etxea** erreferentzia-fenomeno bihurtzen ari da bere hartan: duen musika-eskaintzak eta erosotasunak jarraitzaile talde bat sorrarazi du, 2017tik hona kontzertu-aretoke sarrera guztiak agortzen dituen. 2018an, **Willis Drummond**, **Doctor Deseo** eta **Su Ta Garrek**, besteak beste, aurrez itxiarazi zuten leiha-tila, sarrerak agortuta.

Dklubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren Eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 13an, Loiola kalea musikaz bete zen goizean zein arratsaldean. Zazpi kontzertuk girotu zuten espazio publikoa; nabarmentzekoak **Travelin' Brothers** eta **Rural Zombiesenak**. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.

Baina, Dklubak udako musika-agen-daren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko



Su Ta Gar



Tempera

Kultur Hiriburutzatik dator, eta sendotzen ari da: egun batetik bira luzatu zuen iraupena, (abuztuaren 4an eta 5ean izan zen), kolaboratzaile bat gehiago lortu zuen (**Kutxa Kultur**) eta agertoki gehiagotara iritsi zen (**Le Bukowski** eta **Dabada-bara**). Edizioak, eguzki ederra nagusi zela, 30 artista baino gehiago bildu zituen, azokatxoa, arte-instalazio bat eta jan-edarien salmentamahiak. Ezbairik gabe, hitzordu hau bere lekua egiten ari da Donostiako udako egutegian.



Glad is the Day

OLA
TU !!!
TALK
A !!!

#HiriaEgin
#HacerCiudad

MUSIKA
ARTE
MERKATUAK
TALLERES
ZIENTZIA
TEATRO
DANTZA
EXHIBICIONES...

maiatza / mayo
25-26-27

2015ean Donostia Kultura Olatu Talkaren zuzendaritzaz eta produkzioaz arduratu zenetik, hots, Kultura Hiriburutzaren ondareko programa batez, jaialdi hori **saihes-
tu ezinezko hitzordua** bilakatu da, Donostiako oinarrizko kultur sareari ikusgarritasuna eta lekua ematen di-
ona.

2018an, Olatu Talkaren 9. edizioan, **gizarte-aldarrikapenak** jaialdiaren azal eta kontrazal izan ziren, artea, dantza, zientzia, ingurumena eta, batez ere, pertsonen arteko eta elkarbizitza-
zako harremanak gaitzat dituzten historiak kontatzen baitziren.

Inaugurazioa musikaz, dantzaz eta performancez osatu zen, Agurtzane Intxaurreaga eszena-zuzendariak sortu eta zuzendua, eta **hiriko gi-
zarte-aniztasunaren** aldeko mezua bideratu zen. Amaiera-ekitaldian, ber-
riz, **genero-indarkeriaren kontrako** mezua bideratu zuten bi artelaneak.

Gizarte-aldarrikapenen jaialdi honetan, 31.000 lagunek baino gehiagok gozatu zuten programaren %95az (hasieran 156 jarduera ziren izatekoak), eguraldi txarrak galarazi baitzuen oso-osorik garatzea. Hala eta guztiz ere, bikain-bikaina izan zen jaialdiaren giroa. Hainbestera-
ino non, parte hartzekotan izena ematea derrigorrezkoa zuten 21 jardueretan, erabat bete baitziren aretoak (1.200 lagun hartu zituzten).

Programaren barruan, Basoka, Zorionak Dylan!, Merkatuaren Eguna (Antiguan) eta Añorgako Harrobiaren Plazako hitzorduek berebiziko arrakasta izan zuten. Jarduera batzuetan ikus-entzule ugari izateak eta beste batzuetan giro aparta, **hirian era askotako jarduerak izatearen garrantzia gogorarazi zigun, eta auzoei parte hartzeko bideak emateko premia.**

Beste jarduera batzuk ere bereziki dinamikoak gertatu ziren, hala nola “Mun-




© Bostok Photo

Olana Liss, Kontzertour


duko Jolasen Topaketa” (Ongi Etorri Eskolara-rena, familientzat) eta Donostia Sketch (Elkar-ena, sei urtetik gorako marrazkilarientzat), oso parte hartze handia, beroa eta aktiboa izan baitzuten.

Dinamika horiez gainera, edizio honetan ere izan ziren jendea gehi-
go erakarri zutenak, hala nola Kontxa Gaumarket (86 postu) eta Kontzertour (42 emanaldi), harrera ezin hobe-
a egin baitzieten ikus-entzuleek.



© Bostok Photo

Elkarbizi jaia, Intxaurreaga auzoa



© Bostok Photo

Irekiera ekitaldia



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostiakultura

2018
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO
DE ROISILLO

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
OTSAILA 15 FEBRERO - MARTXOA 04 MARZO




© Lorena Otero

El mundo por montera, Rodrigo Cuevas

P

oltsiko Antzerkiko XXVII. Jaialdiak **ager-toki polita** izaten jarraitzen du **antzerki-talde txiki eta er-tainentzat**.

2018an, jaialdiak Donostiako auzoak hartu zituen otsail-martxoetan; 34 jarduera eskaini zituen, eta 3.343 lagun bildu ziren haietara. Jarduera gero eta jarraituagoa da urte-tik urtera, eta **Poltsiko Antzerki Sorkuntza** deialdiak euskarazko antzezlan berriak eranstean dizkio programari, eta arte-mintegi interesgarria bihurtu da, bai ikus-entzuleentzat eta bai euskaldunon kultur mundua-rentzat.



© Lorena Otero

Puer Aeternus, Rubik Cia



© Lorena Otero

Gudua, Atauts taldea



© Lorena Otero

Sex o no sex, Itziar Imaz



Zerbitzuen Gida

Donostia Kulturak urteak daramatza gizarte-ekintzak burutzen, beste erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean. 2018 urtean zehar gazte, heldu eta babesgabeko pertsonen zuzendutako hainbat ekimen burutu dira esparru ezberdinetan.

Gainera, bestelako jaialdi eta zikloekin lan egin da, elkarren ondoan, ilunpean geratzen diren errealitateak ezagutzera emateko asmoz. Egunerokoan ere, alde soziala duten pausoak eman ditu kultur erakundeak, urte amaieran sekulako oihartzuna izan zuen Euskaraldiak ahaztu gabe.

KULTUR EKINTZA (KULTUR ETXEEN SAREA)

Hiriko kultur etxeen bitartez talde ezberdinei zuzendutako **hainbat programa eta ekimen** garatzen dira.

Plus 55 programa: **55 urtetik gorako pertsonen** zuzendutako programak: Larunbatak dantzan, Igandeak dantzan, Bideo forumak, Antzerki emanaldiak eta formakuntza tailerrak burutu dira.

Gaztelekuak (12-17 urte) eta **Haurtxokoak** (5-11 urte) gazte eta haurrei zuzendutako dinamizazio zerbitzua kultur etxe gehienetan ematen da.

Jarduerak elkarrekin: hainbat jarduera egiten dira euskarri sozialeko

elkarrekin eta GKEkin (Atzegi, Gormutuen elkarte, elbarriak...), talde ezberdinekin (atzerritarrak, ijito elkarte...) edota Udaleko beste sailekin (Berdintasuna, Ongizatea, Gazteria...). Bestalde, auzoetako elkarrekin, bilerak eta jarduerak egin ditzaten, aretoak eta gelak lagatzen zaizkie hiriko kultur etxeetan.

FESTAK

Donostia Kulturako Festen departamentuak oso aintzat hartzen ditu gizarte-ekintzak antolatzen dituen jai guztietan. Horren adibide dira, besteak beste, **ingurugiroa** babes-teko neurriak eta ekintzak (edalontzi berrerabilgarriak baliatzea, material birziklagarria, hondakinen gaikako

bilketa...), **ohitura osasungarriak** bultzatzekoak (prozesatu gabeko eta hurbileko lehengaiak erabiliz antolatzeko gastronomia-lehiaketetan), bai eta beste batzuk ere, non xedea **generoen arteko parekotasuna** baita (emakumeek festetan rol aktiboa izan dezaten bultzatzea, eraso matxisten kontrako kanpainak), **nagusia aintzat hartzea** jaietan (Errege egunean eta Inauterietan nagusien egoitzetara bisitak egitea...), edo mugikortasun mugatuko pertsonen **modu inklusiboan** bizi izatea jaiak (haintzako guneak jarrita, zeinu-hizkuntzarako itzulpenak eginda, dibertsitateari begira irisgarritasuna eta inklusibotasuna sustatzen dituzten jarduerak...).

EKOIZPENA ETA FINANTZAK

Produktzio Zuzendaritzak denbora zeraman adimen-desgaitasuna duen pertsona bat lan taldean bat egiteko gogoz, horrela, ohiko lan esparruan pertsona hauen **integrazioan harri-koskorra** ekarri nahi izan da.

Finantza sailak honelako kontratazioetarako sorta bat duenez, Gureak eta Atzegi erakundeekin harremanetan jarri zen, Donostia Kultura egituraren bat egin zezakeen pertsonaren hautaketa hasteko. Azkenik, pertsona horren formakuntza burutu zen eta Victoria Eugenia Antzokian hilabete praktiken ondoren, irailean Donostia Kulturaren lanean hasi zen, bere gaitasunekin bat datozen zereginak egiten eta erakundeko sail gehienekin erlazionatuaz. **Nabarmendu eta eskertzen dugu, Aitorrek egunerokoan egiten digun ekarpena.**

Gainera, Marta urteak daramatza gurekin lanean; bere lanak San Telmo Museoa betetzen ditu.

ADMINISTRAZIOA ETA BALIABIDEAK

Donostia Kultura **Erantzunkide** sareko partaide da, **berdintasun eta bateragarritasun neurrietan aurrera** egiteko sortu den sarea. Gipuzkoako



Donostiako Estropadak - Emakumeen Estropada

Foru Aldundiak jarri du martxan. Enpresen artean esperientziak partekatzen dira, horrela gero eta enpresa gehiagotara heltzeko.

ZINE UNITATEA

Zine Unitateak **hainbat ziklo eta jaialdi** antolatzen ditu arlo sozialeko hainbat erakundeekin elkarlan estuan. Horren adibide dira Zinema eta Giza Eskubideen Festibala, Zinegoak Festibalaren luzapena, Emakumeek Egindako Zinema Zikloa, Beste Begiradak Festibala edota arlo ezberdinetako erakundeekin antolatutako proiektuak.

SAN TELMO MUSEOA

San Telmo Museoa lan ildo ezberdinak ditu ekintza sozialen esparruan. Batetik, kolektibo ezberdinei zuzendutako deskontuak eta erraztasunak eskaintzen ditu (ikasleak, gazteak, 65 urtetik gorakoak, familia ugariak, langabetuak). Bestetik, **jarduera bereziak**

antolatzen ditu: hitzaldiak (Erronkak zikloa), topaketak eta erakusketei lotutako ekimenetan doako bisita gidatuak eskaintzen dizkie gizarte bazterketan dauden taldeei.

EUSKARALDIA

Donostia Kulturak **parte hartze aktiboa** izan zuen Euskaraldiak iraun zuen 11 egunetan zehar. Batetik, kultur etxetan ekimen honen materiala jaso zitekeen. Bestetik, Euskararen Egunaren inguruan programatutako hainbat ikuskizun, musika, haur antzerkia, familia tailerrak, San Telmo Museoa bisita gidatuak, literatur solasaldiak... izan ziren.

2

2018an, Donostia Kulturako Produkzio Unitateak **701 ekoizpen** baino gehiago egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean,

San Telmo Museoa, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira Antzerki FERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka jaialdia, Jazzaldia eta Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astea, bai eta Zinemaldiarekin eta beste erakunde batzuekin izandako beste lankidetzak batzuk ere, zeinen artean honako hauek nabarmenduko baititugu:

- Lagun liburu-dendari egindako omenaldia
- I-COM kongresua

- DIPC jardunaldiak
- Basque Culinary Center-eko Galako Afaria

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2018an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

KURSAAL ESZENAren kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).

Musika Hamabostaldiaren kontzertuak Kursaal Jauregian, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoa, bai eta beste gune batzuetan ere.

Produkzio Koordinazioa, **SSIFF Donostia Zinemaldia**rekin batera, Victoria Eugenia Antzokian.

Gabonetako Kontzertua (**EI DIARIO VASCO**).

Donostiaren Urrezko Domina Eusko Ikaskuntzari emateko ekitaldia, **DONOSTIAKO UDALAK** antolatua.

Ponentzia batzuk aurkeztu ziren "Formatu handiko kultur ekitaldien antolakuntza"ri buruzko mintegi batean, Kroaziako Rijeka hirian, **RIJEKA 2020** Europako Kultur Hiriburutzarako programaren barruan.

Azkenik, nabarmentzekoa 2018an desgaitasun intelektuala duen kide bat sartu dela antolakuntza-egituran, **PAUSO BERRIAK** programari esker, zeina Atzegik eta Gureak erakundeek sustatzen baitute.



Olana Liss



Beldurrezko Astea - Kartela



Olatu Talka - Inaugurazioa